ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-04-22
ASTELEHENA
406. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## 'Prozaka.eus' antzezlanak bete egin du Arkupe

Ikusleek "dibertigarria" dela esan zuten estreinaldian | 33


IMANOL SORIANO

Euskal Herri osoko dantzak erakutsi zituzten zapatuan Oñatin | 32



Jakiunde akademiak hiru kide berri aukeratu ditu | 5



Elgetakoek arrasatearrei pasa zieten zapatuan Trikiti Eguneko lekukoa | 30

# Helburua, zero zabor herria izatea

"Berrerabili, murriztu eta birziklatzeko" konpromisoa berretsi zuten zapatuan Bergaran, Berdegara Egunean. Zero zabor herria izateko bidea hasi nahi du herritarrekin Berdegara ekimenak. | 5


Berdegara Egunean ume eta gazteendako gunea egokitu zuten Irala kalean eta, besteak beste *flashmob*–a egin zuten bertan. | IMANOL SORIANO


Maite Maiora helmugaratzen. | J.A.

## Javier Olaberria eta Maite Maiora garaile Aloñako Igoeran

270 korrikalarik hartu zuten parte atzo, Oñatin jokatutako Aloñako IX. Igoeran. Maite Maiora mendaroarraren goiza izan zen: lehen aldiz aurkeztu eta errekorra ondu zuen. Gizonezkoetan azkarrena Javier Olaberria orozkoarra izan zen eta bailarako lehena, Iban Letamendi. | 22

## Berdintasunaren bidean beste urrats bat eman dute Arrasaten

Asteburuko Jardunaldi Feministen gaineko balorazio positiboa egin dute antolatzaileek | 4


Batukada Seber Altuben. | I.S.

## 8.000 aitorpen pasa tramitatuko dira Bergaran

Egunean 200 bat mekanizatu egingo dituzte | 2

## "Suitzan badira banku-sekretuak eta horretaz baliatzen dira dirudunak"



**Joseba Urtzelai**
Ingeniaria | 18

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Desgrabazioak aprobetxatu, indarrean dauden bitartean

## PFEZn desgrabatzeko aukerak txikitzen doaz, Europatik datozen irizpideekin bat eginez

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Nobedade barik hasi zen 2012ko PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) aitortzeko kanpaina joan den martitzenean Ogasunak Bergaran horretarako duen egoitzan. Oraindik jende gutxi zebilen, baina, bulegoko arduradunak, Miren Pozuetak esan zigunez, kanpainak aurrera egin ahala, egunean 190 eta 200 aitorpen mekanizatu tramitatuko dituzte, seguruenik. Izan ere, aurtengo kanpaina iazkoaren "oso antzekoa" izango dela aurreikusten dute, eta, iazko antzera, hortaz, 8.000 aitorpenetik gora kudeatuko dituzte Bergaran. Eta hori hala izango da urtetik urtera autolikidazio proposamenak gehiago izan arren –aurten, 227.000 proposamen bidali ditu Foru Ogasunak– eta iaz baino zergadun gutxiago izan arren –1.000 bat gutxiago.

Iaz adina teknikari daude Bergarako egoitzan: bederatzi, eta arduraduna. Bestalde, aitorpen mekanizatua egiteko txanda bulego horretan bertan har daiteke, baina Internetez hartzea gomendatzen dute, *www2.gipuzkoa.net* webgunean. Telefonoz ere har daiteke.

Euskaraz gero eta jende gehiagok egiten du aitorpena, Bergaran behintzat. Miren Pozuetak dioenez, "harreman-hizkuntza euskara zen lehendik ere, baina gero eta jende gehiagok, batez ere gazteek, eskatzen du aitorpena bera ere euskaraz egitea".

**Erreforma, bete-betean**

Aurtengoa kanpaina berezia da, berarekin dakartzan berritasunengatik; hala, 2011ko abenduaren 23an Batzar Nagusiek, Bilduren, Aralarren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten erreforma fiskalak zerga handiagoak ordaindu beharra ekarri du. Baina, Miren Pozuetak esan digunez, "kanpainaren alderdi berrien gaineko informazio asko irten da komunikabideetan eta, orokorrean, jendea jakinean dago". Horrez gain, Foru Ogasunak kanpaina hasieratik dauka martxan informazio telefonoa (902 10 00 40), dauden zalantzak argitzeko. Azkenik, gida-liburua ere argitaratu du Ogasunak, eta Interneten kontsultatu edo PDF formatuan jaits daiteke.

Zergadunek erreforma horiek zelan hartu dituzten laburtzen dute Bergarako bulegoan zeuden bi gizonek Goiena Telebistari esandakoek: batak zioenez, alderdi berriei ez zien aparteko jaramonik egin. "Zertarako? Ezin da ezer egin; dagoena onartu egin behar da". Bere iritziz, Ogasunak derrigorrezkoa zuen zergak handitzea: "Ez dago fondoak handitzeko beste modurik", zioen. Beste gizonezko batek kontrako iritzia zuen: "Ez dut ulertzen herritarroi diru gehiago hartzea. Hobe izango litzateke guri gehiago bueltatuko baligute, horrela guk gehiago kontsumitu ahal izateko eta ekonomia berriz indartzeko".

Orain bat-batean Ogasunari dirua itzuli behar izatea –bestela esanda, 2012an zergatan hainbat herritarri kobratu behar ziona eta ez zuena garaian kobratu– bereziki mingarria izan daitekeen arren, 2011ko abenduan Batzar Nagusiek onartutako erreforma 2012ko urtarriletik dabiltza igartzen Gipuzkoako langile gehienak, nominatik atxikipen handiagoak ordaintzen dituzte-eta. Baina zerga-erreformaren eragina oraintxe ikusiko da bete-betean. Horren erakusgarri da Foru Ogasunak berak emandako datua: nahiz eta zergadunen % 77k dirua jasoko duten Ogasunetik, erreformaren ondorioz iaz baino 32 milioi euro gehiago jasoko ditu Foru Ogasunak. Erreforma egin izan ez balitz, ordea, iaz baino 28 milioi gutxiago batuko lituzke. Denetara, 86 milioi euro aurreratuko ditu Ogasunak aurtengo kanpainan.

Xabier Olanok, Ogasun zuzendariak, eta Yolanda Dominguezek, Zuzeneko Zergen zuzendariak, emandako datuen arabera, Ogasunak 322 milioi euro itzuliko dizkie 304.000 zergaduni, bakoitzari 1.058 euro, batez beste. Iaz baino 8.000 herritar gutxiago dira, eta iaz baino 59 euro gutxiago bakoitzarendako. Horrekin batera, jende gehiagok itzuli beharko dio dirua Ogasunari: 89.000k, iaz baino 7.000 gehiagok, eta bakoitzak, batez beste, 1.604 euro itzuliko ditu Gipuzkoako diru-kutxara.

**Gero eta kenkari gutxiago**

Bergarako Aierdi aholkularitzako Jon Larrañagak dioenez, desgrabazio aukerak "betiko berberak" dira, gutxi gorabehera, eta betiko lau kapitulutan gorpuzten dira: norberaren egoera pertsonala –ezkondu egin bada, seme-alabak izan baditu, alargun geratu bada, mendekoa bada, gutxitua bada…–, etxebizitzarekin lotutakoak, jarduera profesionalarekin lotutakoak eta mezenasgoarekin lotutakoak (normalean, diruren bat dohaintza gisa egin bazaio irabazi-asmorik gabeko erakunderen bati). Aukerak betikoak izan arren, badago zergadunek adieraztea ahazten duten alderdiak eta baliteke horietatik kitapen aukeraren bat izatea: esaterako, baliteke familia batek iaz seme-alaba bat izan badu, horrek familia ugari kalifikaziorako eskubidea ematea. Era berean, lurralde batetik besteren batera bizi izatera joan den zergadunak batean edo bestean aitortzeko aukera izan dezake.

Euskadiko lurraldeetako Batzar Nagusien eskumena da zergak arautzea, eta badaude desberdintasunak, adibidez, Espainiako Gobernuak emandako zerga-arauekiko. Era berean, Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak bakoitzak bere zerga-arauak ditu. Adibidez, Espainiako Gobernuak kendu egin duen desgrabazio bat, 2013an etxebizitza erosi dutenei egindakoa, Gipuzkoan oraindik badago. Dena dela, datorren urtera begira aurten ze arau emango dituzten oso zaila da aurreikusten, Jon Larrañaga aholkulariak dioen bezala: "Orain indarrean dauden arauak abendu bukaeran

### DATUAK

**8.000**
AITORPEN
Iaz bezala, 8.000 aitorpen pasa tramitatuko dituzte aurten Bergarako bulegoan.

**1.000**
GUTXIAGO
393.000 gipuzkoarrek egin behar dute PFEZa aurten, iaz baino 1.000 gutxiagok.

**32**
MILIOI EURO
Erreformei esker, Foru Ogasunak iaz baino 32 milioi euro batuko ditu aurtengo kanpainan.

**% 23**
ZERGADUN
Zergadunen % 22,6k dirua itzuli beharko diote Ogasunari, iaz baino 7.000 gehiagok.

**322**
MILIOI EURO
Ogasunak 322 milioi ingresatuko die 304.000 zergaduni; bakoitzari 1.058 euro, batez beste.


Errenta aitorpen mekanizatua egiteko bulegoak martitzenean hasi ziren lanean. Ar

### Kontuan hartzeko datak

**AUTOLIKIDAZIOAK**

**Onartzeko epe-muga:** Ekainaren 25a.

**Onartu nahi ez dutenek:** Mekanizatua aurkezteko txanda har dezakete hilaren 19a ezkero.

**MEKANIZATUA**

**Txanda hartzeko:** Ekainaren 7ra arte.

**Aurkezteko:** Ekainaren 25era arte.

**INTERNETEZ**

**Aurkezteko epe-muga:** Ekainaren 25a.

**ONDARE-AITORPENA**

**Aurkezteko epe-muga:** Ekainaren 25a.

▶ Informazio gehiago: 902 10 00 40 telefonoan.



gazkian, Bergarakoa, egun hartan. | LEIRE KORTABARRIA

onartu zituzten. Galdetzen didatenean ea, aurten etxebizitza erosita, 2014an errenta aitorpena alde irtengo zaien eta ea zer egingo duten, esaten diet etxebizitza behar badute, eros dezatela, ezin delako aurresan ze arau izango ditugun". Edozein modutan, Bruselatik eta Madrildik pista batzuk etortzen dira: "Europako Batasunaren irizpidea da kenkariak txikitzen edo kentzen joatea, eta ogasun bakoitzak badauka bere arauak egiteko marjina, baina gero eta txikiagoa da".

**Etxebizitzan, aldaketak**

Desgrabatzeko aukeretan izan dira beste aldaketa nabarmen batzuk; oro har, desgrabazioak txikitzen edo mugak ipintzen.

Etxebizitzaren kapituluan, ohiko etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1a ezkero erosi zutenek aurretik erosi zutenek baino kenkari txikiagoak izango dituzte. Hain zuzen, 35 urtetik gora dutenek % 15eko desgrabazioa izango dute –orain arte, % 18 zuten–, eta 35 urte baino gutxiago dutenek eta familia ugariek, % 20koa –orain arte, % 23–. Desgrabatu daitekeen gehieneko diru-kopurua ere txikiagoa da aurten: 1.500 eta 2.000 euro orain, hurrenez hurren (2.160 eta 2.760 zen orain arte). Eta denetara gehienez desgrabatu daitekeen diru-kopurua 30.000 eurokoa da, orain arte baino 6.000 gutxiago.

EPSVak eta pentsio planak dira desgrabatzeko beste aukera erabilienetako bat. Bada, aurten, norberak ezingo du 5.000 euro baino gehiago kendu aitortu beharreko kopurutik; urtean zehar gehiago ipini bada ere EPSV edo pentsio planean, ezin izango da 5.000 euro baino gehiago desgrabatu. Bestalde, norberak eta enpresak, biek ipintzen badute dirua, ezingo dute urtean 12.000 euro baino gehiago ipini eta, hala egiten badute, enpresak ipinitako dirua kenduko dute lehenengo: adibidez, enpresak 8.000 euro eta norberak 5.000 euro ipini baditu, enpresaren 8.000 euroak eta norberaren 4.000 deduzituko ditu Ogasunak. Azkenik, 67 urtetik gorakoek ez dute aurrerantzean inongo kenkaririk aplikatu ahal izango plan horietan dirua ipintzeagatik.

Mugatu den beste abantaila fiskal bat 65 urtetik gorakoek zeukaten dedukzio-eskubidea da. Orain, 20.000 euro baino gutxiago aitortzen dutenek izango dute dedukzio osoa; eta, zati bat, 20.000 eta 30.000 artean aitortzen dutenek.

**Hiru tramu berri, goitik**

Atxikipenei dagokienez, hor ere Ogasunari gehiago batzen ahalbidetzeko aldaketak daude. Lan -erренten kapituluan, oinarri likidagarriaren gaineko hiru atxikipen-tramu sortu dira: 90.000 eurotik gorako errentendako, % 46ko tasa marjinala; 120.000 eurotik gorakoendako, % 47koa; eta % 49koa, 175.000 eurotik gorakoendako. Horrek esan nahi du, adibidez, 100.000 euroko errenta duen zergadunak 10.000 euroren % 46a ordaindu beharko diola Foru Ogasunari.

Kapital-erренten kapituluan ere aldaketa handiak daude: iaz aurrezki eta inbertsio-produktuetatik 4.000 euro baino gutxiago irabazi zutenek irabazien % 20a eman beharko diote Foru Ogasunari, eta 4.000 eurotik gora irabazi zutenek, errenta horien % 23a.

---

**JON LARRAÑAGA** | AIERDI AHOLKULARITZAKOA

## "Gogoratu behar da EPSVko dirua ere aitortu egin behar dela, ateratzerakoan"

**Zeinek egin behar du aitorpena?**

Normalean, lanetik 20.000 eurotik gorako etekin brutuak izan dituenak, edo kontratu bat baino gehiago, edo errenta mobiliariotik 1.600 euroko etekin brutua baino gehiago izan duen jendeak.

**Zeintzuk dira errenta aitorpena prestatzerakoan egiten diren akats ohikoenak?**

Askotan ahaztu egiten ditugu gauza batzuk: etxebizitzaren kontuan aportazioa egin badu etxea erosteko, eta oraindik zerbait aplikatzeko mdouan badago, hori ahaztea; norberaren egoeran aldaketak egon badira – ezkontzea, seme-alabak...–; kuota sindikalen bat edo elkargo profesional batera aportatzen den kantitateren bat... Gauza txiki horiek jendeak ahaztu egiten ditu. Kapitulu garrantzitsuenak –lanak, bankua, EPSVak...– normalean jendeak nahiko argi izaten ditu.



L.K.

**"EPSVetan eta etxebizitzan izan dira aldaketa nagusiak"**

**Aurten, desgrabatzeko ze aukera nagusi daude?**

Aukera nagusiak klasikoak dira, ez dago aldaketa handirik. Aldaketa murrizpenean izan da, kontuan izatekoa: ez ahaztu EPSVarena ez dela itzuli beharrik gabeko desgrabazioa, baizik eta diru hori berreskuratzean kontuak egin behar ditugula Ogasunarekin eta ordaindu egin behar dugula tokatzen dena. Eta etxebizitzarena da bestea. Horiek dira garrantzitsuenak.

**Etxebizitzaren inguruko aldaketa handienetariko batek iaz erosi zutenei eragingo die.**

Bai. 2012an, urtarrilaren 1etik aurrera erosi zutenendako desgrabazioak txikiagoak dira. 35 urtetik beherakoek %20 desgrabatzeko aukera dute –aportatzen duten amortizazioa eta interesak batuta–, 2.000 euroko topearekin. 35 urtetik gorakoendako desgrabazio kuota % 15era jaitsi da, 1.500 euroko gehiengoarekin. Lehen, % 18ko eta % 23ko kuotak zegozkien. Beraz, 2011. urtera arte etxea erosi dutenek kuota horiek izaten jarraitzen dute.

**Espainian, kendu egin dute 2013an erosten diren etxebizitzetarako kenkaria...**

EAEn eta Nafarroan, oraingoz, mantendu egiten da. Baina aurtengo ekitaldirako aldaketak abendu bukaeran onartu ziren. Horri begiratuta, 2013an etxebizitza erostea komeni den edo ez esatea oso zaila da.

---

ESANAK

**"PFEZean aldaketak egon diren arren, jendea informatuta dator"**

**"Kanpaina bizien dagoenean, 200 aitorpen tramitatuko dugu egunero"**

MIREN POZUETA
BERGARAKO BULEGOKO ARDURADUNA

---

## Kontuan hartzekoak

**AGIRI GUZTIAK**

Hipoteka dutenek Ogasunari aurkezten dizkioten datuetan egon behar dira etxebizitza zenbat kostatu zaien, mailegua jasotzeko sinatu diren zergak, aseguruak, e.a. Horiek denek osatzen dute desgrabatu daitekeen kopurua.

**FAMILIA UGARIAK**

Familia ugarien titulua dutenek horixe eroan behar dute aitorpena egitera, dagozkion kenkariak jasotzeko. Familia liburua ere eroan behar du iaz seme-alaba izan duenak.

**GAIZKI BADAGO, ESAN**

Autolikidazio proposamena errepasatzerakoan txarto dagoela, eta dirua itzuli beharrean ingresatzea tokatzen bazaigu, hori ere esan egin behar zaio Ogasunari. Bestela, isuna jaso daiteke aurrerantzean.




# Berdintasunaren bidean borrokan, Arrasaten Jardunaldi Feministak egin dituzte asteburuan

▶ Ponentziak, tailerrak edo Arrasate ikuspuntu feministatik ezagutzeko bisita gidatua egin zuten

▶ Balorazio oso positiboa egin dute; 'Emakumea eta Borroka' ponentziara 85 lagun gerturatu ziren

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Arrakasta borobila izan dute egubakoitz eta zapatuan egin diren Arrasateko Jardunaldi Feministek. Arrasateko Emakume Txokoaren hamargarren urteurrena ospatzeko, Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailarekin eta Arrasateko Gaztetxearekin elkarlanean, feminismoa bultzatzeko eta horren gainean hausnartzeko hainbat ekintza egin dira. Aurtengoa lehenengoa izan da, baina izan duen erantzuna ikusita litekeena da azkena ez izatea.

Egubakoitzean eman zieten hasiera Arrasateko lehenengo Jardunaldi Feministei Kulturaten, feminismoan munduko lau hegaletan gertatzen ari diren prozesuen inguruko dokumentalaren proiekzioarekin, eta osteko solasaldiarekin.

**'Emakumea eta Boterea'**

Zapatu goizean, Emakume Txokoaren 10 urteak errepasatu zituen bideoarekin hasi zituzten jardunaldiak, eta ostean ponentzien txanda etorri zen: Arantza Santesteban historialariak eta Larraitz Ugarte Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile eta Azpiegitura eta Mugikortasun diputatuak, *Emakumea eta Boterea* izeneko hitzaldia egin zuten.

Bertan hainbat ideia azpimarratu nahi izan zituzten biek. Santestebanek, adibidez, feminismoari irekitako espazio asko kontrolpean daudela eta estatuak subjektu feminista xurgatu duela esan zuen. Ugartek bestalde, perspektiba instituzionaletik emakumeak boterean egoteak, politika feministak garatzeko orduan eragina duen aztertu zuen.



Eguerdian batukadarekin lagundutako ibilbidea egin zuten. | IMANOL SORIANO




'Emakumea eta boterea' hitzaldiko une bat. | IMANOL SORIANO



Kale bati izena ere aldatu zioten. | IMANOL SORIANO

**Arrasate, ikuspuntu feministatik**

Eguerdian, Arrasateko hainbat leku ikuspuntu feministatik ezagutu zituzten, batukak lagunduta. Besteak beste, Zerrajeran eta udaletxean egin zituzten geldialdiak lanean bizi izandako diskriminazioa edo osoko bilkuraren aretoaren okupazioa gogoratzeko. Ibilaldia amaitzeko, Seber Altube plazan orain arte Maisu Arana izan den kaleari izena aldatu zioten. Zapatutik, Arano eta Gartzia maisu-maistrak kalea deituko da, hala Gartzia maistraren lana –maisu Aranoren emaztea– aldarrikatzeko eta ezagutzera emateko. Ondoren, gaztetxean bazkaldu zuten eta arratsaldean tailerrak eta ponentzia gehiago entzuteko aukera egon zen. Bigarren ponentzian, Aurora Iturriotz, Joxepa Bornaetxea eta Marixe Noya izan ziren *Pankartetatik, politika publikoetara!* hitzaldia eskaintzen.

Jardunaldi Feministekin amaitzeko, gauean emakumeentzako jai feminista ospatu zuten. Belen Nevado dj-ak izan zuen musika jartzeko ardura.

**LARRAITZ UGARTE**
DIPUTATUA

## "Emakume Txokoak oraindik asko du eskaintzeko emakumeei"



GOIENA

Ugartek *Emakumeak eta Boterea* ponentzian parte hartu zuen, eta Emakume Txokoaren hamar urteak baloratu zituen.

**Asko aldatu da egoera azken hamar urteetan?**

Ordutik hona hobekuntzak ematen ari dira. Emakumeak poliki-poliki pausoak ematen gabiltza, espazioak irabazten, baina oraindik asko dago egiteko. Oraindik gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak oso nabariak dira eta egiturazko aldaketak egin behar dira.

**Sistema aldatu beharra dago?**

Bai, sistema patriarkala errotik aldatu behar da, bestela, moldaketak bakarrik egiten, ez dugu inoiz berdintasuna lortuko. Oraindik lan berdinagatik gutxiago kobratzen dugu, pobreziak emakume aurpegia du...

**Zeintzuk dira eman beharreko pausoak?**

Garrantzitsua da emakumeek boterea hartzea, kontziente izan behar gara bizi dugun errealitateaz eta egunerokotasunean gauzak aldatu.

# "Herri hau zu barik ez da herri", abestu zioten 'Kanto'-ri

"Dagozkion eskubideak" aldarrikatzeaz gain, haren senitartekoak omendu zituzten Aramaion

**MONIKA BELASTEGI** | ARAMAIO

Aramaioko eta Bergarako Herrira taldeek deituta, Luis Mari Azkargorta, *Kanto* euskal presoaren senitartekoei omenaldia egin zieten zapatuan Aramaion, haren jaioterrian. Gaur, apirilak 22, 25 urte beteko ditu espetxean, eta data hori aintzat hartuta, zapatuko omenaldia eta hilaren 27rako Aramaio eta Bergara arteko bizikleta martxa antolatu dituzte.

1988an atxilotu zutenetik, Espainiako hainbat espetxetatik pasatu da eta gaur egun Zaragozan, Zuerako espetxean dago. 16 urte preso zeramatzala, 2003an, baldintzapean utzi zuten aske. Hala ere, 197/2006 doktrina ezarri zioten eta 2016ra arte luzatu diote kondena. Herrirako kideen esanetan, Azkargortak 2006ko urritik kalean egon beharko luke, zigorraren hiru laurdenak beteta.

Debagoien osoko herritarrak batu ziren zapatuan Aramaioko plazan egindako omenaldian. Bizente Goikoetxea abesbatzari jarraituz, plazan batutakoek *Hegoak ebaki banizkio* abesten hasi zuten ekitaldia. Horren ondoren, *Kanto*-k berak duela urte batzuk Carabanchelen preso zegoela idatzitako bertsoak entzuteko aukera ere egon zen eta jarraian, Herrirako kideek "Giza eskubideak, konponbidea eta bakea" aldarrikatu zituzten. "197/2006 sententzia derogatzea ezinbestekoa" dela azpimarratu zuten eta "giza eskubideen Europako auzitegiaren erabakia konponbiderako aktibo bat" dela ere argudiatu zuten.



Markel semeak egin zituen berba batzuk senitartekoen izenean. | MONIKA BELASTEGI

Hitz horien ondoren *Kanto*-ren senitartekoak izan ziren protagonista, "giza eskubideen urraketaren, sakabanaketaren testigu zuzenak" direlako. Aurreskua egin zieten lehenik eta baita lore sorta eman ere. Markel, semeak hartu zuen hitza orduan, eta esker hitzak izan zituen guztiendako.

Ekitaldia Aramaioko lau gaztek omenaldirako propio egindako kantua abesten amaitu zuten: *Herri hau zu barik ez da herri*, zioen pasarteetako batek.

**27an bizikleta irteera**

Hilaren 27ko bizikleta irteera 16:30ean abiatuko da Aramaioko plazatik Bergarara eta 25 kilometrokoa izango da, Luis Mari Azkargortak espetxean egindako urte bakoitzeko bat.

# "Birziklatu, berrerabili eta murrizteko" konpromisoa berretsi du Berdegarak

## Berdegara Egunak emandakoarekin oso pozik azaldu dira antolatzaileak

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

"Berdegaratik hasita, Bergara Zero Zabor herria izateko ibilbidea egitera goaz, ez da erraza izango, lan itzela suposatuko du, baina elkarrekin lortuko dugu. Etorkizuna murriztetik, berrerabiltzetik eta birziklatzetik dator eta hori guztia erraustegirik gabe egingo dugu". Hitz horiekin amaitu zen zapatu iluntzean Berdegara Eguna. Lasaitasunerako deia eta aldarrikapen koloretsua izatea nahi zuten antolatzaileek eta egunaren amaieran pozik azaldu ziren lortutakoarekin: " Oso pozik gaude. Jende asko irten da kalera eta hori da nahi genuena. Irala kalean antolatutako umeendako ekintzek sekulako arrakasta izan dute eta parte-hartzea handia izan da", adierazi zuen Berdegarako Mireia Lizarraldek egunaren amaieran.

**Errauskailuari ez**

Munibe plazan egindako amaierako ekitaldian errauskaluari argi eta garbi esan nahi izan zioten ezetz. Hori irudikatzeko kartoiz egindako erraiskalu handi bat lurrera bota zuten herritar talde batek lagunduta. "Handia izan arren, indarrez eta lanez errauskailua ere bota daitekeela ikusi duzue. Eta hori baino hobea litzateke eraiki ere ez egitea", azaldu zuten. Horrez gain, dantzari talde batek, ekitaldirako propio sortutako dantza batekin, errauskailua apurtu eta haize-errota ipini zuen haren tokian.

**'Mondomob'-eko entsegua**

Martxoaren 20an Zubietan egindako Flash-mobaren ostean Gipuzkoako Zero Zabor taldeak orain Mondomob delakoa egin nahi du. Bada, horretarako entsegua ere egin zuten zapatuan Bergaran eta herritar dezente animatu zen dantza egitera.

**Hiru gunetan banatuta**

*Murriztu, berrerabili, birziklatu. Aire garbiak bira nazan: erraustegirik ez!* izan zen Berdegara Egunerako aukeratutako leloa. Ekintzak hiru gunetan banatu zituzten; Irala kalea ume eta gazteen gunea izan zen, San Martin plaza artisten gunea eta Munibe plazan amaierako ekitaldi nagusia egin zuten.


Lokotx bilketaren jokoa egin zuten gaikako edukiontziak erabilita. | I. SORIANO


Kartoizko errraustegi handi bat lurrera bota zuten. | IMANOL SORIANO


Dantzari talde batek errauskailuaren aurkako dantza egin zuen. | I. SORIANO



**MIREIA LIZARRALDE**
BERDEGARA EKIMENA

"Ez dugu errauskailurik nahi eta horretarako birziklatze tasak asko handitzea lortu behar dugu, berrerabiliz, birziklatuz eta murriztuz. Alderdi teknikoak Udalaren ardura dira gure helburua da Zero Zabor filosofia hedatzea".



**MIKEL ERGUIN**
DANTZA IRAKASLEA

"Zubietako esperientziaren ostean gehiago nahi dugu eta gure mezua mundura zabaldu. Zero Zabor filosofia garrantzitsua dela erakutsi nahi dugu baina irribarre batekin, alaitasunarekin eta dantzaren bitartez".



**UNAI AZKARATE**
MUSIKARIA

"Darragh Oneill eta Gaizka Azkaraterekin errauskailuaren aurkako abestitxo bat prestatu dut. Esan berri duten 'berrerabili, murriztu eta birziklatu' mezuarekin bat egiten dugu eta horregatik gaude gaur hemen".

# Olaso dorrean egindako urteko lehenengo bileran Jakiundek hiru kide berri onartu ditu

## Jakitun berri hauekin lehen urtetako egonkortze prozesuari amaiera eman diote

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiak egubakoitzeko urteko lehen batzarrean hiru jakitun berri izendatzea erabaki zuen. Ekitaldi horretan Jose Luis Larrea, Ibermaticako presidentea; Miguel Zugaza, Prado museoko zuzendaria; eta Victor Gomez Pin, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Filosofia katedraduna akademi-kide aukeratu zituzten.

Azken eransketa honekin, 59 jakitun izango dira Akademia osatzen duten kideak. Jakitun berri horiekin urteotan diziplina askotako pertsonalitateen eransketa eta egonkortze prozesuari amaiera ere eman diote. Egubakoitzeko batzarrean baina, hautaketa besterik ez zuten egin. Azaroan egin ohi duten bileran emango dizkiote Jakituneko akademiko guztiek duten garaikurra.


Akademikoak egoitzaren aurrean. | JAKIUNDE AKADEMIA

**Ohiko batzarra**

Hautaketaren aurretik baina, Jakiunde Akademiako presidenteak Jesus Mari Ugaldek urteko lehen batzarra zuzendu zuen. Hasiera ekitaldian, Pedro Miguel Etxenike ohorezko presidenteak bere bizipen profesionaletan eta esperientzietan oinarritutako hitzaldia eskaini zuen. Bere hitzaldian "hezkuntzak eta zientziak gizarte baten garapen eta askatasunean duen garrantziaz" mintzatu zen.

# Bi ordu eta gero, Ertzaintzak harresia, oihu artean desegin, eta gazteak atxilotu zituen

**JB/I.G.** | ARRASATE

Goizaldeko seietan Donostiako Boulevarden zeudenetatik asko debagoiendarrak ziren, ia herri guztietatik joandako taldeek igaro baitzuten gaua bertan.

Zenbait hedabidetan azaldutakoa baino kontakizun gogorragoa egiten zuten Boluvardean zeuden lekukoek. Bergara eta Arrasateko taldeetako kideek "poliziak indarkeria erabili" duela berretsi zuten. Bergarako lagunetako batek kontatu zuen eserita zeudela ertzainak "oldartu" zirela.

"Erresistentzia modu baketsuan egiteko eskaera argia" zeukaten gazteek egina. Kondenatutako gazteak babestera joan zirenak kendu eta azkenean atxilotuak eroan zituzten.






Hainbat lagun, iazko irailaren 26ko greba orokorreko kale-agerraldian, Arrasaten. | JON BEREZIBAR

# Maiatzaren 30ean izango da krisialdiko 8. greba orokorra

## Gune plataformako kideek deitu dute, "politika neoliberalak" gaitzesteko

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Maiatzaren 30erako da, azkenean, Hego Euskal Herrian greba orokorra egiteko deialdia. Eguena da. Deialdi hori egingo zen zurrumurrua aste hasieratik zebilen, baina egubakoitza arte ez da konfirmatu. Izan ere, greba egitera deitzeko prentsaurrekoa egin zuen Gune plataformak. ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuak eta gizarte arloko 50 elkarte eta taldek osatzen dute Gune.

Grebarako "arrazoiak soberan" daude, Guneko kideen esanetan. Zehazki, Espainiako eta Euskal Herriko gobernuek onartutako murrizketa neurriengatik protesta egin nahi dute egun osoko lanuzte orokorrarekin.

Joan den azaroan Espainian greba orokorra egin zen, baina Guneko sindikatuek ez zuten deialdiarekin bat egin. Hala ere, orduko murrizketek jarraitzen bazuten, mobilizazioak deituko zituztela ohartarazi zuten. Orain, Euskadin eta Nafarroan agintariek politika "neoliberal" berberak aplikatzen jarraitzen dutela, eta langileek "inoizko aurrekontu antisozialenekin eraso gehiago jasaten" dituztela ondorioztatu du Gunek. Hortik dator greba egiteko deia.

### Urkulluren lehenengoa

Iñigo Urkulluk lehendakari gisa bizi izango duen lehenengo greba orokorra izango da, eta Mariano Rajoy Espainiako gobernuburu den ezkeroko laugarrena Hego Euskal Herrian. Bestalde, krisia hasi zen ezkeroko zortzigarren greba orokorra izango da. 2009ko maiatzaren 21a ezkero egin diren zazpi grebetatik bost Guneko sindikatuek eta plataformek deitutakoak izan dira, kasu batzuetan CCOO eta UGT ere deialdiarekin bat eginda; eta bi, CCOO, UGT eta beste sindikatu txikiago batzuek, Euskal Herriko sindikatu nagusien babesik gabe. Orain azkenekoan, azaroaren 14koan, ESK-k bat egin zuen CCOO eta UGTren deialdiarekin. Dena dela, greba horrek ez zuen eragin handia izan Hego Euskal Herrian, eta apenas eraginik Debagoienean.

Oraingoan, CCOO eta UGTri bat egitera gonbidatzeko gutunak bidali dizkie Gunek.

Iñigo Urkulluk erantzun dio greba orokor deialdiari. Oraindik konfirmatu barik zegoenean esan zuen greba orokorrak ez zuela "ezer konpontzen" eta lan-harremanen "eremua lokaztu" egiten duela.

Greba orokorrak kritika gehiago ere jaso du. Hala, Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailburuak, Juan Mari Aburtok, esan zuen greba ez dela "inorendako ona, ezta deitzen duenarendako ere". Grebaren ondoren edo horren ondorioz, sindikatuen, alde batetik, eta patronalaren eta gobernuaren arteko harremanak are zailagoak izateko aukera handiak daude. Gogora ekarri zuen Enplegu Saila ELA, LAB, CCOO, UGT eta Confebask-ekin batzartu dela eta sindikatuekin mahaia osatu nahi duela. "Adostasunak behar ditu herri honek, eta ez bestelako egoerak", esan zuen sailburuak.

Confebask-ek, Euskadiko enpresaburuen elkarteak, grebak "gizarte osoari" min egiten diola esan du, eta gogorarazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako erkidegoek baino soldata eta pentsio handiagoak dituela. Horregatik, "ezin da izan greba orokor gehienak dituen lurraldea", bere iritziz.

### Askotariko erantzuna

2009a ezkero egin diren zazpi greba orokor guztiek ez dute erantzun berbera izan. Handienetariko bat iazko martxoko 29koak izan zuen; orduan, Espainiako Gobernuak bultzatutako lan-erreformaren aurka mobilizatu ziren langile asko. Kasu hartan, Euskal Herriko sindikatu guztiek deitu zuten.

# Zubia Pateak negozio-aukera berriekin etorri da Madrilgo Gourmets Aretotik

## Arduradunak "oso pozik" daude azokan egin dituzten harremanekin

**L.K.** | ARRASATE

Eskoriatzako Zubia Pateak enpresa "oso pozik" bueltatu da jan-edanen sektoreko 27. Gourmets Aretotik. Apirilaren 8aren eta 11ren bitartean egin da, Madrilgo Ifema eraikinean, 27. Gourmets Aretoa, kalitatezko jan-edanen Europako azoka garrantzitsuena kontsideratzen dena. Euskadiko eta Nafarroako 72 enpresak hartu dute parte aurten, eta Debagoieneko Zubia Pateak ere han izan da. Urtero joaten dira, baina aurten emaitza bereziki onak izan dituztela esan digu zuzendariak, Joseba Zubiak: "Iaz baino askoz hobeto ibili gara, eta orokorrean ere hala izan da: iaz baino jende gehiago egon gara, profesional gehiago, bisitari gehiago…" Zubia enpresak kontaktu berri eta interesgarriak egin ditu: esportazio arloan, Kanadara eta Zeelanda Berrira esportatzen hasteko aukerak ireki zaizkio; eta Espainiako probintzia batzuetan banatzailea lortzeko kontaktuak ere egin zituen.

Produktu berriak aurkeztu zituen Zubiak Gourmets Aretoan: zehazki, ahate-foie bloka formatu txikian, eta hiru pate iberiko berri.



Joseba Zubia, EITB atenditzen Gourmets Aretoan. | ZUBIA PATEAK

Joseba Zubiak dioenez, beste enpresa batzuk ere oso gustura irten dira azokatik: "Gure ondoko postuan zeuden Gorrotxategikoak, eta haiek ere oso pozik zeuden".

### Iaz baino handiagoa

27. Gourmets Aretoan 1.188 erakusketari izan dira aurten, iaz baino % 12,5 gehiago, eta hiru pabilioi behar izan ditu, iaz baino bat gehiago. Espainiako eta beste 15 herrialdeko 30.000 produktu inguru erakutsi dituzte, horietatik 1.000, berriak. Bisitari gehiago ere izan ditu azokak aurten: 78.314 bisitari profesional, denetara, iaz baino % 5,5 gehiago. EAEko 39 enpresa izan dira bertan, eta Nafarroko 33.

Beste herrialde askotako enpresek parte hartu zuten azoka garrantzitsu horretan. Hain zuzen, honako herrialdeetakoak: Argentina, Bulgaria, AEBak, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Indonesia, Italia, Norvegia, Herbehereak, Portugal, Erresuma Batua eta Suitza.

**Kepa Altube** | Zuazola-Larraña Institutuko zuzendaria

# "Oraindik industria-ikasketak dira Lanbide Heziketan eskatuenak"

**L.K.** | ARRASATE

Lanbide Heziketako tituludun asko atzerrira joaten direla ikusi du Hezkuntza Sailak.



Kepa Altube. | L.K.

**Eskulangile kualifikatu asko Alemaniara, Ipar Europara… doaz.**

Bai. Herrialde horietatik, gehienbat, langile eskaera bat dago, eta badago arriskua hemengo tituludunak Europara joatea eta ez bueltatzea.

**Urte txar batzuk geratzen dira oraindik, ekonomia aldetik…**

Oraindik urte bat edo bi, behintzat, geratzen da. Baina hau momentuko krisia da eta irtengo gara, eta orduan, langile kualifikatu teknikoak behar izango dira. Erdi mailako heziketa zikloak egiten dabiltzan ikasle askok lana izango dute.

**EAEn, ikasleen erdiak daude Lanbide Heziketan. Debagoienean, zenbat?**

1.138 ikasle daude Lanbide Heziketa ematen dugun zazpi ikastetxeetan. 12 familiako 23 titulu ematen ditugu.

**Gaur egun, ze ikasketa eskatzen ditu jende gehienak?**

Industrialak jaitsi egin dira pixka bat, baina, gezurra badirudi ere, demandatuenak izaten jarraitzen dute, horietako tituludunendako gero lana izango dela aurreikusten delako: mekanizazioa, mantenua, elektrizitatea… Beste batzuetarako ere gero eta eskaera gehiago ditugu.

**Euskadiko Lanbide Heziketa Alemaniakoaren parekoa dela dio Lanbide Heziketako zuzendariak, Jorge Arevalok.**

Euskadiko Lanbide Heziketa erreferentea da Europan eta munduan. Argi dago beste herrialde batzuetatik ere gauzak hartu ditzakegula guk hobetzeko. Baina hemen, enpresan praktikak egin ditzakete, eta hori hemengo berezitasun bat da; Alemanian, enpresan egiten dute zati bat eta ikastetxean beste bat.

Elena Bartolozzi | Familia medikua eta Aromaterapian aditua

# "Nire ustez, medikuntza bat ez da beste baten ordezko, baizik eta bata bestearen osagarri"

- Aromaterapiari buruzko hitzaldia emango du gaur, astelehena, Kulturaten 19:00etan
- Orain bost urte hasi zen Aromaterapia ikasten eta guztiondako onurak dituela dio

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Elena Bartolozzi (Birmingham 1965). Familia-mediku arrasatearra da, orain dela 15 urte Bartzelonan bizi den arren. Aromaterapian aditua da eta, besteak beste, terapiaren ezaugarriak, erabilpena eta dituen mugak azalduko ditu gaur, astelehena, Arrasateko Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

**Zer da aromaterapia?**

Gaixotasunak tratatu eta pertsonen zein animalien ongizatea hobetzeko helburuarekin, landare aromatikoetatik eratorritako esentzia-olioen erabilera da.

Aromaterapia eskola bi daude Europan: ingelesa eta frantsesa. Nik egindako ikasketak frantses eskolakoak dira, besteak beste, Dominique Baudoux eskarmentu handiko aromaterapeutarekin. Aromaterapia zientifikoko liburu gehienak frantsesez direnez, frantsesa ikasi nuen; besteak beste, Baudoxek Parisen ematen dituen ikastaroetara joateko bidea zabaldu zidan horrek.

**Zertarako erabiltzen da?**

Askotariko erabilpenak ditu; ezagunena kosmetikarena da. Niri bereziki osasun arlorako dituen onurak interesatzen zaizkit. Betidanik egon den beste erabilpen bat espirituala da; intsentsua esentzia-olioa da eta, gainera, gure gorputzeko defentsa naturalak pizteko efektua ere baduena.

**Gaixotasun guztietarako ditu aromaterapiak onurak?**

Patologia ia guztietarako balio du. Ez dugu, baina, beti sendatzeaz berba egiten; ezezagun samarra den arren, zaintza aringarrietarako ere aukera handiak ematen ditu. Horrez gainera, haurdunaldirako ere oso interesgarria da. Edozein giza-sufrimendu edo gaitzetan aurki genezake erabiltzeko aukera, mina arintzeko bada ere. Ez da panazea edo mirari-tratamendua, eskura dugun beste tresna bat gehiago da.

**Nola eta zergatik hasi zinen zu aromaterapia erabiltzen?**

Orain dela bost urte Fitoterapia ikasketak hasi nituen eta irakasle batek aromaterapiaz berba egin zidan orduan. Erabilpen pertsonal moduan iruditu zitzaidan hasiera batean interesgarri, ez nik eta ez nire lankideek ere ez genuen-eta terapia mota horren berririk. Gero, Bartzelonako Botikarien Eskolan ikastaro trinkoa egin nuen eta beste hainbat ikasketa monografiko egin nituen beranduago.



Elena Bartolozzi medikua, aromaterapian aditua, Bartzelonako parke batean. | ELENA BARTOLOZZI

**Familia-medikua zara; zuregana jotzen duten gaixoak aromaterapiarekin tratatzen dituzu?**

Lehen mailako arretan, momentuz, zaila da haren erabilpena: hasteko, oraindik ez delako aski ezaguna eta, gainera, finantzatu gabeko tratamenduak direlako. Gaia ezagutzen dutenek zuzenean galdetzen didate. Nik nire gaixoekin egiten dudana zera da: dagokion botika errezetatu, eta, horrez gainera, esentzia-olioak ere eskaintzen dizkiet, horrela bakoitzak du sendagai bat edo bestea aukeratzeko aukera. Tratamendu biak bateragarriak izan daitezen saiatzen naiz beti, biak hartu gura izanez gero, aukera izan dezaten. Beste traba bat da beti ez dagoela botika-prestakin komertzialik erosteko modua eta farmazia guztietan ez dituztela horrelakoak egiten.

**Terapia alternatibo horiekiko sinesgogor asko dago. Nola konbentzituko zenituzke?**

Gaiarekiko ezjakintasun handia dago, gugandik, medikuengandik hasita, unibertsitateko medikuntza ikasketetan ez dago fitoterapia eta aromaterapia ikasgairik -eta. Baina, adibidez, aspirina sahatsaren azaletik sintetizatu zela esanez gero, argi geratzen da sendabelarrak hor izan direla beti. Nire ustetan, ez dugu egoki erabiltzen *alternatibo* hitza. Kontua ez da medikuntza mota bat beste bategatik ordezkatzea. 20 urte daramat botikak errezetatzen eta horrela jarraituko dut; nire ustez, medikuntza bat ez da bestearen ordezko, baizik eta osagarri. Aromaterapiak eta fitoterapiak oinarri zientifikoa eta biokimikoa dute, eta menperatzeko modu bakarra horiek ikastean datza.

**Edozein esentzia-olio erabiltzea gomendatuko diguzu?**

Oso garrantzitsua da kalitatezko olioak erabiltzea. Kalitatezko esentzia-olioek laborategi-azterketak jasotzen dituzte eta azterketa horiekin zehazten da daukaten osaera biokimikoa. Ezaugarri biokimiko horiek azaltzen dizkigute olio bakoitzaren argibideak, medikamentuen arteko interakzioak eta izan ditzakeen bigarren mailako ondorioak.

**Nola segurtatu dezakegu hori?**

Ontzian, landarearen gaineko informazio osatua egon behar da, besteak beste, landarearen latinezko izen botanikoa. Adibide batekin errez ulertuko duzue: dendara joan eta *Jatorri naturaletik eratorritako Albaka* jartzen badu, kontuz, ez dakigu-eta benetan zer erosten ari garen, kalitate onekoa izan daiteke edo ez; berriz, *Ocimum basilicum ssp basilicum quimiotipo metilcavicol esentzia-olioa* jartzen badu, horrek laborategian landutakoa dela adierazten digu, olioak bete beharreko funtzioa egokia izango dela bermatuz.

**Nola erabiliko ditugu, bada, esentzia-olio horiek?**

Tratatu behar dugun gaixotasunaren araberako olioen arteko konbinaketa egingo dugu. Tratamendu horretatik lortu gura dugunaren araberako dosia hartuko dugu. Hainbat modutan har daitezke: azalean igurtzita edo bestela ahotik sartuta, besteak beste.

**Zenbateko kostea du?**

Behar dugun esentzia-olioen araberako kostea du, hau da, olioa ateratzeko landare ugari badago eta landare-batze lanak errazak badira, olioaren prezioa baxuagoa izango da, landare arraro edo urriagoak direnetatik eratorritako olioekin alderatuz. Bi adibide emango dizkizuet: iltze-belarraren 10ml esentzia -olio, 5-6 eurotan eskuratu dezakegu, baina damascoko arrosaren 10ml, berriz, lasai asko, 130 euro ordainduta.

**Eta etxean egiteko aukerarik?**

Aukera bat izan daiteke, badaude-eta familia-aromaterapia liburuak merkatuan. Etxeko botikinean lagungarri izan daitezkeen hainbat egin ditzakezue: zorriendako, erredurendako, hotzeriarendako, kolpeendako, ginekologia minendako...

**Edozeinendako dira aproposa?**

Duda barik; hori bai, medikuok dugun premisa bat *primum non nocere* da, hau da, lehenenengo, minik ez egitea. Honekin esan gura dut, helduokin lasaiago ibili gaitezkeen arren, haurrekin, haurdunekin edo gaixo larriekin kontu handiagoa izan behar dugula. Aipatutako kasuetan, badago tratamendua egiteko aukera baina bereziki ekoiztutako produktuekin. Beti ere mediku bati aurrez galdetzea komeniko litzateke.

**Usain kontuekin gabiltzanez, bakoitzak usain batzuk botatzen ditu. Zergatik?**

Organismoak sustantzia batzuk botatzen ditu, pixa, kaka edo izerdiaren bitartez. Usaia, zer jan edo edan dugunaren arabera aldatzen da eta baita bakoitzaren joeragatik ere.

**Izerdi usaina izateak sekulako lotsa ematen digu. Baduzu aholkurik?**

Aurrez aipatu dizuedan Dominique Baudoxek honako formula proposatzen du *Aromaterapia. El arte de curar con aceites esenciales* liburuan: AE Palmarrosa (Cymbopogon martinii var. motia): bi tanta; AE Jara (Cistus ladaniferus QT alfa pineno): beste bi tanta; AE Geranio rosa  Egipto (Pelargonium asperum CV Egipto): bi tanta eta AE Salvia ( Sclarea o Officinalis, biek balio dute): tanta bat. Aipatutako prestakinaren bi tanta tratatu nahi dugun atalean eman edo erabiltzen dugun desodorante edo kremarekin nahastuta bestela. Goizetan, eta behar izanez gero, gauetan ere emango genuke.

**"Askotariko erabilpenak ditu, kosmetikarena da ezagunena"**

**"Artatzen ditudanei aromaterapia eta ohiko botikak eskaintzen dizkiet "**

**"Aromaterapia ez da mirari-tratamendua, eskura dugun beste tresna bat baizik"**

**"Ezjakintasun handia dago aromaterapiaz, gugandik, hasita"**

## ZABALIK



**JUAN MARI OKINA**
http://goiena.net/iritzia/

# Konfiantza eta burujabetza

Duela gutxi afaria izan dut Donostiako Hamaikak Bat txokoan (elkarte gastronomikoa). Europako proiektu bateko partaideendako zen; atzerritar asko bildu zen. Nire ondoan, italiar bi, ingeles bat eta sevillar, eta, besteak beste, txokoez berba egin genuen. Harritu egin ziren *euskal txoko* kontzeptu eta haren barne kudeaketa modeloarekin, konfiantzan eta autoerregulazioan finkatuta. Hots, nork bere gastuak apuntatzen ditu, eta inor ez da ibiltzen haren atzetik kontrolatzen.

Kanpotarrendako (Sevillako gizona buru) guztiz harritzekoa zen, esan zuten euren herrialdeetan modelo hori aurrera eramatea ezinezkoa izango litzatekeela. Inork kontrolatzen ez baditu, bakoitzak nahi duena apuntatu eta kasu gehienetan iruzurra egingo dutela.

**"Gu euskal gizarte eta kolektibo moduan garenaren adibide dira"**

Gure txoko edo elkarteak gu euskal gizarte eta kolektibo moduan garenaren adibide dira. Influentzia positibo eta balio finkatuak izanez gero –txokoak–, gure gizarteak askoz hobeto funtzionatuko luke.

Hala ere, kontrakoa gertatzen dabil, herritarrok gero eta konfiantza txikiagoa daukagu instituzio publikoekin eta politikariekin. Korrupzio kontuak, kasu batzuetan, eta haien kudeaketarako ezjakintasuna eta axolagabekeria, gehienetan. Politikariek nahiko adibide txarrak bidaltzen dizkigute. Eta konfiantza-balioak bultzatu eta sakondu beharrean, benetan kontrolatu behar dena kontrolatu beharrean (banketxeak, politikariak...), herritarrenganako kontrol neurriak areagotzen dituzte.

Honen adibide bat atez atekoarena da. Haren onurei buruz ezer gutxi daukat esateko nik. Baina ulertzen ez dudana da sistemaren ardatza herritarrei egingo zaien *kontrolean* egotea. Gainera, gaizki eginez gero, *zigortu* egingo gaituzte. Kontrolatu behar diren mutiko txikiak izango gara? Nire burua ez dut horrela ikusten, behintzat. Benetan gizarte burujabe eta arduratsua lortu nahi badugu, hau ez da bide zuzena.

## USTEAK USTE

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL** | zvelez@goiena.com

# Albisteen oihartzun motak

Bostongo eztandaren oihartzuna handia izan zen: egunkarietako lehenengo orriak hartu eta albistegiek minutu ugari eskain zizkioten. Lehenengo munduan eta, batez ere, Ameriketako Estatu Batuetan gertatu izanak eman zion, hein handi batean, protagonismoa. Ez dut esan gura albiste ez denik, baina iruditzen zait munduko beste toki batzuetan antzerako uneak (edo gordinagoak) bizi direnean, une batez soilik egiten diegula kasu, zeharka. Gogoan dut AEBek gidatutako operazio batean 20 zibil hil zituztela maiatzean Afganistanen, haurrak eta emakumeak gehienak. Kazetariok albisteek izan beharko luketen oihartzuna neurtzeko gailu bat eduki beharko genuke, akaso.

## KALE INKESTA

# Zelan geratu zara errenta aitormena berriarekin?



**MIREN LOREA LANA**
ARRASATE

Beti erdi mailako jendeak ordaindu behar izaten ditugu gauza guztiak. Horrela gutxien daukana, gutxiago izatera behartuta ikusten da.



**AITOR MARTINEZ**
ABADIÑO

Ni berez irabaztera irten naiz. Pasa den urtean baino gutxiago jaso dut. Hala ere zerbait jaso dut, beraz ezinezkoa da kexatzea.



**MAIDER MORA**
ARRASATE

Nire kasuan, ez dut aldaketa zuzenik nabaritu. Pasa den urtekoarekin konparatuta antzerakotxu irten naiz.



**HARITZ MAIZ**
ORMAIZTEGI

Ba ez dakit, nire kasuan behintzat ez da egon aldaketa nabarmenik. Pasa den urtekoaren parekoa izan da, beraz ez dut sumatu.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Herkules eta Pyrene bikotearen paradisua

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Herkulesek eta Pyrenek (Tubalen alaba) elkar maitatu zuten eta maitasun sutsu harek eragin omen zituen negar-malkoak (ibonak) eta urrezko latsak (Aurin).

Pyrene hil zenean, berriz, Herkulesek maitalearen gorpua estali zuen harritzarrez eta Pirinioak sortarazi.

Honezkero urrezko pipitarik ez daraman arren, Aurin errekatxoak oraindik ere iraun badirau, maldan behera, Pirinioetan barrena, Acumuer haranean zehar.

Inork gutxik ezagutzen duen ibar meharra da Acumuer, Canfranc eta Tena arroen artean.

Sabiñanigotik abiatuz, ipar-mendebalderantza, Larres herritik gora, Isin, Aurin eta Acumuer herrixkak tarteko.

Lauzpabost hamarkadatan hustu beharraren beharrez galzorian jardun ostean, aspaldiotan ari da berriro ere harana bizkortzen, betidaniko etxegintza eta eraikuntza-mota berreskuratzen.

Baserriak, landetxeak eta mendi-ostatuak eraberritu ez ezik, nabarmen egokitu dira egungo beharrizan eta premietara, Aragoiko gobernuaren laguntzaz.

Isinen, esaterako, ezohiko esperientzia jarri da abian elbarrituentzako bereziki moldatutako zerbitzuez eta azpiegiturez.

Tokian tokiko arkitekturari eutsi zaion arren, erabat baztertu dira eskailerak, espaloi-koskak eta gainerako oztopoak, mugikortasun urria duten bisitariek eta gurpil-aulkietan dihardutenek ezelango eragozpenik izan ez dezaten.

Herkulesen eta Pyreneren arteko maitasun-esparrua.

# Konplize

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Demagun Cospedalek ez dakiela zer izan zen nazismoa: oso litzateke larria halako karguak dituen pertsona batek ez ezagutzea mundua betirako markatu zuen historia.

Demagun Cospedalek oso ondo dakiela zer izan zen nazismoa: are larriagoa litzateke, eskrupulu moralaren falta totala adieraziko bailuke eskratxea praktikatzen dutenei nazi deitzeak.

Transmititzen duen ituxra: berdin zaiola arre zein iso, bere interesen defentsan.

Baina edozein baldin bada nazia, edozer bada nazismoa; zernahi baldin bada apartheida, ezein gertaera bihurtzen badugu holokausto, bere benetako neurria kentzen diogu gaizkiari.

Gaizkia arruntzeak, ordea, nazismoaren, apartheidaren, holokaustoaren konplize bihurtzen gaitu: gaizkia arruntuz, esaten ari garena da nazismoa, apartheida edo holokaustoa ez zirela hainbesterainokoak izan.

Nazismoa-eta ahotan alferrik hartzeak bihur gaitzake, ez uste dugun bezain zeharka, izugarrikeria haien apologista.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Monika Belastegi
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza




**Home al home bilduma.** Ohe altxagarria, espazio berean egongela sortuaz. Kolore eta neurrietan aukera zabala.

home at home bilduma

www.kibuc.com jarrai gaitzazu

KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC
Azkenean gure etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Jose Goronaeta** | EAko zinegotzia Aramaion (1999-2007 eta 2010-2011)

- Haren familiak politika kontuengatik ondorioak izan arren, hura ere politikan sartu zen
- Euskara eta kultura gaur egun kudeatzen diren moduekin oso kritikoa da
- Aramaiora lasaitasun bila joan bazen ere, politikak zenbait alditan bizitza korapilatu dio

# "Nire ustez, instituzio gehiegi ditugu; guztion mesederako, gutxitu egin beharko lirateke"

IMANOL GALLEGO | ARAMAIO

Jose Goronaeta munduan bere tokia aurkitu duen pertsona zoriontsu horietako bat da. Arrasaten jaio eta hazi ostean, duela 30-40 bat urte Aramaio aldera egin zuen lasaitasun bila, baina, itxuraz, lasaitasun gehiegi topatu eta politika kontuetan sartu zen. Eskertzekoa da, bere idealak oso errotuak dituen arren, politika, alderdi, sindikatu eta politikarien aurrean duen jarrera kritikoa.



Arrasatearra izan arren, lasaitasun bila Aramaio aldera egin zuen. | IMANOL GALLEGO

**Zu beti izan zara langilea. Zergatik politika?**

Zergatik sartu? Ezin dizut data zehatzik eman, familia kontua da. Etxean politika oso presente izan dugu beti. Aita sozialista zen, Arrasaten Dragoien taldeko teniente gazteena izan zen. Osaba batek, aldiz, politika kontuengatik Frantziara alde egin behar izan zuen. Haiek bai politikan sartzeko garaiak!

**Orain politikan egotea errazagoa dela uste duzu?**

Ez dago lehen zegoen grinarik, jendea asko lasaitu da. Gelman lan egiten nuenean, sindikatu eta politikariek lan handia egiten zuten. Oraingoek euren soldata ziurtatzeko baino ez dute lan egiten.

**Borroka egiteko grina galdu egin dugu?**

*Komodoegi* bihurtu gara, guztiok. Berdin zait sindikalista, politikari edo herritar izan. Lehen, guztion artean presio handiagoa egiten genuen.

**Dena den, politikak gainbehera handia izan du.**

Lehen, idealistegiak izango ginen, baina gure idealak defendatzen genituen; orain, interesek politika gehiegi kutsatu dute.

**Ustelkeria asko zabaldu da.**

Asko? Gehiegi! Barcina, Barcenas, Urdangarin... Denetik egin ostean hor dituzu, lasai-lasai. Ez zaie ezer gertatuko, ziur nago. Kontu horietan zigorrek gogorragoak izan beharko lukete.

> "Aita Arrasateko Dragoien taldeko teniente gazteena izan zen"

> "Sindikalistek orain euren soldata ziurtatzeko besterik ez dute lan egiten"

**Beti izan zara EAko kidea?**

Ez, ez. Ni EAJn hasi nintzen.

**Hortaz, EAJren eta EAren arteko gatazka hurbiletik jarraitu zenuen.**

Bai. Ni Garaikoetxearen aldekoa nintzen. Hura euskaldun guztion lehendakari izan nahi zuen eta Arzallusek Neguriko jendearentzat egindako lehendakari bat nahi zuen. Hortik dator auzi guztia.

**Banaketa ez zen kontu erraza izan, ezta?**

Jende asko haserretu zen. Zenbait familia banatuta geratu ziren. Garai hartan emazteak ile-apaindegia zuen, eta ni herriko EAko lehen lehendakaria nintzenez, askok joateari utzi zioten.

**Zu hiru legealditan egon zara, zaila da udal baterako zerrenda betetzea?**

Oso zaila. Aramaion oso jende profesionala dago, baina ez da konprometitzen. Gero, kalean ikusi eta kexa mordoa kontatzen dizkizue, baina ez dute udalean lanik egin nahi. Ni hiru aldiz izan naiz zinegotzi, baina zerrenda betetzeagatik, politika ez da udalean soilik egiten. Gainera, ez dut inoiz nire lanagatik sos bat ere jaso.

> "Arzallusek Negurikoentzako lehendakari bat nahi zuen"

> "Bizkaiko Aldundiak San Mamesen ez luke dirurik jarri beharko"

**Kultura eta euskara, ziur krisiak gogor eragin diela?**

Inozo hutsak garelako! Behin eta berriro entzuten dugu dirurik ez dagoela, baina gero futbolari bat ekartzeko milioikada itzelak gastatzen ditugu. Are gehiago, San Mames futbol zelaiaren kontua lotsagarria iruditzen zait! Aldundiak ez luke horretan dirurik jarri beharko.

**Instituzio gehiegi ditugu?**

Noski. Ez da sistema eraginkorra. Jaurlaritza, diputazioa, udala... Maila gehiegi daude, hori gutxitu egin beharko litzateke. Herritarrentzako eta instituzioentzako ere eraginkorragoa izango litzateke.

**Baina udalak beharrezkoak izango dira, ezta?**

Bai, hurbileko instituzioak beharrezkoak dira, baina, askotan, guztia doan emateko politikan erortzen gara. Aramaion kasu argi bat dago: gaztetxean dirutza handia gastatu ostean, gazteek ez zuten ongi erabili eta egun zenbati leiho ere falta dira. Urtetan ez naiz bertan sartu, baina ireki eta gutxira, hura anabasa handi bat besterik ez zen.

**Zenbait gauza on ere izango dituzu gogoan.**

Bai, noski. Urte gutxian Aramaio asko hobetu da. Gas sarea, kultura etxea, masusta... Zerrenda luzea da. Izan ere, askotan kritikak jaso arren, egindako lanarekin gustura nago.


Babes eta erosotasun handiagoa



Kanporako saretak

Dekorazio aukera guztiak



Estoreak, errezelak eta saretak

Eguzki babesa



Toldoak

VELUX®

Orain da momentua!

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1, OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

HERRIAK

ARETXABALETA

# Lanbide Eskolako tailerretik irtenda, autoa lasterketetarako prest

- Lanbide Eskolaren eta Euskal Automobilismo Federazioaren arteko hitzarmenaren uzta da
- Iaz autoa moldatu zuten ikasleek eta aurten mantentze-lanak egiteko ardura izan dute

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Ikasitakoa praktikan ipintzea da Aretxabaletako Lanbide Eskolaren ezaugarrietariko bat, eta azken hilabeteetan garatutako proiektuetako batzuk aurkeztu dituzte. Horren adibideetako bat da, esaterako, Aretxabaletako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren barruan, kaleetan ikusiko diren gaika sailkatzeko zakarrontziak egin eta martxoan jendaurrean azaldu izana.

Bestalde, duela bi ikasturte, Euskal Automobilismo Federazioarekin hitzarmena sinatu zuten. Hala, ikasleek federazioarena den Abarth Punto auto bat moldatu zuten, xasisetik hasi eta lasterketarako funtsezko egokitzapen guztiak egiteraino.

**Mundu berri bat ezagutu**

Endika Fernandez irakaslea hasieratik egon da proiektuan. "Bi urte daramatzagu Euskal Automobilismo Federazioarekin elkarlanean. Denbora horretan erdi mailako automozio mekanika eta karrozeria ikasten aritu diren guztiak pasatu dira proiektutik".

Egiten ari direna eskolaz kanpoko orduetan egin izan dute sarri, eta Hezkuntza Sailaren inplikazioa gurako luketela adierazi du Fernandezek: "Martxan dagoen proiektu bat da eta arlo ezberdinetako ikasleei aukera ematen die mundu berri baten barneratzeko. Garrantzitsua izango litzateke babes hori izatea".

Haien asmoetako bat ohiko lanbidetik haratago aritzea posible dela erakustea izan da, eta gisa horretako proiektuek errespetu handiagoz aritzea ekartzen diete ikasleei eurei. Rikardo Lamadrid zentroko zuzendariak gaineratu duenez, talde lanean jardutea ere irakasten du horrelako egitasmoetan sartuta egoteak. "Talde lana aberasgarria delako; funtsezko balio bat, gainera".

**Aurten, mantentze-lanak**

Abarth Punto 1.4 MultiAir 165 CV serieko autoa oinarri hartuta hasi ziren lanean ikasleak, beti irakasle baten begiradapean, "segurtasun kontuak-eta tartean daudelako, besteak beste". Iaz zortzi edo bederatzi lasterketatan aritu zen autoa. Beraz, Lanbide Eskolakoen egitekoa mantentze-lanak egitea da.

"Errotulazio berria egin eta ibilgailuari azterketa pasatu zaio, motorra begiratu da, esekidura berriak egiteko daude...". Inguruko enpresen laguntza ere badaukate, "besteak beste, ordezko piezak zein eskuliburuak eskuratzeko", adierazi du Fernandezek. "Izan ere, haiek gabe, askoz zailagoa izango litzateke mantentze-lanak egitea".

Federazioarekin duten hitzarmena beste pare bat urtez luzatzea aurreikusten dute.



Autoari errotulazio lanak egiten. | ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA



Autoa, lasterketetarako prest. | ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA


Z.V.D.M.

**RIKARDO LAMADRID**
LANBIDE ESKOLAKO ZUZENDARIA

## "Ikasleek gara ditzaketen proiektuek motibazioa pizten dute haiengan"

Lanbide Eskolako zuzendariarentzat garrantzitsuak dira ikasleek praktikara eramaten dituzten proiektuak, eta horretaz egin du berba.

**Teoriatik praktikara pasatzea oso garrantzitsua da zuentzat, ezta?**

Zalantza barik. Lanbide Eskolatik sartu izan garen proiektuak ematen ditugun ziklo guztietako ikasleengan pentsatuta eraman ditugu aurrera beti, haiek garatu ahal izateko modukoak izan daitezen saiatuz. Horrek ikasleengan motibazioa asko pizten du, gainera. Aretxabaletako kaleetan ipintzeko zakarrontziak birmoldatzeko lanak gustura asko egin zituzten, esaterako.

**Autoa egokitzea ere pizgarria izango zen haientzat.**

Hori da. Aurrena autoa moldatu behar izan zuten eta orain mantentze-lanak egitea da helburua. Gazteen artean auto lasterketak egiteko dagoen zaletasuna handia da, eta eskolan horrelako aukera izateak balio erantsia ematen dio.

**Aretxabaletako Udalarekin eta Euskal Automobilismo Federazioarekin dituzuen hitzarmenez gainera, besterik baduzue?**

Hedabideetan ikasleen lanaren gaineko albisteak agertu izan dira eta oihartzuna eduki dute; izan ere, deitu izan digute antzerako proiektuak eskainiz, betiere ikasleekin lantzeko. Baina orain ez da une ona, ikasturtea amaitzear baitago; opor ostean hartuko genuke. Irekita gaude proiektuei.

LEINTZ GATZAGA

# Gatzagarrek erabateko prestutasuna erakutsi dute auzolanerako

## Zapatuan 27 lagun batu ziren beharra zuten herriko zenbait gune txukuntzeko, eta baita txukundu ere

**MONIKA BELASTEGI** | LEINTZ GATZAGA

Nagikeria ohean utzita 27 gatzagarrek egin zuten bat zapatu goizean Udalak egindako deialdiarekin.

Udalerriko lau puntutan txukuntze edo konpontze beharra zegoela jabetuta, lanok auzolanean egiteko deialdia egina zuen Udalak, eta baita erantzun aparta jaso ere. "Oso pozik gaude", esan du Asier Ugarte Hirigintza teknikariak; "balorazio oso positiboa egiten dugu. Egin beharreko guztia eta gehiago egin dugu: aurreikusita ez zegoen Gatzagain inguruko bide bat ere garbitu dugu. Udalaren izenean eskerrik asko guztioi".

Lau taldetan banatuta, eta beharrezkoak zituzten lan tresnak eskuan, 08:00etan abiatu ziren lanera. Taldeetako batek, Dorletako santutegi ondoan, lurrean azaldutako zuloak konpondu zituen eta baita harrizko horma bat garbitu eta zementu apur batekin txukundu ere; beste batek, Artzainen xenda deritzona txukundu eta garbitu zuen; hirugarrenak, Pagoeder inguruan hondatutako mahai eta aulkiak konpondu eta ingurunea eta iturria garbitu; eta laugarrenak, Gaztainuzketako karobia garbitu zuen. Udazkenean auzolanerako beste deialdi bat egingo dute.



**EUGENIO OTXOA**
ALKATEA

"Halako ekimenak dira herritarrak gehien batzen dituenak eta herritarrak herrian gehiago inplikatzen joateko ere balio du. Bestalde, usadio zaharrak berreskuratzeko ere bai eta baita belaunaldi ezberdinak batzeko ere".



Dorletako santutegi ondoko horma konpontzen. | ASIER UGARTE



Gaztetxoek Gaztainuzketako karobia garbitu zuten. | ASIER UGARTE



**JUANITO BENGOA**
BOLUNTARIOA

"Ondo daude halakoak. Auzolana lehenago egiten zen, baina azken urteetan ahaztuta zegoen. Egin beharreko gauzak direla uste dut. Halako ohiturak galtzen joan dira eta gazteek ikusiz gero, igual ikasi egingo dituzte".




Egin beharrekoak bukatu ostean, lanean aritutakoak batu eta mokadutxoa hartu zuten guztiek Gatza-gainen . | ASIER UGARTE



**ROBERTO OTAZU**
BOLUNTARIOA

"Herria txukuntzeaz gain, harremanak ere landu egiten dira. Orain pareta garbitzen ari naiz, eta gero, ba, tokatzen dena. Norberak egindakoa zaindu ere gero hobeto egiten da...".

ELGETA

# Irrien Lagunen bisita atzo Espaloian

Etxeko txikitxoenak ondo baino hobeto ibili ziren atzo Elgetako Espaloian Largabista, Ane Pirata edo Ekirekin. Irrien Lagunen bisita izan zuten. *Eguzkiaren bidaia* izeneko ikuskizuna taularatu zuten. Elgetako antzokia bete egin zen umeek horrenbeste maite dituzte lagunak ikusteko. Ondo pasatzearekin batera ikasi ere egin zuten txikitxoek. Ikuskizunak munduaren bira egiteko moduaz eta urtaroez hitz egiten du, besteak beste.



JOSETXO ARANTZABAL



ELGETA

LARRAITZ ZEBERIO

## Bertakoa ezagutzen

Ezkutuko altxorrak izeneko bista gidatu sortaren baitan, Santiagoren erretaulatik abiatuta, Elgetaren historian barrena ibili ziren dozena bat lagun zapatuan.



OÑATI

IMANOL SORIANO

## Pedalkada ugari

III. areto bizikleta maratoia egin zen zapatuan Oñatiko Zubikoako fit-bikeko gelan. Gela bete egin zen eta bi ordu eta erdiz pedalei eman eta eman aritu ziren lau irakasleren gidaritzapean.



ARRASATE

IMANOL SORIANO

## MUko beste 190 ingeniarik jaso dute diploma

Egubakoitzean Arrasateko Amaia antzokian egindako ekitaldian Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritzako espezialitateetako 2011/2012 promozioko 190 ikaslek diploma jaso zuten: doktoregoko programako 14 ikaslek jaso zuten diploma, goi-mailako ingeniaritzako 154 tituludunek eta Mondragon Unibertsitatean ingeniaritzako masterra egin duten 22 ikaslek. Aipamen berezia jaso zuten, era berean, Ekiten, Kutxa, Altuning... programetan sariak jaso dituzten ikasleek ere. Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek, gutxi gorabehera, urtebeteko karrera amaierako proiektua egin dute enpresaren batekin lankidetzan. Ekitaldia irekitzeaz Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxa arduratu zen; Mondragon Healtheko zuzendari Mikel Alvarezek Teknologia eta osasuna gaiari buruzko hitzaldia egin zuen eta ekitaldia itxi, berriz, Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalak egin zuen.


# AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



19.450 €

> Renault Latitude

2011 | Diesela | 15.780 Km | Txuria

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

**IBILGAILU INDUSTRIALAREN HILABETEA**

- **Dacia Sandero** 8.850 €
  2012 | Diesela | 3.240 Km | Gris platinoa
- **Opel Zafira** 6.850 €
  2006 | Diesela | 107.120 Km | Beltza
- **Ford Mondeo** 6.500 €
  2006 | Diesela | 125.460 Km | Gris platinoa
- **Renault Kangoo** 10.800 €
  2011 | Diesela | 19.340 Km | Txuria
- **Renault Kangoo Furgoia** 7.500 €
  2011 | Diesela | 1107.000 Km | Txuria
- **Renault Laguna Autom** 11.300 €
  2008 | Diesela | 42.260 Km | Urdina
- **Renault Megane** 14.100 €
  2011 | Diesela | 17.540 Km | Gris platinoa

**Ibilgailu industrialetan aukera gehiago!**



10.800 €

> Citröen C3 1.4HDi Tonic

2012 | Diesela | 12.500 Km | Beltza

CHAPIME

CITROËN

Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

- **Citröen Berlingo Com. 1.6HDI 110 SX Multispace** 14.200 €
  2012 | Diesela | 22.500 Km | Gris argia
- **Citröen C-15 1.9D Top Familiarra** 2.500 €
  2003 | Diesela | 98.000 Km | Txuria
- **Citröen C3 1.4i SX** 4.300€
  2005 | Gasolina berungabe | 92.500 Km | Urdin argia
- **Citröen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150** 29.000 €
  2012 | Diesela | 500 Km | Marroi iluna
- **Citröen C8 2.0 HDI Seduction 160** 22.500 €
  2011 | Diesela | 45.000 Km | Gris iluna
- **Citröen C8 2.0 HDI Seduction** 20.500 €
  2011 | Diesela | 47.514 Km | Gris argia
- **Kia Cerato 2.0CRDI LX** 4.800 €
  2005 | Diesela | 134.234 Km | Marroi argia
- **Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP** 35.500 €
  2012 | Diesela eta elektrikoa | 10.000 Km | Txuria

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Ozenki elkarteak Amaia antzokian antolatutako *Carmen* opera. | GOIENA

# Opera eta zarzuela errezitaldia eguenean

Udaberri ziklo musikalaren barruan Ozenki elkarteak gala lirikoa antolatu du

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE
Udaberri programaren barruan, Ozenki Elkarte Lirikoak eguenean gala lirikoa eskainiko du Amaia antzokian. Arratsaldeko zortzietan hasita, operazaleek zarzuelako eta operako abestiz eratutako egitarau zabala entzun eta gozatzeko aukera izango dute. Ozenki elkarteko kide Manu Gallardok argi dauka: "Eguenekoa hutsik ez egiteko moduko errezitaldia izango da". Kantaldian parte hartuko duten izenei erreparatuz gero, haren hitzak hobeto ulertzen dira.

Amaiako agertoki gainean Amparo Navarro eta Ana Cadaval sopranoak egongo dira eta Javier Agullo eta Andres Veramendi tenoreek abestuko dute. Haiekin batera Josean Gartzia baritonoak eta Goikobalu abesbatzak ere hartuko dute parte. Denak, Josean Gartziaren zuzendaritzapean.

Errezitalak opera eta zarzuela errepasatuko ditu. Besteak beste, Puccini, Verdi eta Sorozabal zarzuelagileen konposizioak entzungo dira. Gallardok azpimarratzen duen moduan, "gutxitan egon da horren errezital anitzaz gozatzeko aukera".

**Sarreren salmenta**
"Beti bezala", Gallardok dioenez, "Arrasatek erantzun ezin hobea izan du". Sarrerak salgai jarri zirenetik, antzokia oso bizkor betetzen joan da, baina oraindik sarrerak egon badaude. Hauek eskuratu nahi dituztenek, 15 euroren truke, antzokiko leihatilan, *www.kutxasarrerak.net* eta *ozenkielkartea@hotmail.com* helbidean lor ditzakete.

## Errezitaldiko abeslari nagusiak



**AMPARO NAVARRO**
SOPRANOA

Valentziako soprano horrek opera munduko izen handienekin abestu du. Adibidez, Placido Domingorekin eta Donostiako Orfeoiarekin. Lyonen La Fura del Bausekin batera *Carmina Burana* abestu zuen.



**ANDRES VERAMENDI**
TENOREA

2003an Operalia lehiaketako finalista izan zen. Haren ahotsa Peru, Txile, Portugal eta Madrilgo antzokietan oso ezaguna da. Adituek diotenez, bere belaunaldiko ahots bikainetako bat da.

## Etxeko liburu eta jostailuen bigarren aukera

**Berrerabiltzea sustatzeko, bi urtean behin 5. eta 6. mailetako ikasleek merkatua antolatzen dute. Bertan, etxean erabiltzen ez dituzten produktuak eraman eta, kasu gehienetan, 50 zentimo eta bi euro artean saldu zituzten. Batutako diruarekin ikastolarentzako megafonia erosiko dute.**



ARIZMENDI IKASTOLA

# Justizia soziala aldarrikatzeko, elkarretaratzeak

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE
Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa zein den ikusita, eguenean Portaloian hainbat herritar elkartu ziren egoeraren aurrean euren desadostasuna adierazteko. *Justizia soziala* lelopean, herritar gisa erantzutea izan zen aurkeztutako proposamena. Horretarako, hileko lehen eguenetan 19:00etan Portaloian ordu erdiz batuko dira; lehenengo elkarretaratzea maiatzaren 2an izango da. Herritar talde bat direla azpimarratu zuen Ane Arregi herritarrak: "Ez gara plataforma bat, herritar talde bat baizik, denok batera erantzun beharraren sentipena dugu".

**Lau aldarrikapen**
Lau dira euren aldarrikapenak. Alde batetik, hauxe zioten: "Krisi hau ez dugu guk sortu eta ez dugu guk ordainduko; politikari ustelak, bankuen egoera, etxe kaleratzeak... herritarron diruarekin jolasten dute". Bestetik, publikoa dena defendatzeko eskatzen zuten: "Hezkuntza sistema publikoa nahi dugu, osasun zerbitzu on eta publikoa, eta pentsio duinak".

Eraso sozialei erantzuteko herritarrak batzeko dei egin zuten. Eta, amaitzeko, babesleku soziala sortzeko aldarrikapena egin zuten, eta, euren ustez, aurreko hiru aldarrikapenak batuta, derrigorrezkoa ikusten dute "elkargune zabal bat sortzea", euren "aldarrikapenak "batu eta erasoen aurrean babeslekua eskaintzeko". Hurrengo elkarretaratzea maiatzaren 2an izango da.




Portaloi ondoan egin zuten lehen elkarretaratzea. | AMAIA TXINTXURRETA

# Liburuaren Eguna: literatura ezagutu eta gozatzeko eguna

Martitzenean 'Shakti Controsion' ikuskizuna eta eguenean, berriz, ipuin kontaketa berezia

**I.G.** | ARRASATE
Liburuaren Eguneko ekitaldiek eguna bera txiki utzi eta apiril osora egin dute salto. Martitzenekoa, baina, ekitaldi berezia izango da.

*Shakti Controsion* izenburuarekin, Bilboko artista horrek Kulturateko sarrerara hurbiltzen den guztia aho zabalik utziko du. Ikuskizunak irauten duen zortzi minututan, artistak hainbat postura arrarotan ipuin bat irakurriko du. Adi, bi emanaldi egingo dituen arren, zortzi minutuko ikuskizunak izango dira-eta; komeni da 18:00ak edo 18:20ak baino lehen Kulturateko sarrerara iristea. Ziur ez duela inor epel uzten.

**Ipuin kontaketa berezia**
Egueneko ipuin kontaketak ere zeresan handia emango du. Ipuin kontalari bakoitzak bere estiloa dauka, baina Joxe Mari Carrerarekin *sorpresa* eta *ezustea* ohiko hitzak dira. *Munduko ipuinik txarrenak okerrago kontatuak* izenburuarekin, denetik gerta daiteke. Haurretzako ipuinak izan arren, kontalaria berezia denez, saioa 8 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Ekitaldia San Marinako auzo-bibliotekan izango da, 25ean, 19:00etan.

Artikulu hau bukatzeko, hala bazan edo ez bazan, sar dadila zuen buruetan eta irten dadila Liburuaren Egunean.



Bi ume buruhandi batengandik ihesi, iazko jaietan. | GOIENA

# Nobedadez josita eta bateratuta datoz San Andres auzoko jaiak

Auzo alkatetzak, Errebuelta Kaleko komisioak eta gazte txokoak elkarlanean antolatu dute egitaraua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Andres auzoko jaiak biziberrituta datoz aurten. Izan ere, iaz arazoak izan ziren auzo alkatetzak ez zuelako ohi moduan funtzionatu eta ondorioz, bi egitarau ezberdin egin ziren: ofiziala eta *alternatiboa*. Azken egitarau horren egileek Errebuelta Kaleko komisioa sortu zuten. Diotenez, jaiak antolatzeaz gain, auzoari dagozkion erabakietan ahotsa izan gura dute.

Aurten jaiei begira zatiketa hori gainditu, indarrak batu eta nobedadez jositako egitarau zabala antolatu dute. San Andresko gazte txokoak ere lagundu du antolakuntza lanetan.

**Aitor Guridi zenari omenaldia**

Hainbat urtez auzo alkate izan zen Aitor Guridi duela gutxi hil zenez, omenaldia egingo diote, haren alargunaren eta seme-alabekin batera. Bertan izango dira Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea, Juan Antonio Barriocanal Udaleko Auzoetako zinegotzia eta Jon Barriocanal egungo auzo alkatea. Antolatzaileek aurreratu dutenez, bertsorik eta aurreskurik ez da faltako. Maiatzaren 1ean izango da.

Bestalde, hainbat dira aurtengo jaietarako nobedadeak: mozorro desfilea, skate jaia eta bakarrizketa-saioak, esaterako. Ekintza guztiak, ondoko taulan.

## SAN ANDRES AUZOKO JAIAK 2013

**BARIKUA, APIRILAK 26**

**17:00** Jaien hasiera, suziriekin.

**17:00** Haur eta gurasoendako jolasak Kurtzetxiki plazan, Gazte Asanbladak antolatuta.

**18:00** Txokolate-jana Kurtzetxiki plazan, gazte txokoaren eskutik.

**19:00** Buruhandiak.

**23:00** Kontzertuak Gudari plazan: Matxinbrada, Mery May eta Screammers and Sinners.

**ZAPATUA, APIRILAK 27**

**10:00** Diana, suziri eta trikiti doinuez alaituta.

**11:00** Puzgarriak Bedoñaben.

**12:00** Arrasateko gaitariak.

**12:00** Eskulanen erakusketa Etxaluzen, Emasanen eskutik.

**13:00** Auzo bazkaria eta herri jolasak Gudarien plazan.

**17:00** Ska festa, askari handia eta sariak Hiruki plazan.

**18:00** Bakarrizketa: *Aita izatea*, Rafaren eskutik. Gudarien plazan.

**20:00** Kontzertuak Pippol eta Lennon tabernetan.

**22:30** Bakarrizketa: *Sermoia*, *Txusti*-ri esker. Gudarien plazan.

**23:00** Erromeria Gudarien plazan.

**DOMEKA, APIRILAK 28**

**10:00** Diana, suziri eta trikiti doinuez alaituta.

**12:00** Puzgarriak Bedoñaben.

**12:00** Poteoa Goikobalu abesbatzarekin.

**16:00** Billar lehiaketa Pippol tabernan. Informazio gehiago tabernan bertan.

**17:00** Dardo txapelketa Equs tabernan. Informazio gehiago tabernan bertan.

**19:00** Buruhandiak.

**MARTITZENA, APIRILAK 30**

**17:00** Gaztetxoendako hainbat ekintza gazte txokoan.

**18:00** Pintxo-potea.

**EGUAZTENA, MAIATZAK 1**

**10:00** Diana, suziri eta trikiti doinuez alaituta.

**12:00** 'Magic the gathering' lehiaketa, Etxaluzen.

**12:00** Nagusiendako meza.

**12:00** Poteoa txistulariekin.

**13:00** Aitor Guridi auzo alkate ohiari omenaldia Gudari plazan.

**14:30** 80 urtetik gorakoendako bazkaria Corazon de Encina elkartearen egoitzan.

**16:00** Billar lehiaketako finala Pippol tabernan.

**16:00** Puzgarriak Bedoñaben.

**ZAPATUA, MAIATZAK 4**

**18:30** Bikote -krosa. Sari potoloa egongo da irabazleendako.

**20:30** Mozorro desfilea Errebuelta eta Dr. Bañez kaleetan. Sariak egongo dira.

**Egun osoan:** Mozorro-Party Eguna, Errebuelta Kaleko komisioak antolatuta.

# Las Culebras rock taldea eguenean gaztetxean

J.B. | ARRASATE

Las Culebras rock taldea izango da gonbidatua asteon, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. Iruñeko lau neska eskarmentudunek sortutako taldea da, eta *Zuloak* film-proiektuaren pareko zarata eta baliabide barik, euren bidea sendo egiten dihardute; dagoeneko hirugarren diskoa kaleratu berri dute. Taldekideek rock and rolla barru-barruan bizi dute eta hala transmititzen dute zuzenean. Melodia borobilak, presentzia indartsua agertokian eta arima rockeroa. Orain arte kantu zuzenagoak egin izan badituzte ere, hirugarren lan honetan kantu are eta landuagoak idatzi dituzte. Beti ere hard-rock, power-pop eta punk-rockaren ildoan. Eguenean, gaztetxean (22:00).

## 'Herrixa Dantzan' jartzeko beste saio bat egubakoitzean (20:00)

Portaloi elkarteak antolatzen duen Herrixa Dantzan ekimena bueltan dator, abendua ezkero geldi egon ostean. Arrasateko geldialdia egubakoitzean izango da, Garaia guneko jatetxean. 20:00etatik 21:30era izango da; antolatzaileek gogoratu dute aparkatzeko lekua soberan egoten dela eta autobus urbanoak ordu erdiro geldialdia egiten duela.

## 8.000 euro zozketatuko ditu Ibai-Artek, bost euroko diru-txarteletan

Ibai-Artek bezeroen fideltasuna saritzeko ekimen berri bat abiatu du, maiatzaren 31ra arte. Hamar eurotik gorako erosketetan Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen dutenen artean 8.000 euro zozketatuko dira saltoki berean egiten diren erosketetan trukatzeko bost euroko diru-txarteletan. Txartelak ekainaren 30a baino lehen trukatu beharko dira.

## Kulturaten egingo da Harrera Elkarteak nazio batzarra

Euskal preso eta iheslari ohiei babesa eman eta laguntzeko sortu zen Harrera Elkarteak nazio-batzarra Arrasaten egingo du, Kulturateko areto nagusian, maiatzaren 11n. Helburua izango da azken urteko elkartearen ibilbidearen gainean informazioa ematea eta gerturatzen diren guztien artean balorazioa egitea.

# Arizmendiko ikasleak, Europako Gazte Parlamenturako azken kanporaketan

Gaztelupe guneko ikasleak, EAEko lehenak, hilaren 25etik 28ra lehiatuko dira



Arizmendiko ikasleak, otsailaren 23an Bilbon egindako batzarrean. | ARIZMENDI IKASTOLA

J.B. | ARRASATE

1987an sortu zen *European Youth Parliament* (EPY) deritzona, europar gazteek Europako gaiak eztabaidatzeko sortutako egitasmoa. Arizmendi ikastolak 2012an hartu zuen parte lehen aldiz eta, iaz moduan, aurten ere Almen zein Gaztelupe guneko batxilergoko ikasleek hartu dute parte. Gaztelupeko ikasle taldea Euskal Autonomi Erkidego mailako lehiaketan lehen postuan sailkatu da Espainia mailako kanporaketarako; Bilboko Gugenheim museoan egingo da, hilaren 25etik 28ra. Estatuko 20 ikastetxek baino gehiagok hartuko dute parte.

**Nazioarteko gai politikoak**

Gaztelupeko ikasleek, besteak beste, Irakeko gerraren, despolitizazioaren eta hezkuntzaren gainean egingo dute berba. Gero, erresoluzio horien gainean debatea egingo dute, Batzar Orokorrean. Xabier Latorre Arizmendiko irakaslearen arabera, maiatzeko lehen astean jakingo da nork izango duen aukera hirugarren fasera pasa eta beraz, Europako kanporaketan parte hartzeko: "Oso pozik gaude".

**Miguel Angel Elkoroberezibar** | Egilea

# "Literaturgintzarako plataforma bikainak dira"

25 aldizkari ezberdinetatik hartutako historiak prestatu ditu: otsailean Auñamendi entziklopedian kaleratu zituzten eta sarean ere ikusgai daude

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrak euskal literatur aldizkarien historiak prestatu ditu azken hilabetetan. Horiek, Auñamendi entziklopediak kaleratu zituen otsailean, eta dagoeneko irakurgai eta erabilgarri daude sarean. Gaur egungo idazle gehienen hastapenak eta oinarriak literatur aldizkari horietan daudela esan digu egileak berak.

**Euskal literatur aldizkarien historiak prestatzen aritu zara. Zein da zehazki egin duzun lana?**

1975etik 1999ra sortutako 25 euskal literatur aldizkariren historia laburrak eta orain arte literatur aldizkariei buruz idatzi ditudan artikulu esanguratsuenak bildu ditut. Gainera, digitalizatutako aldizkariak irakurtzeko aukera ere eskaintzen dut. Horretarako web orri bat prestatu dut; interneteko edozein bilatzailetan, komatxo artean, *"euskal literatur aldizkariak"* idatziz gero, zuzenean eramango gaitu web orrira (*http://sites.google.com/site/literaturaldizkariak/*).

**25 aldizkari ezberdin. Zergatik aukeratu dituzu historia horiek eta aldizkari horiek?**

Euskal literatur aldizkarigintzan urterik oparoenak izan zirelako. 1975ean Koldo Izagirre eta Bernardo Atxagak gazteek ordura artekoarekin haustura eta abangoardia ekarriko zituen *Panpina Ustela* literatur fantzinea plazaratu zutenetik, batean eta bestean ugaldu ziren aldizkariak, 80. hamarkadaren erdi aldera sekulako pizkundea gertatuz.

**Zer kontatzen da historia horietan, eta zein da dokumentu horien balioa?**

Aldizkarien eta bere partaideen ibilbideak eta ekarpenak azaltzen ahalegindu naiz eta orain arte egon den hutsune bat betetzen saiatu naiz 25 urte horietako aldizkari eraginkorren nondik norakoak irakurleekin partekatuz. Gaur egungo idazle gehienen hastapenak eta oinarriak literatur aldizkari horietan daude. Literaturgintzarako plataforma ezin hobeak izan dira. Liburuak argitaratu aurreko pausua izateaz gain, bertako eta kanpoko literaturetara eta idazleetara hurbiltzeko tresnak ere izan dira. Argitaletxe askok ere beraietan dute jatorria.

**Auñamendi entziklopediak kaleratu zituen otsailean. Euren eskariz egindako lana izan da edo, alderantziz, lana egin ondoren eurek publikatutakoa?**

Euren eskariz egin nituen historiak eta beraien web orrian argitaratu zituzten. Baina sakabanatuta ageri zirenez, aldizkariei gune propio bat eskaintzea pentsatu nuen entziklopediara estekak luzatuz.

**Hainbat artikulu ere gehitu dituzu web orri horretan.**

Halaxe da, guztira lau artikulu aldizkari horien testuingurua eta garapena landuz. Justu aurtengo maiatzean beteko dira 25 urte *Jakin* aldizkariak eskatuta lehenengo artikulua idatzi nuena. Ordutik hona euskal literatur aldizkarien jarraitzaile sutsua izan naiz.

**Ze iturritara jo duzu literatur aldizkari horien historia osatzeko?**

Aldizkari gehienen sustatzaileekin izandako elkarrizketak ezinbestekoak izan dira lan hau behar bezala burutzeko. Testigantza horiekin eta batean eta bestean azken 25 urtetan bildutako iruzkin, iritzi eta analisiekin ikerketa sakonago bat burutzeko asmoa ere badaukat. Web orria eguneratuz eta aldizkari gehiagoren historiak gehituz ere joango naiz.

**Zertarako izango dira baliagarriak artikulu eta aldizkarien historiak?**

Euskal literaturaren zutabe nagusiak izan diren aldizkari horiek eta beraien ekarpena hobeto ezagutzeko. Era guztietako genero eta gaiak jorratu zituzten bertako sorkuntza lanetan, kideen zaletasun, esperientzia eta eraginen arabera. Aldizkariak horien erakusleiho izan ziren; bakoitzak bazuen bere zigilua eta jarraitzaile andana.

Literatur joeren azterketa eta literatur lanen kritikek ere badute protagonismoa aldizkari batzuetan, debate sutsuak sortzeraino kasu batzuetan.




Miguel Angel Elkoroberezibar entziklopediekin. | M.A. ELKOROBEREZIBAR

**"Euskal literatur aldizkarigintzako urte oparoenak hartu ditut"**

**"Egungo idazle gehienen hastapenak aldizkari horietan daude"**

# Autoenplegua sustatzeko tailerra maiatzaren 14an

M.B. | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak autoenplegua sustatzeko saioak eta tailerrak egingo ditu herririk herri. Bergarako lan-saioa maiatzaren 14an izango da: Irizar jauregian, 15:00etatik 18:00etara, euskaraz.

Leku kopuru mugatua dutenez, komeni da lehenbailehen izena ematea. Hilaren 26a da azken eguna.

Tailer eta saio horien helburua autoenpleguaren potentzialtasuna adieraztea eta aurrez egin beharreko azterketaren garrantzia azpimarratzea da. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: *Krisi garaian... autoenplegua moda bat, irtenbide bat, soluzio bat al da?*; *Autoenplegua, plazer hutsa*; eta *Bizitako autoenplegu esperientziei buruzko elkarrizketak*.

**Ekintzaile berriendako**

Bestalde, ekintzaile berriendako eta enpresa txikiak dituztenendako tailerrak ere egingo dituzte: *Datu babesaren ezarpena enpresa txikietan* (ekainak 11 eta 12); *Sare sozialak eta mikroenpresa* (ekainak 19), *Kudeaketaren kontrola mikroenpresan* (uztailak 1); eta *Langile autonomendako tributazioa* (uztailak 8 eta 10). Horietarako izena emateko azken eguna maiatzaren 31 da.

# 'Apirilean musika' egitarauko ekintza gehiago asteon

M.B. | BERGARA

Aste bukaeran hasi dute Musika Eskolaren *Apirilean musika* egitaraua kantu ikasleek. Elgetako Debagoieneko trikiti egunean ere egon ziren. Baina, ekintzak hilaren 27ra arte, zapatura arte luzatuko dituzte. Gaur, astelehena, adibidez, lau ekitaldi dituzte: 18:00etan *Biolontxeloa: baxu bat baino gehiago* delako emanaldia Zabalotegin; 18:30ean ikasle helduen kontzertua eta gorputz perkusioa musika eskolan; eta 19:00etan orkestra sinfonikoaren emanaldia Mariaren Lagundiko elizan.

**'Mugi ezazu zure gorputza'**

Bestalde, bihar eta etzi, *Mugi ezazu zure gorputza* saioa egingo dute musika eskolan, Irene Hernandorekin. Bihar, martitzena, piano eta fagot ikasleek emanaldia egingo dute, eta etzi gitarra ikasleek. Eguenean musika kalera aterako dute. Arrasate Musikaleko kideen laguntza izango dute.

## Pazkoetako eta San Martzialetako txosnak hartu gura dituztenek eskaerak aurkez ditzakete oraindik

Pazkoetan San Martin plazan Udalak jarriko duen txosna ustiatzeko eta San Martzialen erromeria egunean txosna eta kantina ustiatzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Eskaerak egiteko epeak zabalik daude: lehenarena maiatzaren 3an bukatzen da, eta bigarrenarena, maiatzaren 15ean. Biak ala biak, idazkaritzan aurkeztu behar dira. Informazio gehiago eta baldintzen zerrenda *www.bergara.net* atarian duzue.

## Hilaren 30era arte aurkez daitezke Pazkoetako zapirako irudia aukeratzeko lehiaketako lanak

Jardun euskara elkarteak deitu zuen Pazkoetako zapirako irudia aukeratzeko lehiaketa. Lanak hilaren 30ean aurkeztu behar dira Jardunen bulegoan edo *jardun@topagunea.com* helbidean. Edonork parte har dezake, adin muga barik. Marrazkiak A4 formatuan eta zuri-beltzean aurkeztu behar dira. Irabazleak 60 euro jasoko ditu, eta marrazkia Jardunek kaleratuko duen Pazkoetako zapiko irudia izango da.

# Haur eta gazteei zuzendutako udako plan desberdinak martxan

## Haur zein gazteentzako planak antolatu dituzte udara begira

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Uda geroz eta gertuago dagoela ikusita, hainbat plan aurkeztu dituzte Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Adin desberdinetako neska-mutilei zuzenduriko planak uztail zein abuztuan disfrutatzekoak dira.

Udalak esaterako, udaleku irekiak antolatu ditu uztailaren 1etik 19ra bitartean. Izena emateko epea maiatzaren 6tik 17ra bitartean izango da. Horretarako kultura etxera jo beharko dute interesatuek. Adinari dagokionez, 2001-2010 urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta daude, hau da, 3-12 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako udaleku irekiak dira.

1996-1999 urte artean jaiotakoek aldiz, hau da 14-17 urte bitarteko neska-mutilek beste aukera bat izango dute: *Gazte oporraldiak*. Oporraldi hauek uztailean eta abuztuan izaten dira. Foru Aldundiak antolatuta, gazteek Menorca, Pirinioak, Zarautz, Zuhatza, Gasteiz, Hondarribia, Caceres, Avila… eta beste hainbat herri ezagutu eta bertan udako oporrak lagun artean pasatzeko aukera izango dute. Interesa duen orok Kultur Etxera jo beharko du. Informazio gehiagorako *www.gipuzkoa.net/oporraldi* webgunea kontsulta daiteke.

18 urte beteta dituztenek eta auzolanean euren oporrak pasa nahi dituzten gazteek Eusko Jaurlaritzak antolatutako Auzolandegietan parte hartu dezakete. Aurtengo izenemate epea itxita dago jada, baina badaezpada norbaitek informazio gehiago nahi badu helbide honetan kontsulta dezake: *www.gazteaukera.euskadi.net.*


Udaleku irekiak. | GOIENA

### Oporrak lankidetzan

Auzolandegitan parte hartu ezinik geratu eta kooperazio lanetan oporrak pasa nahi dituztenek ere oraindik badute aukera izen-emateko. 1983-1993 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko ekimena da, hala, Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin Amerika, Afrika edo Asian kooperante moduan aritzeko aukera izango dute interesatuek.

Programa honen helburua Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balorea sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea da. Gazteek hiru hilabete egingo dituzte kanpoan, uztailetik urrira bitarte. Programa honetan, gehienez jota 100 pertsonek parte hartuko dute, hortaz, lehenbailehen izen-ematea komeni da. Egitasmoan parte hartuko dutenek 90 euroko kuota ordaindu beharko diote hartuko dituen GKEari eta ordaingiriak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzara bidali beharko dituzte.

Izen-ematea martxoaren 28tik apirilaren 27ra izango da, zapatura arte, alegia. Antolatzailea Eusko Jaurlaritza da, hortaz, informazio gehiago behar izatekotan Gazteaukerako webgunea kontsultzea besterik ez dago.

# Euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak egiteko laguntzak

A.E | BERGARA

Aurten ere Udalak euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak euskaraz burutu ahal izateko diru-laguntzak emango ditu. 2012-2013 ikasturtean edota udan egindako ikastaroengatiko diru-laguntza eskaerak 2013ko irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Bergarako Udaleko erregistro orokorrean.

Udalak eskainiko dituen diru-laguntzak hiru motatakoak izango dira. Alde batetik, Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenek diru-laguntzak jasoko dituzte. Udal euskaltegian ikasten dutenek, laguntzak euskaltegian bertan izaten dituzte. Bestetik, Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn) parte hartzen dutenentzako diru-laguntzak ere izango dira. Eta azkenik, hirugarren motako diru-laguntzak UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten bergararrentzat izango dira.

### Informazio lekuak

Bete beharreko dokumentuak deskargatzeko eta informazio gehiago eskuratzeko, udaleko webgunean www.bergara.net ataria kontsultatzea besterik ez dute diru-laguntza hauek jaso nahi dituztenek pertsonek. Internet erabili ez eta aurrez aurre edota telefonoz hobeto konpontzen direnek 943 77 91 66 telefono zenbakira deitzerik ere badute.

### DYAk hitzaldia eskainiko du gaur arratsaldean Jubilatuen Etxean, 16:30tatik aurrera

*Adinekoentzako bide segurtasuna* izenburupean, hitzaldia eskainiko du DYA Gipuzkoak gaur arratsaldean Jubilatuen Etxean. Hitzaldia gaztelaniaz izango da eta sarrera doan izango da, hortaz, nahi duen orok parte har dezake. Hitzordua arratsaldeko 16:30tan izango da eta bertan adineko pertsonek kontuan izan behar dituzten segurtasun neurri desberdinez hitz egingo da.

# Jardunen udaberriko Jolas Leku ibiltaria martxan da jada

## Egubakoitzean arratsaldeko 17:00tan da zita, Ibargaraiko ziburutan

A.E | BERGARA

Udaberriarekin batera eguraldi hobea eta egunak luzeagoak direla aprobetxatuta, aurten ere Jardun Euskara Elkarteak udaberriko Jolas Leku ibiltaria jarriko du martxan. Urtero bezala, hainbat asteburutan, adin desberdinetako neska-mutilekin arratsaldea pasako dute jolasean. Bi orduko saioak izaten dira normalean, arratsaldeko 17:00tatik 19:00tara eta herriko hainbat txokotan izaten dira.

Adinari dagokionez, 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako jolas lekua da. Euskal kantuak oinarritzat hartuz, jolastea da helburu, hala, arduradunek, euskarazko jolasak egiteko baliabideak eskaintzen dituzte.

Egubakoitz honetan, hilak 26, Ibargaraiko ziburuetan (postetxe eta Ogizun arteko jolas lekuan) izango dira jolasean eta maiatzaren 10ean aldiz, Domingo Irala kalean. Bi kasutan arratsaldeko 17:00tatik 19:00tara bitarte.

Bertan egingo diren jolasak hauek dira besteak beste: sokasaltoa, zapi jolasak, baloiarekin jolasak, kantuak…


Jolas Leku ibiltariko partaideak. | JARDUN

### Begiraleak behar dira

Aurten ere Bergarako Udalak antolatzen dituen uztaileko Udaleku irekiak Jardun euskara elkarteak kudeatuko ditu. Aurtengoan, uztailaren 1etik 19ra izango dira oporretako goiz pasa hauek. Urtero bezala, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitartean neska-mutilek hainbat ekintza burutuko dituzte eta hauek kontrolatu eta antolatzeko pertsonak behar dira.

Udaleku ireki hauetan lan egiteko begiraleak behar dira beraz, hori dela eta, interesa dutenek guztiek curriculuma aurkeztu beharko dute maiatzaren 6tik 17ra bitartean.

Curriculumak Jardun euskara elkartearen bulegora, Errotaldera eraman daitezke edota hurbiltzerik ez eta posta elektroniko bidez datuak bidaltzea nahiago dutenek, helbide honetara bidali beharko dituzte datuak: *jardun@topagunea.com*.

**Joseba Urtzelai** | Ingeniaria

# "Banku-sekretuak badira Suitzan, eta horretaz baliatzen dira dirudunak"

▸ 16 urte daramatza Urtzelaik Suitzan bizitzen

▸ Suitzako paradisu fiskalaz ere galdetu diogu



Joseba Urtzelai oñatiarre, Suitzan. | JOSEBA URTZELAI

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Joseba Urtzelai Intzak (Oñati, 1973) Arrasaten egin zituen ingeniaritza ikasketak eta Lausanneko eskola politekniko federalean doktoretza bat egitera joan zen gero. Harrez gero Suitzan bizi da; 2003tik, Zurichen. Informatika enpresa bateko finantza-merkatuaren zuzendari komertzial bezala da.

**Zergatik pentsatzen dugu Suitza paradisua dela?**

Gizarte-ongizatea, segurtasuna, soldata maila, paisaia eta Alpeak kontuan hartuta, Suitzak nahiko paradisu itxura duela esango nuke. Zerga-paradisuei buruz, berriz, badira Suitzan berezitasun pare bat: banku-sekretua, adibidez. Dena den, bankuen artean bizi dugun nazioarteko norgehiagoka zoroak badu arlo honetan ere bere garrantzia. Ameriketako Estatu Batuetan, Ingalaterran edo Asian, adibidez, horrenbeste zerga-paradisu aurkituko dituzu, hauek ere bezero dirudunen zerbitzura. Eta gainontzeko nazioen interesa zera da, Suitza presiopean jartzea, bertako bezeroek dirua beste nazio batzuetara mugitzeko. Gaur egun bizi duguna ez nuke garbitasun edo legalizazio ariketa bezala deskribatuko, kapitalak bereganatzeko borroka bezala baizik.

**Ze alde dago dirua hango edo hemengo kontu baten edukitzean?**

Printzipioz dirua Euskal Herrian edo Suitzan izatea berdin da, legalki deklaratuta izanez gero. Suitzako berezitasun nagusia banku-sekretua da, hau da, zenbakien bitartez identifikatutako kontu anonimoak. Eta mekanismo honetaz baliatzen dira pertsona dirudun batzuek, dirua Suitzara ezkutuan ekarri eta ondoren zenbakipeko kontu batean desagerrarazteko. Joera hau aldatzen ari da, eta azken hilabeteotan Suitzak Austriarekin eta Ingalaterrarekin arlo honetan akordioak sinatu ditu ezkutuko diruek ere zergak ordaintzen dituztela ziurtatzeko.

**Ze abantaila ematen dituzten hango banketxeek?**

Interesetan asko ez. Azken urteotan Suitzan bankuek ez dute %2 baino gehiago eman aurrezki kontuetan. Momentu honetan, Suitzako banketxeen abantaila egonkortasuna da. Europako nazio batzuen finantzen egoera kontutan hartuta, ez da txarra gaur egun zure bankua egoera seguruan dagoela jakitea, begiratu bestela Txipren gertatzen ari dena.

> "Egun Suitzako banketxeen abantaila nagusia egonkortasuna da"

**Kontu korronte bat Suitzan zabaltzeko baldintzak ezberdinak dira bertako batendako edo debagoiendar batendako, adibidez?**

Kontu korrontea zabaltzeko pasaportea baino ez da behar, baina baldintzak ez dira guztientzako berdinak. Atzerritarren kasuan, banku askok gutxieneko diru kopuru bat (25.000 eta 500.000 euro artean, bankuaren arabera) edota kontu-kostu altuagoak eskatzen dituzte. Egia esan, ez dut uste Suitzan kontu bat 1.000 eurokin zabaltzea merezi duenik. Bestalde, normalean Suitzara milioi bat euro pasatzen duenak legearekin jolasean ari da.

**Gainerakoan, zer moduz bizi zara Suitzan?**

Oso ondo. Jadanik 16 urte daramatzat Suitzan eta iaz suitzar pasaportea eman zidaten, euskal -suitzarra naiz, beraz. Lanean gustura, emaztearekin oso ondo eta lagun asko ditut hemen.

**Euskaldun asko zaudete inguruan?**

Bagaude, bai. Suitzako Euskal Etxeko presidentea naiz eta nahiko kontrolatuta ditut hemengo euskaldunak. Guztira 50 bat bazkide ditugu Euskal Etxean eta sarritan elkartzen gara poteotxoren bat edo egiteko.

**Krisia dela eta, Euskal Herritik ere gazte asko ei doaz Europara lan bila edo ikastera. Nabaritu duzu zuk hori Suitzan?**

Bai, asko nabaritu dugu. Azken urtean *mail* ugari jaso ditugu Euskal Etxean informazio edo laguntza eske. Arkitekto eta informatiko ugari etorri dira azken aldian.

**Lan arloari begiratuta, ze egoera bizi duzue?**

Hori beste kontu bat da. Pasa den martxoan %3,2ko langabezia genuen Suitzan; azken urteotan %2 ingurukoa izan da. Lan merkatua oso malgua da hemen eta jendeak sarritan aldatzen du lanpostua. Lan baldintzak onak dira orokorrean.

> "Euskal Etxeko presidentea naiz; 50 bazkide gara eta sarri elkartzen gara"

**Txokolatea, paisaiak, erlojuak ... beste zer du Suitzak?**

Heidi eta gazta ahaztu dituzu ... Suitzak baditu bere berezitasunak ere: lau hizkuntza, adibidez (alemanera, frantsesa, italiera eta erromantxea) edo demokrazia zuzena (hiru hilabete oroko bozketak, herri, kantoi edo nazio mailan erabakiak hartzeko).

Eta Alpeak, neguan eskiatzeko eta udan mendian ibiltzeko.

**Jarraitzen dituzu Oñatiko eta inguruko berriak?**

Noski baietz. *Kontzejupetik* jasotzen dut hilero eta etxekoekin astero egoten naiz telefonoz.

**Mezurik baduzu etxekoendako eta koadrilakoendako? Ezer esan gura diezu?**

Hemen faltan botatzen ditudala! Maiatzean emaztearekin Oñatira noa eta izango dut aukera etxekoak eta lagunak ikusteko.

---

# Goñiren smart-bideo tailerrak arrakasta izan du

Eguaztenean izango da, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekintzen artean

O.E. | OÑATI

Smartphone edo tabletekin bideoak egiteko ikastaro laburra eskainiko du Pernan Goñik eguaztenean, eta arrakastatsua izango dela aurreikusi daiteke, dagoeneko gonbidapen gutxi gelditzen dira-eta. Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldietako bat izango da.

Goñiren tailerraz gain, ipuin kontaketak ere izango dira aste honetan udal liburutegian: bihar, martitzena, helduendako saioa izango da, 19:00etan, eta eguenean, sei eta zortzi urte arteko umeendako, 18:00etan. Bihar, gainera, Nax eta bere laguntzaileak liburu-DVDa aurkeztuko du Urgainek. Ekitaldi horiez gain, egueneko zineklubean propio aukeratu duten filma botako dute eta egubakoitzean, kontzertua emango dute Anduagak eta Untzillak liburutegian, 19:00etan.

Bestalde, aste guztian zehar, bildumatik erretiratutako liburuak eskainiko dizkiete bazkideei liburutegian.

## Gazte Danbada 2.0 jaialdia antolatu dute zapaturako

Urduñan Gazte Danbadak izan zuen arrakasta ikusita, Oñatin Gazte Danbada 2.0 jaialdia antolatu dute zapaturako.

Egun osoko egitaraua prestatu dute egun horretarako: 10:00etan, irteera egingo dute Arranoaitzera Antixena gaztetxetik; 13:00etan, herri poteoa egingo dute; 15:00etan, bazkaria Antixenan eta joan gura duenak gaztetxean bertan eman behar ditu izena eta bost euro; 20:00etan, kale agerraldia egingo dute Euskal gazteria aurrera lelopean eta ondoren, kontzertua Ernaik antolatuta. Kontzertua 21:30ean hasiko da gaztetxean.

## Oñatiko Sorturen aurkezpena egingo dute egubakoitzean

Oñatiko Sortu aurkeztuko dute jendaurrean datorren egubakoitzean, apirilak 26.Aurkezpen ekitaldia kultura etxean egingo dute, 19:00etan. Besteak beste, Oñatiko Kontseiluaren aurkezpena egingo dute, eta aurrera begirako lan esparrua zein den azalduko dute. Herritar guztiendako zabalik egongo da aurkezpen ekitaldi hori.

Jendaurreko aurkezpena egin ondoren, afaria egingo dute Arrano elkartean. 21:00etan izango da afaria, eta joan gura duenak salgai ditu dagoeneko txartelak: Arrano tabernan eros daitezke bost eurotan.

## Txiki Txokok ateak zabalduko ditu datorren eguenean

Txiki Txoko haurreskolak ate irekien jardunaldiak egingo ditu hurrengo eguenean, apirilak 25. 17:30etik 19:30era zabalduko ditu ateak, eta tarte horretan edozein gurasok izango du aukera haurreskola ikusi eta edozein zalantza argitu edo galdera egiteko.

Ate irekien jardunaldi hori, seme-alabak irailean haurreskolara eramango dituzten gurasoei dago zuzenduta batez ere. Datorren irailean hasiko den ikasturtean izena emateko, datorren hilean zabalduko dute matrikulazio epea; maiatzaren 2tik 13ra egon da aukera umea Txiki Txokon matrikulatzeko.



Iazko liburu trukaketa azoka. | GOIENA

# 'Bat ekarri, bat eruen' liburu azoka egubakoitz honetan

Aurten ere Herriko Plazan izango da liburuen trukaketa; bada, apirilaren 25ean, eguenean, amaitzen da liburuak utzi eta txartela jasotzeko epea

**ANE ETXEBERRIA** | ESKORIATZA

Urtero bezala, Kataia Eten Barik egitasmoaren barruan, liburuak trukatzeko azoka egingo dute apirilaren 26an, egubakoitza, Eskoriatzako plazan.

Eskoriatzako Udaleko Kultura eta Euskara zerbitzuek eta Udal Bibliotekak antolatu dute azoka. Herriko Plazan egingo da, 18:00etatik 19:30era, eta bertan liburuak trukatu ahal izango dira.

Urteroko prozesua izango da; hau da, liburuak liburutegira eramango dira eta bakoitzaren truke txartel bat jasoko dute herritarrek, hurrengo egunean azokan beste liburu baten truke aldatzeko.

Era guztietako liburuak egoten dira azokan; hau da, haur, gazte zein helduek liburu bikain bat eskuratzeko aukera paregabea izango dute.

**Liburutegian utzi behar dira**

Hortaz, gura duten herritar guztiek etxean dituzten liburu zaharrak bibliotekara eraman ditzakete. Liburutegian liburuok uzteko epea azoka baino egun bat lehenago amaituko da; eguaztenera arte izango dute aukera herritarrek.

Liburu guztiek bete behar duten baldintza bakarra da egoera onean egotea. Edozelan ere, ikas-liburuak ez dira onartzen. Liburutegira eramandako liburu bakoitzaren truke azokan liburu bakarra eskuratzeko txartela jasoko dute aurten herritarrek.

Txartel horietako bakoitzarekin liburu bat hartu ahal izango da azoka egunean; horrenbestez, etxean lasai irakurri ahal izateko liburu bikain bat eraman dezake pertsona bakoitzak.

Hala, testu-liburuak kenduta, edozein liburu, ipuin, nobela, olerki, sukaldaritza liburu... denetarikoak entregatzea posible izango da, baina, esan bezala, egoera onean bakarrik daudenak. Gainera, liburuak trukatzeaz gain, *Zu be irakurle!* irakurraldi publikoa egingo da egubakoitzean. Nahi duen orok liburu bat gomendatzeko aukera izango du, eta, horretaz gain, liburuko pasarteren bat irakurtzeko aukera izango du. Herritar guztiei zabalik dagoen ekintza da.

# Udalekutan izen emateko epea zabalik dago jada

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL** | ARETXABALETA

Dagoeneko ireki dute Aretxabaletako udaleku irekietan izena emateko epea. 2001. eta 2009. urte artean jaiotakoei (4 eta 12 urte bitartekoei) zuzenduta daude uztailaren 2tik 23ra bitartean egingo dituzten udalekuak.

Udaleku irekietan izena emateko aukera dago maiatzaren 3ra arte. Gazteria Sailetik aditzera eman dutenez, "epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko". Gainera, izen-ematea ontzat emango dute, ordainagiria eta izenemate orria behar den tokian entregatzen bada.

Izen-ematea 50 euro izango da. Udaletxeko Gazteria Zerbitzuan edota Arkupen eman beharko da izena goizez nahiz arratsaldez.

# Ariete ponpa ikastaroa Arizmendi ikastolan

**A.E** | ARETXABALETA

Ariete ponpa aparatu hidraulikoa da, ura distantzia handietan garraiatzeko balio duena. Ez du erregairik eta elektrizitaterik erabiltzen eta oso erraz erabiltzen da. Hori erakusteko asmoz, Arizmendi Ikastolak ikastaroa antolatu datorren apirilaren 26rako, hau da egubakoitzerako.

Ikastaroa, Basabeazpin izango da arratsaldeko 17:00-tatik 20:00ak bitarte. Izen –eman nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu eta taldea sortzeko gutxienez 6 pertsona beharko dira. Talde bakoitzean, gehienez 15 pertsona onartuko dira.

Irakaslea Gartzen Undagoitia eraikuntzako ingeniari eta arkitekto teknikoa izango da, Arizmendi Ikastolako irakaslea da bera.

# Ipuinak protagonista izango dira Kurtzebarrin eta Almenen

**A.E** | ARETXABALETA

Apirilaren 22tik 25era, Nazioarteko Liburuaren egunaren harira, Kurtzebarri Eskolan Literatura Astea egingo dute. Aurten, Hans Christian Andersen izango da ardatz eta haren ipuinak irakurrita hainbat ekintza antolatu dituzte.

Asteari hasiera emateko, Juan Kruz Igerabide idazlea izango da eskolan 1. eta 5.mailetako ikasleekin solasean. 6. mailakoek, aldiz, gaztetxoenei Andersenen ipuinak kontatuko dizkiete. Eta apirilaren 25ean, 22. Irakur Maratoia egingo dute Kurtzebarri Eskolako neska-mutilek.

**Almenekoak ere ipuin kontalari**

Almeneko neska-mutilek ere Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat egingo dute, eta, horretarako, ipuin kontalari lanetan arituko dira. Izan ere, apirilaren 25ean, arratsaldeko seietan hasita, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako haurrentzat, 6-8 urte bitarteko neska-mutilentzat, ipuin kontalari lanetan arituko dira DHHko ikasleak.





Etorkizunean aparkaleku falta egongo dela dio ikerketak; Osteta kalekoa, esaterako, eremu pribatuan dago. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

# Alde zaharrari balioa eman eta nolakoa izan behar duen erabaki, herritarrekin

Azterketaren ondorio nagusiak: okupazio mailan desoreka handia, aparkaleku eta espazio libre berrien beharra eta eraikinen egoera arkitektoniko ona

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Etorkizunean Ibarrako alde zaharra nolakoa izan behar den pentsatzeko, apirilaren 17an bilera irekia egin zen udaletxean: "Azterketa sozio-urbanistiko bat egin dugu, multzo eraikiaren egoera zein den jakiteko. Eraikinak aztertu ditugu, etxeen egiturak, akaberak eta bizigarritasun baldintzak nolakoak diren jakiteko. Era berean, baina, zein populazio mota bizi den ere aztertu dugu, besteak beste", esan zuen Martin Ferran arkitektoak.

Abiapuntu bat zehazteko bilera izan zen joan den astekoa eta 25 bat herritarrek egin zuten bat deialdiarekin. Ferranek alde zaharra egun nola ikusten duten jakinarazi zuen: okupazio mailari dagokionez, "desoreka handia" dago Ibargoiako dentsitate altuaren eta Ibarrako gainerako guneen artean; eraikinak arkitektonikoki "nahiko egoera onean" daude baina erreka aldera ematen duten zenbait etxetako fatxadak desitxuratuta daude; eta, azkenik, "kalitatezko espazio libreen" beharra dago oro har. Aparkalekuen beharra dagoela da beste ondorio bat; izan ere, Osteta kalekoa eremu pribatuan dago.

**Parte-hartzea, "garrantzitsua"**

Bestalde, Andoni Solupe Hirigintza zinegotziak parte-hartze altua izan zela nabarmendu du: "Udalarendako oso garrantzitsua da herritarrek euren ekarpenak egin ahal izatea; izan ere, herritarrak dira bertan bizi direnak". Orain plan berria idatzi beharra dago eta hori publiko egiterakoan, bilera irekian azaldu zenez, herritarrek aukera izango dute proposamenak eta alegazioak aurkezteko: "Udalak eskaerok aztertu egingo ditu eta onartuko dira edo ez. Proposamenak teknikoki egingarriak diren baloratu beharko da", adierazi du Solupek.



25 bat herritar egon ziren bilera irekian, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. | J.B.

ANTZUOLA

# Oier Peñagarikanok irabazi du Martxoaren 8ko kartel lehiaketa

Datorren urteko Martxoaren 8ko ekintzen adierazle izango da antzuolarraren kartela

**ANE ETXEBERRIA** | ANTZUOLA

Bideberri mankomunitateak antolatutako Martxoaren 8ko kartel lehiaketak badu irabazlea. Oier Peñagarikano antzuolarraren *Ez dago borroka gabeko garaipenik* izeneko kartelak lortu du boto gehien; hala, 300 euroko saria jasoko du. Bigarren saria, aldiz, Jone Elkoro elgetarrak jasoko du, 150 euroko sari polita eramango du etxera *Batera hobe* kartelarengatik. Boto-emaileen saria ere elgetar batek eraman du, Miren Zeziagak.

Hala, Peñagarikanoren kartelak iragarriko du datorren urteko Emakumeen Nazioarteko Eguna Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan.




Kartel irabazlea. | O.P.

ELGETA

# Bi ipuin kontalariren bisita izan dute eskolako Kultura Astean

Bihar, martitzena, herriko plazara jaitsiko ditu liburuak Geaxi Ezpeleta udal liburuzainak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Elgetako Herri Eskolan egin berri dute Kultura Astea; eguaztenetik barikura bitartean egitarau berezia izan zuten eskolan, tartean probaz beteriko zirkuitu kulturala, eta bi ipuin kontalariren saioak. Pelikula proiekzioak ere izan zituzten. Hala, asmakizun, eroglifiko, potokume, ipuin eta esamesa artean eman zuten astea neska-mutikoek.

Bisita bereziei dagokienez, Josu Baliño ipuin kontalaria eguenean izan zen Herri Eskolan eta barikuan Isabel Milleten bisita izan zuten ikasleek. Lehenak hiru ipuin kontatu zizkien Haur Hezkuntzako neska-mutikoei. Milletek, berriz, Lehen Hezkuntzako umeekin egin zuen saioa. Zirkuitu kulturaleko sari banaketa ere barikuan egin zuten. Taldeka banatuta proba ezberdinak egin ostean, sariak jaso zituzten ikasleek.

**Liburuaren Eguna**

Bihar, martitzena, Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta, ekintza bereziak prestatu dituzte udal liburutegitik. Gaur, astelehena, bisita programatua egingo dute ludotekako haurrekin. Bihar, martitzena, liburuak doan eskuratzeko aukera egongo da plazan, 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 27rako, berriz, Saroa Bikandi ipuin kontalariaren saioa iragarri dute liburutegian bertan, 11:00etan.



Haur Hezkuntzako umeak, eguenean, Josu Baliñori entzuten. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Herriko guneak konpontzen hasiko dira

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Eguraldiak hobera egin ahala, neguko eguraldiak udalerriko hainbat gunetan eragindako kalte eta apurketak konpontzen hasiko da Udala.

Asier Ugartek, Hirigintza zinegotziak, emandako xehetasunen arabera, Okondoko eta Etxebarri artean jausitako harri-lubeta bat konpondu beharra dago. Eta besteak beste, urak eragindako lur-mugimendu batzuk ere konpondu beharra dago; esaterako, Artabilla eta Okondoko inguruan.

**Erabaki egin behar da**

Edozelan ere, udalerrian badira errepide batzuk eguraldiak kaltetuta Udalarenak barik Diputazioarenak direnak. Adibidez, Dorletarako errepidea. Hirigintza zinegotziak gogora ekarri du kasu horretan Gipuzkoako Diputazioari dagokiola konponketak egitea, eta haiek jakinaren gainean daudela.

## Hondakinen bilketa selektiboari buruzko informazioa jasotzeko bigarren hitzordua asteon

Oraingo asteko eguaztenean bigarren hitzordua du Debagoieneko Mankomunitateko teknikariak hondakinen bilketa selektiboari buruzko informazioa herritarrei emateko. 09:00etatik 15:00ak arte izango da, udaletxeko beheko solairuko bulegoan, eta gaiarekiko interesa edo zalantzak dituen edozein herritarri emango dio arreta. Joan den eguazteneko lehen hitzorduan "bisita batzuk" izan zituela jakinarazi dute Udaletik.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO APIRILEAN

### ADI EGON!

GOIENA Klubeko **4.000 bazkideon artean** martxoan honakoa zozketatuko dugu.

aisia HOTELES DEBA

### 3 BONU

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

### 2 BONU

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).



**Parte hartzeko**

Telebista
BaserriSarea
Arrikrutz

**SMS:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### TELEBISTA ETA BLUE RAY

OKI led telebista 19" + LG Blue Ray BP125



EROSKI

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

Debagoiena BASERRI SAREA



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko kobak



**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA LORADENDA | ALZU | Esko Sport | JAIXAK disfrutatzeko oparixak | LILURA EDERTZE INSTITUTUA | lastai
Estación de Servicio ARRASATE AVIA | BEGI ONDO | Etxe-Aundi Hotela · Jatetxea | gahir fisioterapia osteopatia | GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak | Gure Guztiz | naren
multiópticas lehena zerbitzu optikoetan | ARRIKRUTZ oñatiko kobak | MPRESPAL INPRIMATEGIA | kuttuna ESTETIKA ZENTROA | Izotz Jauregia TXURI-URDIN
Biotika | caravanas oñate | DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM | PEUGEOT OÑATI GARAJEA | eureka! zientzia museoa | argia



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KIROLA


Lasterkariak Aloñako azken aldatsean. | IMANOL BELOKI


Parapente lur-hartzea Berezaon. | JOSETXO ARANTZABAL


Aloñako IX. igoerako podiuma. | JON BEREZIBAR

ALOÑAKO IX. IGOERA

## Lehen aldiz aurkeztu eta errekorra eginda, Maite Maiora Aloñan irabazle

Gizonezkoetan Javier Olaberria izan zen txapeldun eta parapente jaitsieran Iñigo Gabiria

**JON BEREZIBAR** | OÑATI

Lehen aldiz aurkeztu, irabazi eta errekorra lortu, gainera. Maite Maioraren goiza izan zen atzokoa eta pozarren hartu zituen garaikur eta loreak. Ondo saiatuta, baina aise heldu zen emakumeetan lehen mendaroarra eta errekorraren bila joan zela aitortzen du. Gizonezkoetan borroka neketsuagoa izan zen, ordea. Lehen bost sailkatuen artean izan zen norgehiagoka gogorra, bai igoeran zein jaitsieran, Aloñatik beherako zatian erabaki zen arte. Olaberriak Igartzabali aurrea hartu eta bukaerara arte estutu zuen bigarrenak; azkenean garaile bera. Aurreko urteetan baino lasterketa azkarragoa izan zen atzokoa. Ziurrenik, eguraldi onak horretan eragin handia izan zuen 270 korrikalariengan, lokatz gutxi eta kirolerako giro paregabearekin. Parapenteei dagokienez, 11 izan ziren parte-hartzaileak. Iñigo Gabiriak, Beñat Zubillagak eta Andoni Leibar aretxabaletarrak, helmuga ordenan, osatu zuten podiuma. Haizearen egoera ere ezin hobea izan zen atzo parapentean ibiltzeko.

### Lehia estua gizonetan

Javier Olaberriak aspaldiko partez egin zuen korrika atzokoan, baina estu hartu zituen batez ere Juanjo Igartzabal eta Iban Letamendi oñatiarra – lehen debagoiendarra, berau –. Izan ere, Urtiagainera Igartzabal heldu zen lehenengo, baina Aloñako gailurretik behera inork kenduko ez zion lehen lekua zeukan hartuta ordurako Olaberriak. Bizkaitarrak jaitsierako errekorra dauka –2007an eskuratutakoa– eta Aloñatik beherakoan ondo baino hobeto igarri zen bere indargunea zein den, lasterketa erabakiz. Belarren jada, podiuma erabakita zeukaten Olaberriak, Igartzabalek eta Letamendik, hurrenez hurren.

**Argazki galeria:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



**JAVIER OLABERRIA**
OROZKO

"Ikaragarri gustatzen zait proba hau. Zazpi bat urte etorri gabe eta gogotsu nentorren. Banekien Juanjok estu hartuko ninduela eta hala izan da".



**MAITE MAIORA**
MENDARO

"Aloñara igotzen naizen lehen aldia da eta tamainako proba iruditu zait. Igoerako errekorrarekin ere saiatu naiz baina ezin izan dut".



**ANDONI LEIBAR**
ARETXABALETA

"Gogor samarra egin zait parapentea eramatea. Goian sekulako giroa zegoen, hegaz geratzeko gogoarekin nengoen, baina behera egin behar!".



**XABIER URIBESALGO**
BERGARA

"Oso gustura egin dut. Lehen urtea izan da eta disfrutatzeko helburuarekin etorri naiz, ahal zela beti, aurrekoa pasatuz. Sekulako giroa egon da".



**MAITE ZABALETA**
OÑATI

"Lehen aldia izan da baina beti izan dut gogoa. Kontua da herrian errespetu handiagoa ematen duela. Ondo joan da baina errepidean nahiago dut".

SASKIBALOIA | Natra Oñatik lider bukatuko du denboraldia | 25





Javier Olaberria helmugara iristeko unean. | JOSETXO ARANTZABAL



Iban Letamendi oñatiarra Urtiagainen. | JOSETXO ARANTZABAL

## SAILKAPEN OROKORRA

### GIZONEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Javier Olaberria | 1:16:28 |
| 2. | Juanjo Igartzabal | 1:17:00 |
| 3. | Iban Letamendi | 1:17:35 |
| 4. | Abder. El Qayed | 1:18:28 |
| 5. | I. Uribe-Etxebarria | 1:20:20 |
| 6. | Joseba Urbano | 1:21:36 |

### EMAKUMEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Maite Maiora | 1:26:46 |
| 2. | Azara Garcia | 1:31:06 |
| 3. | Alizia Olazabal | 1:33:37 |
| 4. | Mari Cruz Aragon | 1:34:15 |
| 5. | Montse Vazquez | 1:39:31 |
| 6. | Laura Carrillo | 1:47:15 |

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara

Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:
ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!
Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.
Lehenengo mailako materialak
Sukalde ekipatuak, logela armairuak

Informazio guztia
gure web orrian.
Sartu eta ikusi





www.promocioneserregetxoplaza.com

EMAKUMEEN 2. MAILA

# Denboraldiko azken partidua galdu zuten Mondrako neskek Oiartzunekin

Andoni Ezkurraren taldeak bi erremate bidali zituen zutoinera eta bat langara

**EMAITZA**

MONDRA

**1-3**

OIARTZUN



Mondrako eta Oiartzungo jokalariak, baloiarengatik lehian. | IMANOL SORIANO

### EMAKUMEEN 2. MAILAKO AZKEN SAILKAPENA

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Añorga | 59 |
| 2. | San Ignacio | 52 |
| 3. | Oiartzun | 50 |
| 4. | Osasuna | 48 |
| 5. | Athletic | 46 |
| 6. | San Juan | 46 |
| 7. | Aurrera | 46 |
| 8. | Pauldarrak | 45 |
| 9. | Logroño | 29 |
| 10. | Abanto | 28 |
| 11. | Mondra | 25 |
| 12. | Zarautz | 14 |
| 13. | Eibar | 10 |
| 14. | Castejon | 5 |

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Mondrako neskek ezin izan zuten liga txapelketa gura moduan bukatu: Oiartzunen kontra galdu egin zuten. "Eurak gu baino gehiago izan dira. Asko jota puntu bat eskuratzeko aukerak izan ditugu, baina emaitza justua izan dela esango nuke", esan zigun partidu bukaeran Andoni Ezkurra entrenatzaileak.

**20. minuturako, 0-2**

Mondrako neskak lokartuta irten ziren zelaira eta konturatu orduko 0-2 galtzen zihoazen. Oiartzunek bi goleko errenta hartu zuen 20. minuturako. Golpe gogorregia arrasatearrendako.

Lehen zatiko ordu erdia bete aurretik, gola sartu zuten etxekoek. Mondrak beste jarrera bat hartu zuen orduan. Are gehiago, atsedenaren aurretik, berdintzeko hiru aukera oso garbi izan zituzten: bi errematek zutoinean jo zuten. Azken minutuetan erosoago jokatu zuten Ezkurraren neskek, eta lehia berdintzeko gai ziren sentsazioarekin joan ziren aldageletara.

Bada, bigarren zatia, berezia izan zen. Oiartzun markagailuan zuen errenta defendatzeko asmoz irten zen zelaira, eta Mondra berdinketa lortzeko asmoz. Biak jokoa kontrolatzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Hala, joko gutxi ikusi zen, eta bi taldeek ez zuten arriskurik sortu. Hori bai, gol aukera garbiena Mondrak izan zuen, baina jaurtiketak langan jo zuen. Partiduaren azken minutuan, 89.ean, Oiartzunek egin zuen hirugarrena. Area ertzean falta adierazi zuen epaileak, eta zuzeneko jaurtiketarekin gola sartu zuten.

**Realaren kontra kopan**

Liga txapelketa bukatuta, orain atseden hartzeko unea heldu zaie arrasatearrei. Entrenamendu batzuk egingo dituzte, agendan duten hurrengo erronka prestatzeko: Federazio kopako joan-etorriko kanporaketa Realaren kontra jokatuko dute. Maiatzean izango da. "Sari bat da guretako. Zozketa bidez emakumeen lehenengo mailan diharduen Realaren kontra jokatzea egokitu zaigu, Zubietan eta Mojategin. Gozamena izango da", dio Ezkurrak.

**ANDONI EZKURRA** | ENTRENATZAILEA

## "Bigarren urtea beti da lehenengoa baino gogorragoa eta zailagoa"

Mondrako neskek bukatu dute denboraldia. 11. lekuan bukatu dute, 25 punturekin.



GOIENA

**Denboraldiaz ze balorazio egin duzue?**

Gogorra izan da. Beheko postuetan egon gara urte osoan, eta orain dela bi astera arte ez dugu maila ziurtatu. Lehia guztiak oso gogorrak izan dira eta emaitzetan bolada ona harrapatzea kostatu zaigu. Azken minutuan edo gol bakar bategatik galdu izan dugu. Min handia eman diguten emaitzak izan ditugu.

**Iaz, hobeto bukatu zenuten.**

Maila berean egiten den bigarren urtea beti da lehena baino gogorragoa eta zailagoa. Lehen urtean ez zaituzte ezagutzen, eta ezustekoren bat emateko aukera gehiago dituzu. Bigarrenean ez.

**Talde gaztearekin lehiatu zarete aurten.**

Bai, eta hori da izan dugun beste erronka.Talde gazteegia da maila honetarako, baina ezin naiz kexatu egin duten ahaleginarekin. Lan ikaragarria egin dute urte osoan zehar. Batez ere, maila ziurtatzeko partiduak jokatu izan ditugunean. Iazko emaitza hobetzerik ez dugu lortu, baina maila mantentzeko helburua bai, eta horrekin geratzen gara: bigarren mailarekin eta egindako lanarekin.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Bi alditan berdinduz, puntu bat lortu zuen Mondrak Zumarragan: 2-2

Mondra gai izan zen markagailua bi alditan berdintzeko, eta puntu bat lortu zuen Urolaren kontra. Zaitegi eta Dueñas izan ziren golegileak. Bada, hiru puntuak lortzeko aukerak ere izan zituen, batez ere, bigarren zatian. Baloia menderatuta, ondo jokatu zuen, baina ezin izan zuen irabazi. Puntuak hirunaka batu behar ditu zulotik irteteko.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Maila mantentzeko bidean, puntu bat gehiago Aloñarendako

Aloña Mendik urteko helburua puntu bat gertuago dauka. Tolosaren kontra bana berdindu ostean, 39 puntu dituzte sailkapenean. Oñatiarrak 0-1 aurreratu ziren 25. minutuan Juaristik kontraerasoan sartutako golarekin, eta bigarren egiteko aukerak ere izan zituzten. Baina 75.ean tolosarrek berdindu egin zuten.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Emaitzari buelta emanda, 2-3 irabazi zuen Aretxabaletak

UDAk emaitza oso ona lortu zuen Ostadarren zelaian. 1-0 eta 2-1 galtzen egon ostean, aretxabaletarrak gai izan ziren emaitzari buelta eman eta lehia irabazteko. Raul Sanchez, penalti puntutik, Jokin Badillo eta Iker Orueta izan ziren golegileak. UDAk 51 puntu ditu sailkapenean, eta laugarren lekuan dago.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Bergararrak esku hutsik itzuli ziren Hernanitik: 3-0

Hirugarren Mailara igotzeko postu bila dabilen Hernaniri egin zion bisita zapatuan Bergarak. Bada, Neka Galanen taldeak ezin izan zuen punturik lortu. Bergararrek ez zuten emaitza onik lortzeko aukerarik izan. Mahoneroek, Tolosaren kontra jokatuko dute aste bukaeran, Agorrosinen.

ERREGIONAL PREFE.

### Puntu bakarra lortuta, puntu bateko abantaila dauka Antzuolak: 1-1

Antzuolak bana berdindu zuen atzo, domeka, Elgoibarren kontra, eta Getariakoren garaipenarekin, puntu bateko aldea besterik ez dauka sailkapenean. Azken asteotan errenta handia galdu dute antzuolarrek, baina igoera euren esku dago oraindik. Hurrengo partidua Lazkaon jokatuko dute.

SASKIBALOIA

# Denboraldiko bigarren porrot zabalena jaso zuen Natrak

## Oñatiarrek ezin izan zuten Baskoniaren filialaren kontra Zubikoan

**EMAITZA**

EHU ARABA
**78-59**
NATRA OÑATI

**FITXA TEKNIKOA**

**EHU Araba:** Barandica (5), Saez (8), Ruiz de Bergara (3), Mascariano (7), Martinez (2), Vegas, Bordignon (14), Arregi (9), Malmanis (8), Ndongala (10) eta Diop (12).

**Natra Oñati:** Iagoba (2), Imanol (6), Josean (10), Iñigo, Asier (16), Gorka (5), Iban, Xabo (17), Madina eta Xabi (3).

**Oharrak:** Partidua Oñatin jokatu arren, EHU Araba izan zen etxeko taldea, eta Natra Oñati kanpokoa.



Xabier Osa Xabo, erasoa antolatu guran, EHU Arabaren kontra. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Igoera faserako txartela lortuta, eta Zornotzaren garaipenari esker, Natra Oñatik lider bukatuko du denboraldia. Hori bai, EHU Arabaren kontra itxura eskasa eman zuen taldeak Zubikoan. Gasteizen jokatu beharreko partidua Oñatin jokatu zuten. Bada, aukera paregabea zuten igoerarako txartela zaleekin ospatzeko. Baina gidoian aurreikusitako guztia hankaz gora ipini zuen Baskoniaren filialak. Oñatiarrak estu hartu zituzten, erasoan eta defentsan. Azpimarragarria Bordignon, Malmanis eta Diopen lana. Itzela, erasoan eta defentsan. Natra Oñatik bere aldetik, Ander Gartziaren hutsunea sumatu zuen.

**20 puntu atzetik**

Hasieratik agindu zuten arabarrek markagailuan. Dena den, lehen laurdena nahiko parekatua izan zen eta hiru puntuko abantaila lortu zuten: 17-14. Bigarrenetik aurrera, EHU izan zen hobea. Poliki abantaila handitzen joan zen eta atsedenera 11 puntuko aldearekin heldu zen: 33-22.

Hirugarren tartean, asko nahastu zen jokoa. Arabarrak sendo zeuden jaurtitzeko leku guztietatik, eta fin, hiruko saskiratzeetan. Epaileek legez kontrako falta batzuk adierazi zituzten, eta horrek kalte egin zien oñatiarrei. Behin eta berriz eskatu zizkien azalpenak epaileei, eta urduri ipini ziren.

Azken tartearen hasieran 51-39 zeuden aurretik arabarrak. Oñatiarrak ahalegindu ziren errenta murrizten, baina kontrako efektua lortu zuten: lau minuturen faltan 20 puntuko aldearekin, erabakita utzi zuen partidua EHU Arabak. Natrak, denboraldiko bigarren porrot zabalena jaso zuen Zubikoan.

**IMANOL ZEZIAGA**
NATRAKO JOKALARIA

### "Eurak izan dira gu baino hobeak, hasieratik bukaerara arte"



M.B.

Buru-makur zegoen Zeziaga partidu bukaeran.

**Liga erabakita uzteko aukera galdu duzue?**

Bai. Hasieratik menderatu dute partidua. Guk gaizki jokatu dugu. Akaso gehiegi nabaritu dugu Ander Gartziaren hutsunea. Kontuan hartu behar da, EHUko jokalariak Baskoniaren etorkizuneko jokalariak izango direla.

**Igoerarako txartela lortuta, akaso erlaxatu egin zarete gaurkoan?**

Ez dut uste. Partidu txarra jokatu dugu, beste barik. Hurrengo astean beste aukera bat daukagu, berriro etxean, zaleen aurrean.

**Igoera fasean pentsatzen?**

Ez. Liga bukatu eta gero hasiko gara horretan pentsatzen.



IMANOL SORIANO

SASKIBALOIA

## MUk aise irabazi zuen: 87-68

Mondragon Unibertsitateak arazo barik irabazi zuen Autocares Artiedaren kontrako norgehiagoka. Josu Larreategiren taldeak hasieratik bukaera arte menderatu zuen partidua, eta apurka-apurka abantaila handitu zuen. Hurrengo asteko kontrarioa gogorragoa izango da: eurek baino bi puntu gehiago dituen Bide Bide Donostiaren kontra jokatu beharko dute, Donostian.

ESKUBALOIA

# Azken partidua irabazita, Ford Mugarri txapeldun

## Urdulizen kontrako lehian lesio larria izan zuen Jorge Santos, Arrasateko taldeko jokalariak

M.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik liga irabazteko beharrezko garaipena lortu zuen atzo Urdulizen: 24-28. Baina, partiduak utzitako ondorioak askoz latzagoak dira: Jorge Santos jokalariak lesio larria izan zuen belaunean. Igoera fasea galduko duela esan zigun Pablo Gartzia entrenatzaileak: "Partidua ikaragarria izan da. Oso gogorra. Emaitza oso ona da, baina jokalari garrantzitsu bat galdu dugu igoera faserako".

**Atezainaren lana**

Joko gogorrarekin irten ziren kantxara Urdulizko jokalariak. Txapeldun izatea zegoen jokoan: Ford Mugarri edo Askartza. "Zikin" jokatu zuten bizkaitarrek, eta "epaileek ez dituzte jokaldiak moztu". Hori horrela, partidu parekatua izan zen.

Lehia bukatzeko zortzi minuturen faltan, kostata, lau goleko errenta hartu zuten arrasatearrek. Aipagarria da Urdulizko atezainaren lana: lau kontraeraso geratu zizkion Ford Mugarriri. Azken minutuetan, eta abantailarekin, jokaldi luzeak egin eta errenta mantentzea lortu zuten.

**Igoera fasea maiatzean**

Liga txapelketa bukatuta, igoera fasean sartuko dira buru-belarri arrasatearrak. Gaur hasiko dituzte entrenamenduak. Asteon –bihar edo etzi– jakingo dute igoera non jokatuko den. Oraingoz dakitena da maiatzaren 10etik 12ra arteko asteburuan izango dela.



Ford Mugarriko jokalariak Urdulizen. | KEPA ISASMENDI

ATLETISMOA

# Istar Dapena arrasatearrak gazte mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi du

## Mojategiko atletismo pistetan, txapelketak eta proba irekiak jokatu zituzten zapatu arratsaldean



Ruben Garrastazu, hiruko saltoa egiten. | IMANOL SORIANO



Iñigo Uribarren arrasatearra, saltoaren hasieran. | IMANOL SORIANO



Parte-hartzaile bat, pisua jaurtitzeko beroketak egiten. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Etorkizuneko atleten bilgunea izan zen Mojategi zapatuan. Kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketak, eta markak eta denborak hobetzeko proba libreak jokatu zituzten. Eta lortutako emaitzak aintzat hartuta, garbi dago, Arrasateko Istar Dapena, Jonathan Perezen ondorengoa izango dela. Realeko kide den pertika jauzilariak 4,40ko saltoarekin gazte mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. 4,52 metrorekin ere ahalegindu zen, baina kale egin zuen hiru saltoetan.

Aipagarria da baita ere, txapelketa ofizialean ez lehiatu arren, Iñigo Uribarren arrasatearrak lortutako marka. Hiruko saltoan bere marka pertsonala ondu zuen zapatuan: 15,49ko saltoa egin zuen Realeko ordezkariak.

### Beste debagoiendar batzuk

Gipuzkoako txapelketak izateaz gain, sarrera libreko hainbat proba ere jokatu zituzten. Hori horrela, giro polita egon zen Mojategin. Euren markak hobetu eta Espainiako txapelketarako txartela lortu gura zuten atletek, harrobikoekin, etorkizunekoekin partekatu zuten arratsaldea.

Eta etorkizuneko atleta horietan daude Arrasateko eta Aloña Mendiko ordezkariak. Urtean zehar egindako lana erakutsi ahal izan zuten, emaitzak oso bestelakoak izan arren.

Adibidez, Martin Berrizbeitia arrasatearrak 3.000 metroko proba irabazi zuen 9.22,73ko denborarekin. Distantzia bereko emakumeen proban Marisol Ramos beteranoa izan zen azkarrena 11.11,00ko denborarekin. Proba berean hirugarren lekuan sailkatu zen Sara Gomez oñatiarra (11.58,20). Azkenaldian izandako bilakaera ikusgarria erakutsi zuen Gomezek.

Bestalde, 400 metroko proban parte hartu zuten Aloñako Juan Luis Reyes, Joel Reyes eta Francisco Javier Gomez. Azken horrek 100 metrokoan ere lehiatu zuen.

Azkenik, Eider Luengo arrasatearrak 100 metroko proba korritu zuen, eta Nerea Goñik eta Ainara Merinok, horiek ere arrasatearrak, 300 metrokoan.

### Naroa Agirre ez zen egon

Antolatzaileek Naroa Agirreren parte-hartzea espero zuten. Pertika-jauzilaria zuzenean ikusteko aukera barik geratu ziren Mojategira hurbildutakoak. Ez zuen proban parte hartu.



Emakumeen kedadan parte hartu zuten bergararrak. | JOSETXO ARANTZABAL

ZIKLISMOA

# Bizikletan taldean ibiltzeko ohitura indartzeko asmoz

## Bizikleta jardunaldien baitan, emakumeek 'kdd' bat egin zuten Bergaratik Urkulura

M.B. | BERGARA

Bergaran egiten diharduten Bizikleta Jardunaldien baitan kokatzen da, atzo, domeka, 25 emakumek egindakoa: bizikletan ibiltzeko kdd bat egin zuten. Basque Adventurek antolatuta Agorrosinetik Urkulura arteko bidea egin zuten bizikletan. "Geroz eta emakume gehiago dabil bizikletan. Batzuk bakarrik ibiltzen dira eta beste batzuk mutilekin. Emakumeak elkartu eta bizikleta irteerak antolatzeko asmoz elkartu gara", esan zigu Basque Adventure enpresako Vikik. 30 kilometroko ibilaldia egin zuten. Bergara, Oñati, Mallabia, Tolosa eta Legazpiko ziklistak Zubillagan elkartu ziren, eta handik Urkulura arteko bidea eta itzulerakoa egin zuten elkarrekin.

### Informaziorako foroa

Antolatzaileak pozik zeuden kdd-k izandako erantzunarekin. Emakume nagusienak 60 urte zituen eta gazteenak amaren bizikletan egin zuen ibilaldia. Erantzuna ikusita, foro bat sortzekotan geratu ziren, *www. basqueadventure.com* atarian. Euren asmoa da, hilero irteera bat antolatu eta non nahi antolatzen diren bizikleta martxatan parte hartzea. "Gure arteko komunikaziorako bidea ipiniko dugu: informazioa partekatzeko, aholkuak emateko, ibilbideak zehazteko, deialdiak egiteko... Oso gustura egin dugu ibilaldia. Aurrera pauso bat eman dugu. Zailtasun ezberdinetako irteerak antolatuko ditugu, norberak duen mailaren arabera aukeratzeko", esan ziguten.




IMANOL SORIANO

ZIKLISMOA

# Bizikleta tailer arrakastatsua

Egubakoitzean, Ibarra kiroldegian egindako bizikleta tailerra arrakastatsua izan zen. Kepa Zelaia, Alberto Garai, Markel Irizar eta Emaitz Izagirreren berbaldian herritar asko batu zen. Ondoren, kirol entrenamendu bi egin zituzten: Irizarrekin areto-bizikletako entrenamendu espezifikoa eta zikloturistendako fitnes entrenamendua.

ATLETISMOA

Gaizka Romero | Atleta

# "Elite mailakoekin lehiatu ahal izateko, haiek beste entrenamendu saio egin behar dira"

- Gaizka Romero arrasatearra Tolosa atletismo taldeak fitxatu du
- Begiz jota dauka aurtengo Behobia-Donostia; 1.05.00 egin gura du

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Gaizka Romero (Arrasate, 1984) Tolosa atletismo taldeko fitxaketa berria da. Hiru aste darama elastiko berriarekin. Denboraldian egindako lanaren eta lortutako emaitzen saria jaso du arrasatearrak. Romeroren hurrengo erronka Behobia-Donostia izango da. Egungo egoeraz, etorkizunaz eta Bostongo atentatuez berba egin dugu.

**Tolosa atletismo taldeko kide berria zaitugu. Aldaketa nabarmena.**

Zortzi urte daramat korrika egiten. Urte batzuetan Oñatiko Antxintxiketan taldearekin ibili nintzen, baina aspaldian bakarrik ibili naiz. Orain, Tolosa taldeko kidea naiz.

**Maila galdu berri duen punta-puntako taldea da Tolosakoa.**

Atletismoaren lehenengo mailan egon den taldea da. Donostian jokatutako azken txapelketan ez genuen behar besteko punturik lortu, eta maila galdu dugu. Hurrengo denboraldian bigarren mailan egongo gara. Dena den, elkartearen asmoa da atleta indartsuekin taldea sendotzea.

**Azken urte eta erdian egindako lanarengatik eta lortutako emaitzengatik fitxatu zaitu Tolosak.**

Bai, hala da. 18 bat hilabete daramat maila onean. Lan handia egin dut eta orain hasi naiz emaitzak jasotzen. Tolosako taldeak bazuen nire lanaren berri, eta elkarren arteko lagun min bati esker fitxatu ninduten.

**Ze onura izan ditzake talde bateko kide izateak?**

Kasu honetan, asko. Tolosa atletismo taldeko kidea naiz, eta eurekin hainbat lasterketa egingo ditut. Bestelakoan, ez didate baldintzarik ipini. Neronek aukeratuko ditut lasterketak, eta entrenamenduak Arrasaten egin ahal izango ditut. Oraingoz, abantaila asko dituela esango nuke.

**Zeintzuk dira lortutako emaitza aipagarrienak?**

Ilusio berezia egin zidan Santamasetako krosa, etxean, Arrasaten irabazteak. Gainera, Lasarten eta Amurrion hirugarren bukatu nuen eta Gasteizko herri krosan laugarren izan nintzen. Orain dela bi aste bukaera Madrilgo maratoi erdian egon nintzen eta 41. lekuan heldu nintzen helmugara. Bestalde, aurreko astean, Donostian, hirugarrena izan nintzen.

**Zortzi urtean korrika egin ondoren, orain hasi zara emaitzak jasotzen. Unerik onenean zaude?**

Bai, duda barik, une gozoa bizi dut. Zortzi urtean egindako lanaren emaitzak orain agertu dira. Atletismoak bilakaera eskatzen du, eta nirea gertatu da.

Aurten, maila handiko korrikalariek parte hartzen duten lasterketen aldeko apustua egin dugu. Horietan podiumera igotzea bereziki baloratzen da. Zaila da 20.000 pertsonaren artean hirugarren edo laugarren lekuan sailkatzea. Gu bide horretan gabiltza lanean.



Gaizka Romero korrika Monterronen. | ARITZ GORDO

**"Ilusio berezia egin zidan iazko Santamasetako krosa irabaztea"**

**"Zortzi urte daramat korrika eta orain hasi naiz emaitzak jasotzen"**

**Bereziki azken bi urteetan izan duzun aldaketa horretan zeresan handia dauka Iker Sarabiak.**

Bai. [Barre] Bi urte daramagu elkarrekin. Hark antolatzen dizkit entrenamendu saioak, eta izan dudan bilakaera ikusgarria izan da. Abiadura asko landu eta hobetu dugu. Gozamena da harekin lan egitea. Gainera, atleta moduan izan dudan bilakaera pertsona moduan ere izan dudala esango nuke.

**Bereziki 10 kilometroko probetan parte hartzen duzu.**

Distantzia horretan sentitzen naiz erosoen. Entrenamenduak distantzia horretara bideratzen ditut. Hala ere, Madrilgo maratoi erdian egindako lanarekin pozik nago. Baina 21 kilometroko probetan abiadura asko moteltzen da, halabeharrez, eta niretako abiadura hobetzea da inportanteena.

**Badaukazu maratoietan edo pistan probatzeko gogorik?**

Oraingoz, ez daukat maratoietan parte hartzeko asmorik. Entrenamenduak eginda fisikoki bukatzeko gai izango nintzatekeela uste dut, baina psikologikoki egon behar da indartsu halako probetan parte hartzeko. Akaso, urte batzuk barru probatuko dut, baina orain ez. Aldiz, pistan korritzea gustatzen zait. Oñatiko Antxintxiketan taldeko kide nintzela parte hartu nuen Gipuzkoako Txapelketan. 1.500 metroko proban laugarrena izan nintzen. Pistako probak erabiliko ditut abiadura hobetzeko.

**"Psikologikoki indartsua izan behar duzu maratoi bat bukatzeko"**

**"Psikosi izugarria eragingo dute Bostongo maratoiko atentatuek"**

**Egunero entrenatzen zara?**

Bai, egunero. Egiten duen eguraldia egiten duela, entrenatu beharra daukat. Elite mailan dauden atletekin lehiatu gura duenak eurek besteko entrenamendu saioak egin behar ditu. Agian, ez zara atletismoak emandakoarekin bizi izango, baina exijentzia maila berbera dago: elikadura zaindu beharra, parrandarik ez egitea...

**Gustuko lekuan, aldaparik ez.**

Bai. Zorionez, diziplinatua naiz, eta ondo bateratzen ditut lana, entrenamenduak, lagunak, etxekoak...

**Begiz jota daukazu aurtengo Behobia-Donostia. Zergatik?**

Azken bi urteotan denbora hobetu dut, eta, prestaketa sakonarekin, aurten, 1.05.00 egin ahal dudala uste dut. Madrilgo maratoi erdiaren profil antzekoa dauka Behobiak. Egia da, baita ere, ibilbidea oso konplikatua dela, baina prestaketa egokiarekin helburua betetzea espero dut.

**Behobiako izen-emate epea aurreko astean zabaldu zuten.**

Oraindik ez dute izenik eman, baina Behobiako irteeran egongo naiz, ziur.

**Nola hartu duzu Bostongo maratoiko atentatua?**

Irudiak gogoratuta, oilo-ipurdia ipintzen zait. Oso gogorra da. Ez dut ulertzen zer lortu gura duten halako ekintzekin.

Gainera, eztandak programatu zituenak bazekien noiz egin: helmugara korrikalari gehien heltzen ari ziren unean. Proba hasi eta lau ordura.

**Bostongo maratoiaren ondotik egingo dituzte Madrilgoa eta Londreskoa. Segurtasun neurriak handitu egingo dituzte.**

Irailaren 11ko atentatuek, kalte pertsonal eta material handia eragiteaz gain, psikosi izugarria eragin zuten: aireportuetan, ekitaldi inportanteak zeuden lekuetan... Bostongo atentatuek gauza bera eragingo dute. Antolatzaileak, korrikalariak, senitartekoak... guztiak egongo dira urduri, Madrilen eta Londresen. Ikusiko dugu zenbaterainoko eragina duen milaka korrikalari batzen dituen lasterketetan.

# Lehen urteetan gerora sekula izango ez duten potentzial intelektuala dute haurrek

Jabier Agirre pediatrak gaitasun hori estimulatzeko gomendioak egiten ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Haurrek ikaragarrizko gaitasuna dute ezagutza berriak asimilatzeko", dio Jabier Agirre pediatrak. "Eta berezko gaitasun hori txikitatik estimulatuz gero, hurrengo urteetan ager daitezkeen hainbat arazo —eskola-porrota, gatazka emozionalak edo ikasketetarako motibazio-falta, nagusienak aipatzearren— saihestu edo arintzea lortuko dugu". Adituak dio batez ere lehenengo sei urteetan bizitzan gerora sekula edukiko ez duten potentzial intelektuala daukatela umeek: "Bizitzaren aurreneko urteetan gertatzen da garunaren hazkunderik handiena. Beraz, garai honetan haurrak jasotzen dituen estimuluek garrantzi izugarria dute". Bide horretan aipatzen du bereziki musikaren, jolasaren eta maitasunaren indarra. Txikitan eragin handia dute masajeek, sehaska-kantuek, eta zaratadun jostailuek. Lehen hilabete horietan zentzumenak estimulatzeko gomendioa egiten du Agirrek.



Haurrak gurasoarekin parkean jolasten. | JULIEN HALER

### Irten etxetik

Haurra koxkortzen denean ekintza eremua zabaltzeko aholkua ematen du Agirrek. Asko hitzegin eta etengabe galderak egiteko garaia dela ere badio. Nahiz eta batzuetan nekagarria gertatu umearen jakin-min hori baliatzea merezi duela dio pediatrak, batez ere, inguruko munduari buruzko informazio egokia eskaintzeko. "Eramazu antzerkira, erakusketak ikustera, beretzat interesgarriak izan daitezkeela uste duzun heinean. Anima ezazu umea bere bizipenak, bere gustuko gauzak kontatzera, eta bere sentimenduak adieraztera, umearen posibilitateen arabera beti, baina hitzak erabiliz". Adimenaren etapak eta jostailuen egokiera ere azaltzen ditu artikuluan.

# Prebentzio kanpainen eragina nabaria da gazteen alkohol kontsumoan

Aditu baten esanetan, gazte bakoitzak drogekin eraikitzen duen harremanean dago gakoa

L.Z. | ARRASATE

Udal Prebentzio Sailak antolatuta, nerabeak dituzten gurasoendako bost saio gidatu ditu Agipad elkarteko Patricia Martin psikologoak Arrasaten. Agipad elkartea ikerketa eta drogen abusuaren prebentziorako Gipuzkoako elkartea da, eta, esku artean dituzten datuen arabera, gazteak 13-14 urterekin hasi ohi dira alkohola kontsumitzen. "Ezin dira nerabe guztiak poltsa berean sartu", argitu du Martinek: "Baina, orokorrean, taldean edaten dute, guk egiten dugun moduan". Prebentzio kanpainekin adin hori atzeratzea lortzen ari direla esan du Martinek.

Psikologoak azaldu duenez, hasieran diruak ematen duena edaten dute nerabeek, eta, aukeran, edari gozoak. Izan ere, geroxeago etortzen dira garagardoa eta kalimotxoa. Agipad elkarteak ikastetxeetan ere egiten ditu prebentzio kanpainak, eta, bertan gazteei entzuten dietenaren arabera, hasieran egun puntualetan edaten dute alkohola: herriko jaietan, festa handietan... Gero, 16-17 urteren bueltan hasten dira maiztasun handiagoarekin edaten.

Beste droga batzuen kontsumoaren inguruan, Martinek adierazi du ez dagoela harremanik alkoholaren kontsumoaren eta beste droga batzuen kontsumoaren artean.Hori ere pertsonaren arabera dela esan du. Kalamuaren kontsumoa aipatu du Agipadeko kideak, eta adierazi du: "Drogekin gazte bakoitzak eraikitzen duen harremanean dago gakoa".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

# Judoa, kirola baino zerbait gehiago

**Markel Urrutia**
TAFYDeko ikaslea

Hasteko, kirol honen aurkezpena egitea izango da onena. Judoa XIX. mendean Japonian sortutako kirola da. Jigoro Kano izan zen sortzailea, eta haren helburua zen jiu-jitsua —Japoniako borroka arte zaharrena, gerrarako erabilia— berritzea eta bertatik abiatuta unibertsitatean praktikatzeko moduko kirol bat sortzea.

Esan eta egin. Kirol berri bat sortzeaz gain, 1964. urteaz geroztik judoa kirol olinpikoa ere bada. Hala, gaur egun Olinpiar Jokoetan judoaz gozatzeko aukera dugu, eta horrek aukera ematen digu munduko judoka onenak elkarren arteko lehian ikusteko.

### Ezaugarri bereziak

Segurtasunez praktikatu ahal izateko, judoa tatami izeneko esparru baten gainean egiten da. Tatamia koltxoneta berezi bat da, erorketek sortzen dituzten talkak leundu eta kirolarien segurtasuna bermatzen duena.

Judokek, bestalde, judogi izeneko janzkera berezi bat daramate soinean; janzkera horrek desorekak sortzeko tirakadak jasaten ditu. Judogiek, gainera, txapelketetan borrokalariak bata bestearengandik ezberdintzeko balio dute: judoka batek judogi urdina darama eta besteak, zuria.

### Motrizitatea

Aspektu fisiko eta teknikoaz gain, judoak alderdi emozionalak eta intelektualak ere lantzen ditu, gizabanakoa osotasunean landuta. Beste alde batetik, badu berezitasun nabarmen bat beste borroka arte edo borroka kirolekiko: kirol olinpikoa izateaz gain, judoan egiten den lana plano bertikalean zein horizontalean egiten da; hots, zutik hasi eta lurrean jarrai daiteke. Horrek judoken motrizitatea askoz gehiago lantzea ahalbideratzen du.

**Judoa kirol olinpikoa da, eta etengabeko ikaste prozesua**

### Bizi izateko era bat

Judoa alderdi sozializatzaile zabala duen kirol hezitzailea ere bada; izan ere, hainbat balio edo jokabide hobetzen laguntzen du. Besteak beste, kideekiko errespetua eta autokontrola, diziplina, norbanakoarenganako konfiantza, etengabeko gainditzea, talde lanean aritzea, afektibitatearen adierazpena eta autoestimua...

Horregatik guztiagatik, praktikatzen dugunondako judoa kirol bat baino zerbait gehiago da. Sentiarazten digunagatik eta judoaren bidaia etengabeko ikaste prozesu bat delako pentsatzera eramaten gaitu judoa bizi izateko era bat dela, pertsona hobea izatera eramaten gaituen bizi izateko era bat, alegia.



Judoka talde bat. | ARIZMENDI

### Zer egin borrokaldia irabazteko?

Judoaren helburua da aurkaria lurrera botatzea, eta erorketa horretan aurkariaren bizkarrak lurraren kontra kontaktu egitea. Mugimendu horri judokek *ippon* esaten diote. Gerta daiteke aurkaria lurrera botatzea, baina erorketa horretan lurrarekin kontaktua alboz, ipurdiz edo buruz behera izatea. Kasu horietan, borrokak jarraitu egiten du lurrean, eta lurreko borroka horretan helburua da aurkaria 25 segundoko tartean ahoz gora immobilizatuta edukitzea. Borrokaldia irabaz daiteke, baita ere, aurkariak lehia bertan behera uztea erabakitzen badu.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**
arizmendi ikastola PRO

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak



## Eraman ezazu beti txartela aldean!



### Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara
- %10 deskontua artikulu guztietan.

### Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati
- Arropetan %10 beherapena.

### Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta
- %15 zerbitzu guztietan.

### Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza
- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

### Jaixak
Bidekurutzeta 7 - Bergara
- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.

### Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate
- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

### Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta
- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

### Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati
- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

### Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

### Gaes
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara
- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Multiopticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea – Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara
- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Arrikrutz Kobak
Araotz Auzoa - Oñati
- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

### Imprespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara
- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

### Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza
- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

### AQUARIUM
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

### Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati
- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

### Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate
- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.

### Caravanas Oñate
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati
- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

### Guztiz Eder
Kalebarria 29
Oñati
- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.

### Lilura Edertze Institutua
Bidekurutzeta 7 - Bergara
- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### Argia
www.argia.com
- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.

### Txuri Urdin izotz pista
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

### Lastai
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz
- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



## Beste abantaila batzuk:
- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

KULTURA

# Trikitiaren gurpilak jarrai dezala urte askoan bira eta bira Debagoienean

## Debagoieneko Trikiti Egunaren bederatzigarren edizioa ospatu zen zapatuan Elgetan

ARRITXU BARRUSO | ELGETA

Trikitia osasuntsu baino osasuntsuago dagoela argi ikusi ahal izan zen zapatuan Elgetan. Benetan pozgarria da ikustea gure nortasunaren eta kulturaren ikurretako bat bilakatu den trikitiak etorkizun hurbila behintzat, oparo baino oparoagoa duela. 300 lagundik gora elkartu ziren zapatuan trikitiaren bueltan Elgetan. Egun garrantzitsua zen guztiendako: Debagoieneko Trikiti Egunaren bederatzigarren edizioa.

11:00etan hasi zuten egun handia. Ongietorriaren ostean hamaiketakoa egin eta kalejiran ibili ziren hara eta hona. 13:00etan gero, Elgetako plazan elkartu ziren guztiak eta trikiti eskola ezberdinetako ikasleak taula gainera igo ziren. Neska-mutiko gazte asko ikusi ahal izan ziren tartean eta jotako piezak ere estilo askotarikoak izan ziren. Modu horretara argi geratu zen etorkizuna ziurtatuta edukitzeaz gain, trikitiak badakiela garai berrietara egokitzen. Azpimarratzekoa Arrasateko taldearen emanaldia; taula-gaina bete egin zuten. Talde izugarri handia ziren. Trikiti doinuak, kaxa flamenkoarekin, neska-mutikoen kantu eta txaloekin nahastuta eta irrintzi doinu artean sekulako giroa ipini zuten Elgetako plazan.




Oñatiko trikitilari eskolako lagunak zapatu eguerdian Elgetako plazan egindako ekitaldian. | IMANOL SORIANO

### Arrasatera testigua

Bada, hain justu ere, Arrasateko trikiti eskolako lagunek erronka handia daukate datorren urtean. Eurak izango dira Debagoieneko X. Trikiti Eguna antolatuko dutenak eta horixe irudikatu zuten zapatu eguerdiko ekitaldiaren amaieran. Elgetako ordezkariek testigua eman zieten Arrasateko ordezkariei. Hain justu ere, 1981ean Elgetako trikiti eskolan izena eman zuen lehen ikasleak eman zien testigua arrasatearrei. "Pozik hartzen dugu testigua. Gaurko egunaren ostean ziklo bat ixten delako eta Arrasaten berria hasiko dugulako. *Trikitiaren gurpilak jarrai dezala biraka* zioen kantuarekin amaitu zuten ekitaldia eta abestiak txalo zaparrada jaso zuen.



Elgetako trikitilaria arrasatearrei testigua ematen. | IMANOL SORIANO

### 350 lagun bazkaltzera

Elgetako kiroldegian 350 lagun elkartu ziren bazkaltzera eta tripa bete ostean parrandak herriko plazan jarraitu zuen eMePebo5t taldearen erromeriarekin. Arrasateko Trikiti Eskolako kideek esan zuten moduan, jarraitu dezala bai, trikitiaren gurpilak urte askotarako bira eta bira Debagoienean.

## 'Elgeta' edo 'Intxuzabal', trikitiaren jatorriaren eta garapenaren pieza klabea

Jende askok uste duenaren kontra, soinua ez da Euskal Herriko instrumentua, eta trikitiak ez daramatza urte gehiegi gure artean. Oraindik ez dago argi soinua nola iritsi zen Euskal Herrira. Batzuk uste dute Norteko Ferrokarrilaren ondorioz iritsi zela eta beste batzuk ordea, Bilboko portutik sartu zela. Kontua da XIX. mendean iritsi zela gure lurretara soinua eta Jazinto Rivas *Elgeta* bezalako gizonei esker, gure kulturako musika tresna garrantzitsuenetarikoa bilakatu da. Horri horrela, Elgetan ospatutako Trikiti Egunean gogoan izan zuten Jazinto Rivasen lana.

**_Elgeta_ izan zen lehenengo trikitilari profesionala.**

Jazinto Rivas 1905ean jaio zen, baina amak Donostiako umezurtz-etxean utzi zuen jaio eta hamabost egunera. Elgetako Intxuzabal baserriko familiak adoptatu zuen eta horregatik *Elgeta* edo *Intxuzabal* izenez egin zen ezagun. Adopzio familiarekin ere ez zuen harreman onik egin eta oso gazte Eibarrera joan zen bizi izatera. Herriko musika bandako zenbait kide ezagutu zituen eta orduan aberastu zuen bere soinu errepertorioa. Txistua, alboka edo dultzaina moduko instrumentuen errepertorioa soinura egokitzeaz gain, beste herrialde batzuetatik iritsitako doinuak ere gehitu zituen *Elgeta*-k soinuaren errepertoriora, hala nola, pasodobleak, tangoak, balsak eta rumbak... Adituen esanetan bera izan zen historiako lehenengo trikitilari profesionala: "Baserriz baserri trikiti eskolak ematen zituen diru gutxiren truke. Laja, Martin edo Tapia moduko trikitilarien irakasle izan zen. Horiek bigarren belaunaldia izan ziren", kontatu digu Elgetako trikiti eskolako irakasle Adolfo Jainagak. Jainaga bera hirugarren belaunaldia litzateke. "Gaur egun, laugarren belaunaldia ari da prestatzen han eta hemengo trikiti eskoletan".

Bestetik, esan behar da, egun ezagutzen dugun soinua ere *Intxuzbal*-i zor zaiola. *Elgeta*-k erantsi zizkion bi botoi lehendik zegoen soinu txikiari. Modu horretan, eskuineko eskuan 21 botoi izatetik 23 izatera pasatu zen.

Hala moduzko bizitza izan ostean, 59 urterekin, bakardadean hil zen Jazinto Rivas, Donostiako Zorroaga egoitzan. Xoxik barik hil zenez, bizitza osoan lagun izan zuen Florentino-Guerrini markako trikiti-soinua bakarrik utzi zuen ondorengoendako. Dena den, hori baino askoz garrantzitsuagoa izan zen ondorengoendako utzi zuen soinuarendako errepertorio aberatsa.



Jacinto Rivas, *Elgeta*. | TXOKOMUSIKALA

# 'Prozaka.eus' medikamentu berriaren eraginkortasuna argi geratu zen Aretxabaletan

▶ Euskaldunen eskizofrenia elebidunaren aurkako medikamentua aurkeztu zuten zapatuan

▶ Kepa Errastik eta Oihan Vegak goraino bete zuten Arkupe aretoa egindako hiru emanaldietan

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Terapia esperimental berri bat ikusteko aukera izan zuten zapatu arratsaldean Aretxabaletako Arkupe aretora hurbildu zirenek. *Prozaka.eus* antzezlana estreinatu zuten Kepa Errastik eta Oihan Vegak eta estreinaldiaren arrakasta ukaezina izan zen. Alde batetik, eskaini zituzten hiru emanaldietan aretoa bete egin zuten eta bestetik, hasieratik publikoarekin konplizitatea lortu zuten.

Ikuskizuna aulki huts batekin hasi zen. Hainbat filmetan ikusi ditugun psikiatriko ilun eta beldurgarrietako eszena memoriara ekarriz. Aulkiak paziente bat behar zuen, eta Oihan Vegak interpretaturiko doktore eroak, Kepa Errasti aukeratu eta terapia soziolinguistikoari hasiera eman zion.

Aretxabaletarrak euskaraz bizitzeko gai diren frogatzea



Oihan Vega doktorea eta Kepa Errasti pazientea. | IMANOL SORIANO

izan zen esperimentuaren helburua, eta horretarako Prozaka.eus medikamendua frogatu zuten lehenengoz pertsona batean. Pilula berriak emaitza onak lortu zituen linguistika aldetik, baina pazientea psikikoki kolokan utzi zuela argi geratu zen. Hala ere, arrakastatsua izan zen Oihan Vega doktoreak asmatu berri duen pilula.

**Herria protagonista**

Antzerkia, dokumental batekin eta egunerokotasunean euskararen erabileran izaten diren arazoak aztergai zituzten esketx batzuekin tartekatu zuten. Bertako protagonistak aretxabaletarrak izan ziren, eta horri esker, publikoarekin lotura berehalakoa izan zen. Bai protagonistek, baita ikusleek ere oso irribarretsu amaitu zuten estreinaldia. Hurrengoaren zain geratu behar, hortaz.

**KEPA ERRASTI**
AKTOREA

## "Hasieran urduri geunden, baina sentsazio onak lortu ditugu"



I.S.

Aretxabaletarrak etxean estreinatu zuen lan berria eta pozik amaitu zuen.

**Gustura ibili zarete gaurkoan?**

Bai, oso gustura. Egia esan urduri xamar geunden, pasa den astean bakarrik entseatu genuelako batera, baina pixkanaka sentsazio onak lortu eta oso pozik amaitu dugu.

**Zelakoa izan da erantzuna?**

Oso ona, hiru emanaldietan bete da aretoa eta ikusleek hasieratik parte hartu dute.

**Nahi zenutena transmititzea lortu duzue?**

Orain arte hitz egin dugunekin baietz esan digute, egoera era orijinalean jorratzeko formatua dela esan digute.



**MARTIN ANTXIA**
IKUSLEA

"Benetan asko gustatu zait, aurreko urtekoaren eboluzioa izan dela uste dut. Gaurkoa kritikoagoa izan da, eta nahikoa gabezia ditugula ikusten da. Nire ustez kontzientzia hartzeko ondo dago, errealitatea ondo islatzen du eta".



**IBAI ZANGITU**
IKUSLEA ETA AKTOREA

"Ikusteko gogo handia neukan eta gustatu zait. Estreinaldia izanik egin dugun lana bertatik bertara ikusteko gogotsu geunden, eta emaitza polita izan da. Egia esan ordutxo batzuk eman genituen lanean, baina merezi izan du".



**RESU ABASOLO**
ANTOLATZAILEA

"Estreinaldi oso ona izan da. Aretxabaletarrek oso ondo erantzun dute eta ikuskizunaren parte aktibo izan dira. Hiru emanaldiak bete dira eta jendea kanpoan geratu da lekurik egongo den zain, eskerrik asko denoi".



**NATI ABASOLO, MAITE OIANGUREN ETA MILA ABASOLO**
IKUSLEAK

"Antzerki polita, entretenigarria iruditu zaigu, hala ere, oraindik ez dira egi guztiak esan. Euskararen erabileraren inguruan oraindik ere beste hainbat gauza daudela uste dugu, errealitatea antzerkian aurkezten dena baino gogorragoa da. Beste guztiei gauza asko eskatzen diegu, baina guk geuk lan handia dugu egiteko. Ikuskizuna ez da izugarrizko kalitatekoa, baina entretenigarria izan da. Pilula existituko balitz, euskaldunontzako izan beharko litzateke, denok gehiago hitz egin dezagun".

# Kantu gregorianoek ireki zuten barikuan Arrasateko Udaberriko IX. Musikaldia

Eguenean, gala lirikoa egongo da, zarzuela eta opera entzuteko aukerarekin



Gasteizko Schola Gregoriana Cantus Planus Arrasateko parrokian. | IMANOL SORIANO

M.B. | ARRASATE

Kantu gregorianoek ireki dute Arrasateko Udaberriko IX. Musikaldia. Gasteizko Schola Gregoriana Cantus Planus taldeak egin zuen emanaldia parrokian, eta bertaratutakoek gustura entzun zituzten taldearen doinu sakroak, halakoak entzuteko aukera ez da maiz izaten-eta.

Bi meza abestu zituzten Antxon Leteren zuzendaritzapean. Lete eskarmentu handiko gizona da gregorianoari dagokionez: Montserrateko beneditarrekin eta Gasteizko apaiztegian ikasitakoa da eta 50 urte dihardu gregorianoaren tradizioari eusten. Taldea bera ere luze ibilitakoa da eta hori nabaria izan zen kontzertuan.

**Eguenean gala lirikoa**

Udaberri programaren baitan, gala lirikoa eskainiko du Ozenki elkarteak Amaia antzokian eguenean, hilak 25, 20:00etan.

Opera eta zarzuelako abestiz osatutako errezitaldia izango da, eta izen handiko abeslariek hartuko dute parte. Hain zuzen, Amparo Navarro eta Ana Cadaval sopranoak eta Javier Agullo eta Andres Veramendi tenoreak igoko dira Amaiako eszenatokira. Horiekin batera, Josean Gartzia baritonoak eta Goikobalu abesbatzak ere hartu dute parte. Musika, berriz, Isabella Blezien Arrasateko Musikaleko irakasleak jarriko du pianoarekin.

Emanaldian barrena opera eta zarzuelako doinu ezagunak errepasatuko dituzte, Puccini, Verdi zein Sorozabalen konposizio ezagunak, hain zuzen ere.

Sarreren prezioa 15 eurokoa da eta *kutxa.net*-en zein Amaia antzokiko leihiatilan eskura daitezke.


Maratoian parte hartutako lagun guztiak elkarrekin. | JOSETXO ARANTZABAL


Ipuin-kontalarietako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

# Ahozkotasunaren magia eta edertasuna bihotzeraino

▸ 'I. Ahotik Bihotzera' ipuin maratoia egin zuten atzo Torresoroan

▸ Laudio, Errenteria eta Donostiatik ere etorri ziren ipuin-kontalariak

**ARRITXU BARRUSO** | ANTZUOLA

Virginia Imazek adibide esanguratsu batekin ireki zuen atzo, domeka, Antzuolako Torresoroan egindako *I. Ahotik Bihotzera* ipuin maratoia. "Afrikan diote adineko pertsona bat hiltzen denean liburutegi erraldoi bat desagertzen dela", azaldu zuen. Eta hala da. Poliki-poliki belaunaldi batetik aurrerako pertsonak desagertzearekin batera milaka istorio, erromantze eta pasadizo desagertzen ari dira. Horixe da, hain justu ere, Antzuolan egindako ipuin maratoiarekin ekidin nahi dena: "Ipuinak eta istorioak betidanik egon dira etxeetan eta gure herrietako plazetan. Ezinbestekoa dugu horiek guztiak lehenbailehen berreskuratzea", jarraitu zuen Oihulari Klowneko Imazek.

### Saio laburrak

Bederatzi istorio edo ipuinek osatu zuten Antzuolako maratoia, ume, gazte, zein helduek kontatuak. Gaua eta ilargia izan zuten hizpide ipuin batzuk, oihaneko erregea eta haren seme-alaben arteko gorabeherak beste batek eta Getarian balearen arrantzan senarra galdu zuen alargun zoroaren istorioa beste batek. Interesgarriak guztiak eta ezberdinak, noski, kontalari bakoitzak bere ukitu berezia ematen ziolako istorioari.

Eta ahozkotasunaz ari garela, ezin bertsolaririk falta. Antton Fernandez, Uxue Fernandez eta Nerea Elustondo bertsolariek ere istorio politak kontatu zituzten bertsotan.

### Lehenengoa baina ez azkena

Udaleko Kultura teknikari Jone Larrañaga oso pozik azaldu zen saioaren amaieran. "Oso ekitaldi polita izan da eta hurrengo urteetan ere errepikatzeko asmoarekin jaio den ekimena da. Oraindik jende askori lotsa ematen dio taula gainera igotzea, baina suposatzen dut urtetik urtera gero eta jende gehiago animatuko dela".

### Hurrengo domekan gehiago

Kontakizun gehiago entzuteko gogoarekin gelditu direnek hurrengo domekan, hilak 28, izango dute beste aukera bat. Karin Tscholl austriarrak *Historias del Tirol* izenburupean jardungo du. Kontakizuna gazteleraz izango da Torresoroan eta 19:00etan hasiko da.



**VIRGINIA IMAZ**
OIHULARI KLOWN

"Ipuinak, istorioak eta batez ere ipuinzaletasuna mantentzen ahalegintzeko konpromisoa daukat nire bizitzan eta horretan dihardut. Gaurkoa benetako plazerra izan da eta espero dut horrelako beste asko etortzea".



**JOSEBA IPARRAGIRRE**
IPUIN-KONTALARIA

"Lagun batek gonbidapena egin zidan, ez nuen ezetz esaten jakin eta hementxe bukatu dut taula gainean ipuina kontatzen. Betidanik gustatu izan zaizkit horrelako gauzak eta oso ideia polita iruditzen zait".



**ZAKI ETA GOIURI**
IPUIN-KONTALARIAK

"*La Noche* eta *La Noche Pefecta* ipuinak kontatu ditugu, biak ere ilargiarekin lotuta. Oso gustura egon gara maratoian eta gehien gustatu zaizkigunak Virginiaren eta Marisolen ipuinak izan dira".


Bi dantzari Oñatiko plazan. | IMANOL SORIANO

# Bailarako dantzariak kalera irten ziren zapatuan Oñatin

Eguraldiak lagunduta Dantzari Egun paregabea ospatu zuten Oñatiko kaleetan zehar

**J.D.** | OÑATI

Dantzari Eguna ospatu zen zapatuan Oñatin, eta bertara bailaran gaur egun bizirik jarraitzen duten dantza taldeak joan ziren. Eguraldia lagun zutela, Oñatiko kaleak eta plaza girotu zituzten dantzariek egun osoan zehar.

Arrasatetik, Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeak joan ziren, eta Antzuolako dantza taldeak eta Oñatikoak ere hartu zuten parte. Goizean kalejirarekin hasi ziren gerturatutako 160 dantzariak. Jaialdia 12:00etan hasi zuten plazan eta talde bakoitzak 10 minutuko dantza ezberdinak egin zituen. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako dantzak erakutsi zituzten plazako alardean eta jendea oso gustura egon zen.

### Bazkaria eta dantza gehiago

Eguerdian elkarrekin bazkaldu zuten Etxe-Aundin, eta ondoren, 18:30etan hasita Oñatiko plazan dantzan jarraitu zuten.

# Benito Lertxundiren kontzertua Bergaran

**M.B.** | BERGARA

Benito Lertxundi abeslari ezagunak kontzertua egingo du maiatzaren 4an Bergaran. *Oroimenaren oraina* lan berriko lanak aurkeztera etorriko da.

Orioko musikariak kaleratzen duen 17. lana da *Oroimenaren oraina* eta iazko maiatzean aurkeztu zuen. Hamar abestik osatzen dute eta horietan "giro intimista eta ilunabarrekoa gailentzen da" Lertxundiren beraren esanetan.

Kontzertua Udal pilotalekuan izango da, 21:00etan eta sarrerak Bergarako kultura etxean egongo dira eskuragarri, 20 eurotan.



Benito Lertxundi. | GOIENA



Mikel Urdangarinek bere azken laneko kantuak eskaini zituen Espaloiko taula gainean. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

# Urdangarin Elgetako Espaloian

**IMANOL BELOKI** | ELGETA

Elgetako Espaloian aurkeztu zuen barikuan Mikel Urdangarinek bere azken lana. Oso gertuko emanaldia izan zen eta jende dezente hurbildu zen bertara.

Aurretik, Urko Meneia gitarrista igo zen oholtzara kontzertuari hasiera emateko eta Nevadara eta San Frantziskora egin zituen bidaietako esperientzietan oinarriturako abestiak eskaini zituen.

### Disko berria

*Azula* diskoa aurkeztu zuen Urdangarin bizkaitarrak, Angel Celada bateria-jotzailearekin eta Koldo Uriarte teklistarekin batera. Unai Iturriagaren hitzekin sortutako kantuak batu ditu Urdangarinek lan honetan eta Durangoko bertsolariaren bertsokera estiloa abestietan txertatzean asmatu egin du. Espaloiko ikusleek harrera ona egin zioten lan berriari.

Kontzertua bi zatitan bereiztu zuen: disko berriko abestiekin hasi zen eta abesti zaharrekin amaitu zuen emanaldia. Entzuleek gozatu egin zuten.

**FITXA**

MUSIKA

**Estiloa:** Bakarlaria.

**Non:** Elgetako Espaloian.

**Eguna:** Apirilak 19.

**Iraupena:** Ordu eta laurden inguru.

SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

LLOYD'S REGISTER QUALITY ASSURANCE ISO9001
oben GRUPO
blum
FRANKE

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.
Zatoz eta informa zaitez!






## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua salgai edo alokairuan Abadiñoko probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde jantokia, egongela handi bat, komuna eta ganbara. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 71 12 40.

**Abadiño.** Abadiñoko Matiena auzoan pisua salgai. Bizitzen sartzeko moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua, hegoaldera begira, denak kanpora ematen du, eta eguzkitsua. Zatoz ikustera, gustatuko zaizu. Prezioa: 199.000 euro. Deitu telefono honetara: 688 86 18 78.

**Bastida.** Pisua saldu edo egunetarako alokatu egiten da, Bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106 metro karratukoa eta 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia dauka. Altzairuekin geratzen da. 8-10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Deitu 600 46 32 76 telefonora edo idatzi mezu bat: alejandrojosefina@gmail.com.

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 77 73 92.

**Eibar.** Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 78 60 97.

**Eibar.** Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztatzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 94 655 05 53.

**Iurreta.** Iurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 72 80 42.

**Iurreta.** Iurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 30 m2ko terraza. Berriztatzeko. 636 40 26 67.

**Iurreta.** Iurretan, Maspe kalean, 3 logelako pisua salgai. Deitu telefono zenbaki honetara: 633 23 38 48.

**Leintz Gatzaga.** Etxea salgai erdigunean. Orube handia dauka aldamenean. 160.000 euro. 677 52 46 71 / 615 74 13 47.

**Mallabia.** Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 110m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 77 31 41.

**Oñati.** Etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. 68 m2. Orain urtebete berritua. 629 39 08 51.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Udalpe kalean, Erguin auzoan. Guztiz jantzia eta berokuntzarekin. Egoera onean. Nahiago bikoteak. Deitu zenbaki honetara: 620 15 15 08

**Aulesti.** Aulestin, pisu ederra alokatzen da. Behe solairua, sukalde handia, egongela, hiru logela, hiru bainugela, begiratokia, balkoia, trastelekua, egurtokia eta ortu txikitxo bat. 620 56 85 89.

**Bastida.** Labastidan oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620 62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

**Irura.** Iruran, pisu ederra alokatzen da. Guztiz eraberritua, 80m2, lehen solairua, auzo lasaia, bizilagun eta jabe iruratar eta euskaldunak, aparkatzeko inongo arazorik gabe, eguzkitsua, Donostia eta Beasainetik 15 minutura besterik ez. Etxeko tresna berriak, instalakuntza berriak, climalit leihoak, egurrezko zorua, balkoi ederra, kanpotik eta barrutik eraberritua. Bizilagun zaratatsurik gabe. Norberak bere gustuko altzariak jartzeko aukeran. Deitu edo idatzi lasai ikusteko inongo konpromisorik gabe. Aurrekaria, abala edo asegurua beharrezkoa. joxibalerdi@gmail.com Deitu telefono honetara: 676 05 18 85.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. 68 metro koadrokoa. Orain urtebete berritua. Deitu zenbaki honetara: 659 72 06 64,

**Oñati.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta komun bat. Bi balkoirekin. Oso eguzkitsua. Jantzia, bizitzera joateko moduan. Hilean 540 euro, komunitateko gastuak barne. 670 30 60 98

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2 4 pertsonentzako. 657 77 26 13.

**Tolosa.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609 48 11 24.

**Zaldibar.** Pisua alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. 655 70 62 68.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikotea Aramaion pisu bila. Altzariekin edo altzaririk gabe. Deitu zenbaki honetara: 620 15 13 11.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa. 619 88 60 30.

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 648 46 90 51

**Durangaldea.** Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. 665 70 34 08.

### 105. ETXEAK OSATU

**Abadiño.** Logela bat alokagai Muntsaratz auzoan. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 24 67.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 300 euro gastu guztiak barne. 619 83 13 51.

**Arrasate.** Pisua osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Lorea. Deitu telefono zenbaki honetara: 620 52 94 98.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Olaia. Deitu telefono zenbaki honetara: 687 26 46 58

**Durango.** Logela bat alokagai Durangon, Ibaizabal auzoan. Komun pribatuarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 652 86 57 80.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko Oñatin. Ruben. 688 694 976

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Durango.** Auto birako garaje plaza itxia salgai Montevideo kalean. 670 80 92 25.

**Elorrio.** Elorrioko Berrio otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658 75 92 64.

**Elorrio.** Garaje itxia salgai elorrio erdialdean. Deitu telefono honetara: 660 45 87 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Muntsaratzen logela bat alokatzen da. Neska euskalduna bada, nahiago. Deitu zenbaki honetara: 676 98 33 06.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Zubiaurre kalean. Merke. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 74 00 61

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Harane Erreka auzoan garajea hartuko nuke errentan. 617 78 73 21

**Durango.** Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Plateruen plazan. 656 78 02 15.

**Oñati.** Garaje itxia hartuko nuke errentan.Kokapena eta tamaina berdin zait, urtean zehar asko erabiltzen ez diren gauzak gordetzeko nahiko bainuke. Gehien axola zaidan kontzeptua ekonomikoa izatea da, ez baitut asko erabiliko. Trasteleku bat ere izan daiteke. 625 70 86 49

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Ama kale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzerako gurako nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 630 13 08 92

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000 € baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m2. 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea lanerako gertu. Nagusiak zaindu edo garbiketak egingo nituzke: atari, etxe, elkarte eta abarrak. Maria eugenia. 688 63 65 94.

**Arrasate.** Arrasate eta inguruetan lan egingo nuke, etxeak garbitzen edo nagusiak edo umeak zaintzen. Deitu telefono honetara: 680 49 11 45.

**Arrasate.** Goi zikloko plano mekanikoen interpretazioan laguntzeko eskola partikularrak jasoko nituzke, astean bizpahiru egunez. 646 36 68 02 / 943 76 47 56.

**Arrasate.** Erizain laguntzailea prest lana egiteko deabagoienan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 96 25.

**Arrasate.** Mutila lanerako gertu. Eskarmentua dut kontabilitatean, nagusien zaintzan etxean bertan bizi izaten, edota gidari lanetan. Baina bestelako edozer lan egiteko ere gertu nengoke. Autoa daukat. 654 71 78 18,

**Arrasate.** Neska arduratsua lanerako gertu. Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Etxean bizi izaten edo bestela. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 64 08 48.

**Arrasate.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 28 16 34.

**Arrasate.** Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 10 58 72.

**Arrasate.** 54 urteko emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89.

**Arrasate.** Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Deitu telefono honetara: 649 52 86 54.

**Arrasate.** Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko debabagoienan. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. Deitu telefono zenbaki honetara: 630 20 12 03.

**Arrasate.** Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 10 58 72.

**Arrasate.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24.

**Arrasate.** Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66.

**Arrasate.** Neska arduratsua geru garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73.

**Azpeitia.** Zaintzaile bat eskeintzen da umeak edo gende edadetuak zaintzeko baita ere etxeko lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 74 88 35.

**Beasain.** Esperientzia handiko sukaldaria lanerako prest, jaietarako eta lan askoko egunetan. Deitu 948 63 40 10 edo 667 85 89 65 zenbakietara.

**Bergara.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia daukat. 943 76 52 39.

**Bergara.** Bergara edo Arrasate. Mutila asteburuetan lanerako gertu. 654 98 69 14.

**Bergara.** Antzuola edo Zumarraga. Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketak eiteko gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abarrak. Merke. Ordutegi arazo barik. 634 91 81 73, 943 76 66 24.

**Bergara.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, arratsaldez. 610 34 97 88.

**Bergara.** Edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674 93 20 47.

**Bergara.** 19 urteko mutil euskalduna ostiral arratsalde, astebukaera eta jaiegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientzaduna. Deitu telefono honetara: 627 36 83 70.

**Bergara.** Emakume euskalduna prest goizetan etxeko lanak egiteko. 627 96 19 22.

**Bergara.** Emakumea prest goizez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 649 52 86 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketak egin, nagusiak zaindu eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Lorategi lanak eta eraikuntza lanak egingo nituzke. Bi urtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiten ere lagundu nezake.Deitu telefono zenbaki honetara: 663 34 70 36.

**Debagoiena.** Herri guztietan sukaldari laguntzailea, zerbitzaria eta garbitzailea eskaintzen da. Informazio gehiagorako deitu. 610 93 98 21.

**Debagoiena.** Nicaraguako neska nagusi zein umeak zaintzeko gertu debagoienan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 722 14 42 86.

**Debagoiena.** 18 urteko mutil espainiarrak loratzaintza lanak egingo lituzke. Gidabaimena eta esperientzia. 722 32 43 67.

**Debagoiena.** Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Merke. 679 74 00 61.

**Debagoiena.** Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Eraikuntzan, garbiketan zein mekanika lanetarako gertu nago. Deitu zenbaki honetara: 671 26 74 74.

**Debagoiena.** Debagoiena osoan, eraikuntza lanak, elektrizitate lanak, pintura lanak, nekazaritzan, informatika eta etxeko konponketak egiteko prest. Auto propioa eta 25 urteko esperientzia. Deitu telefono honetara: 654 83 98 77.

**Debagoiena.** Neska orduka edo gauez lan egiteko gertu. Silvia. 630 99 11 85.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. Deitu telefono honetara: 637 07 23 70.

**Debagoiena.** Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. Deitu telefono honetara: 691 79 53 34.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. 631 22 32 92.

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernan. Bertan bizi izaten ere bai. 648 46 90 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: tabernako sukaldean, garbiketak egiten, zaintzan eta abar. Hotelean lan egin izan dut. Autoa daukat. Deitu telefono zenbaki hauetara: 636 11 23 40 / 648 10 26 53.

**Debagoiena.** Garbiketak egingo nituzke orduka, etxeetan zein bestela. Flavia. 654 92 61 28.

**Debagoiena.** Etxean zein bestelako garbiketak egiten lan egingo nuke, orduka. Wendy. Interesatuok deitu 688 65 04 56 edo 617 25 30 58 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 722 32 43 67.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Gauez ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 96 08 22.

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertud debagoienan, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95 / 943 71 53 74.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketa lanetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 679 30 65 28.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono zenbaki honetara: 678 98 54 64.

**Debagoiena.** Neska lan egiteko gertu, arratsaldez, gauez edo astebukaeretan. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, garbitasun lanetarako zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 691 03 25 02, 943 54 09 41.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketak egin, nagusiak zaindu eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 686 40 42 03.

**Debagoiena.** Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686 40 42 03.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zein erdian, gauez ere bai. Erreferentzia onekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 609 88 79 21.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. Deitu telefono honetara: 689 43 64 54 .

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Egunez edo orduka. Bizileku baimenarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 686 19 00 24.

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko, garbiketan zein sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 680 54 48 62.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko 24 orduz edo egunez, zerbitzari lanetan, sukaldeko laguntzaile edo etxeko lanetan aritzeko lan bila. 602 65 39 64.

**Durangaldea.** Edozein ordutegitan 24 orduz zein egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintzan zein garbiketan. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 48 80 27 (Nira).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku baimenarekin. 636 44 59 01.

**Durangaldea.** Garbiketan aritzeko (tabernak, etxeak, portaleak) zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 29 86 17.

**Durangaldea.** Tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Eta bestelako lanak egiteko ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara 647 24 23 01 eta Markelengatik galdetu.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen, etxe zaintzan, lorezain... Edozertan lan egiteko prest. 24 orduz zein egunez, baita asteburueta ere. Erreferentziak pertsonak zaintzen. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 37 28 87 (Julian).

**Durangaldea.** Gazte arduratsua lan bila. Abeltzaintzan, baserrietan, mendian edo igeltsero lanetan. Deitu telefono honetara: 631 20 42 37.

**Durangaldea.** Gaztea lan bila. Nagusien zaintzan, paleta laguntzaile aurreratu legez, edo antzeko lanen baterako. Deitu telefono zenbaki honetara: 697 66 48 18.

**Durangaldea.** Edozein motatako lana egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zaintzeko, baserrian, mendian (sasiak garbitzeko lanetan...) edo garraio lanetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 63 55 40.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile. Erreferentzia onekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 638 43 79 01.

**Durangaldea.** Astean behin, garbiketa (portaleak, tabernak...) egiteko edo lanaldi erdian umeak zaintzeko lan bila nabil. Deitu: 619 67 60 44.

**Durangaldea.** Esperientziadun eta tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Deitu: 695 48 89 95.

**Durangaldea.** Gizon arduratsua edozertan lan egiteko prest. 653 29 86 17.

**Durangaldea.** Bikote bat lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen zein etxeko lanetan. Gidatzeko baimenarekin. Deitu 697 66 48 18 (Roni) edo 659 16 93 77 (Hilda) zenbakietara.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna lan bila. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduz edo egunez, sukaldeko laguntzaile edo garbiketan orduka. 608 65 90 55 edo 602 80 83 85 (Nieves).

**Durangaldea.** Abadinoko 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 658 73 80 48 (saioa).

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak edo etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. 608 27 18 73.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketan aritzeko prest. 30 urteko neska, erreferentzia onak. 24 orduz, egunez edo orduka. Deitu telefono honetara: 697 93 85 65 (Rosmary Alvarez).

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Esperientziarekin eta erreferentziakin. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 34 12 38.

**Durangaldea.** Lanaldi erdiko edo osoko lan bila nabil, bai nagusiak zaintzen bai garbiketan. Erreferentziakin. Martxoaren 10etik aurrera lan egiteko prest. 650 61 01 94.

**Durangaldea.** Garbiketan zein zaintzan lan egiteko prest. Edozein lanalditan. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 72 43 23.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziekin etxeko lanak egiteko prest. 24 orduz edo egunez. Deitu telefono honetara: 659 16 93 77.

**Durangaldea.** Neska arduratsua eta esperientziaduna, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketan aritzeko prest. Erreferentziekin eta paperak egunean. Deitu telefono zenbaki honetara: 638 72 64 34.

**Durangaldea.** Garbiketan zein pertsona nagusien zaintzan lan bila. Orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616 32 73 32.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila. 620 16 14 96.

**Durango.** Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmentuarekin. 699 74 57 23.

**Durangaldea.** Goizez, arratsaldez, gauez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketan zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. 690 68 73 95.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. 608 65 90 55.

**Durangaldea.** Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauez zein asteburuetan aritzeko prest. 669 52 73 27.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez.... 696 75 35 30.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian. 10:00etatik 22:00etara, baita gauez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta . 650 61 01 94.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Gidatzeko baimena. 619 13 07 16.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. 628 86 41 86.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. 620 16 14 96.

**Durangaldea.** Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. 632 32 07 27.

**Durangaldea.** Gaueko txandan edo goizez pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. 673 68 97 69.

**Durangaldea.** Gazte arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez, baita orduka ere. Lehenbailehen hasteko prest. 638 32 03 45.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez, baita asteburuetan ere. 602 07 19 11 (Patricia).

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. 649 35 96 06.

**Durangaldea.** Emakumea lan bila, 24 orduz, egunez, gauez, asteburuetan edo orduka. 690 11 62 94.

**Durangaldea.** 33 urteko neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Osasun osagarria. 691 23 32 20.

**Durangaldea.** Asteburuetan zein astean zehar pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketarako prest. 631 26 28 68.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. 632 32 07 27.

**Durangaldea.** Emakumea umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Paperak araututa. 629 18 02 71.

**Durangaldea.** Asteburuetan, gauez zein orduka nagusiak zaintzeko prest. 634 00 82 22.

**Lan ezberdinak** egiteko prest Lorategi lanak eta eraikuntza lanak egingo nituzke. Bi urtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiten ere lagundu nezake. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 34 70 36

**Mutila gertu** lan anitzak egiteko. Debagoiena osoan, eraikuntza lanak, elektrizitate lanak, pintura lanak, nekazaritzan, informatika eta etxeko konponketak egiteko prest. Auto propioa eta 25 urteko esperientzia. Interesatuok deitu telefono honetara: 654 83 98 77

**Sukaldari laguntzailea** lanerako prest Debagoieneko herri guztietan sukaldari laguntzailea, zerbitzaria eta garbitzailea eskaintzen da. Informazio gehiagorako deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 93 98 21

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Ekonometria.** Ekonometria ikasgaia ematen duen irakasle bila nabil. 652 73 12 34

**Plano mekanikoak.** Goi zikloko plano mekanikoen interpretazioan laguntzeko eskola partikularrak jasoko nituzke, astean bizpahiru egunez. 646 36 68 02 edo 943 76 47 56

### 502. EMAN

**Durango.** 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 695 73 69 94 edo idatzi mezu bat k.anderez@hotmail.es helbidera.

**Durango.** Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 675 00 79 19 edo idatzi mezu bat: egorrono@gmail.com

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 64 06 04.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez (durangaldean) haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688 64 06 04.

**Elorrio.** Arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduak paseatzera atera edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz. Interesa baduzu, jarri nirekin harremanetan. 688 64 06 04 mila esker.

**Gitarra elektrikoa.** Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

**Villabona.** Frantseseko klase partikularrak ematen ditut. Taldeka edo bakarka. Experientzia duen irakaslea. Hizketaldiak, azterketen prestaketa. Ikus entzunezko metodoa. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazket edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik, gero zuk erabaki. Deitu telefono zenbaki honetara: 664 16 02 68.

**Villabona.** Klase partikularrak ematen dira: ingelesa, frantsesa, matematika, fisika, kimika, eta abar. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituluduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 664 16 02 68 edo bidali mezu bat posta elektronikora: continental56@yahoo.es.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** Ohe handi bi eta saloia. 8 urte. Garaje handia. 23.900 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 23 21.

**Autoa.** Karneta atera berra badaukazu edota zure kontu autoan ibili nahi baldin baduzu, zuretzako auto ezin hobea daukat, 71.000 km erreal dituen polo coupe gt 1.3 55cv. Prezioa 999 euro negoziagarriak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 70 62 27.

**Audi A4 kotxea salgai.** Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 49 36 39.

**Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai.** Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati cd mp3, abiadura mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne ordenagailua, ia ia berria eta durangaldetik bakarrik erabilita. IAT 2013ko azaroara arte pasata. 7.500 euro negoziagarri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 93 62 14.

**Furgoneta salgai.** Mercedes Viano Fun furgoneta luzea salgai. Kristal tindatuak. Bizikletak eramatekoa. Mahai eta ohearekin. 6 lagunentzako lekua. Oso egoera onean. Zatoz ikustera! Deitu telefono zenbaki honetara: 615 00 72 16.

**Mercedes Vito 110 furgoneta salgai.** 1999. urteko Mercedes Vito 110 furgoneta salgai. 105 ZP. Ohea, aulkiak, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 49 36 39.

**Honda Hornet cb 600 motorra salgai.** Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 45 52 41.

**VW California T5 salgai.** 130 ZP. Trendline, 2007ko maiatzekoa. VW berogailu programagarria mandoarekin eta extra pilo bat (fiamma toldo eta bizikletak eramatekoa, sabaiko Thais toldoa...) Beti garajean gordea. Egoera oso onean. 28.500 euro. 687 53 02 98 .

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALGAI

**Aharia eta ardia salgai.** Latxa arrazako urtebeteko ahari ederra eta ardi bat saltzen dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94 621 82 57.

**Ahuntz eta aumak salgai.** Ahuntz eta aumak salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 71 00 68.

### 703. EMAN

**Katua opari.** Urtebeteko katua oparitzen da. Kastratuta dago, eta bakuna guztiak jaso ditu. Etxean egoten ohituta dago. 678 29 11 67.

**Pointer txakur emea oparitzen da.** Pointer txakur emea, 3 urtekoa, zuri beltza, oso oso polita, kumeak egiteko aproposa oparitzen da. 616 91 90 61.

**Txakurkumea.** Urbiako fondan txakurkumea ematen da opari. Ardi txakurra da. 943 78 13 16.

**Txakurkumeak opari.** Labrador arrazako txakurkumeak opari. Pedigriarekin. 606 70 65 08. Carlos

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete bat dute. Arra edo emea. 648 63 58 06.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoi diatonikoa.** Tekladuna, salgai. Polita. 80 baxukoa. 400 €. Atzerrira bizitzera noalako saltzen dut. 679 74 00 61

**Arropa,** zapatak eta bestelako osagarriak saltzen ditut. 606 24 79 09

**Furgonetako ohea salgai.** Furgonetako ohea salgai. Volkswagen t5 eko ohea salgai, koltxoi eta izarekin. Egoera onean. 300 euro. 669 10 43 22 (Igor). igor.anitxu@gmail.com.

**Kanpadenda salgai.** Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezinhobea! 100 euro. 615 00 72 16.

**Ostalaritzako materiala salgai.** Negozioa ixten delako, ostalaritzako materiala salgai. Edalontziak, mota guztietako platerak, mahai tresnak, makina erregistratzailea, lanparak, aulkiak.... Dena egoera onean, oso gutxitan erabiliak. 674 96 03 64.

**Sofa salgai.** 3 plazako sofa salgai. Chaise longuearekin. Oso ondo zaindua. Interesatuak deitu: 615 00 72 16.

**Quinny freestyle xl (silla+-kapazoa).** Quinny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat etzaten da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagolea edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak. 350 euro. 660 25 25 13 (Ana)

### 802. EROSI

**Babycook duo.** Babycook duo erosi nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 70 05 14

**Haurren aulkirako zakuak.** Bugaboo Donkey haurren aulkirako bi zaku berdin erosiko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 70 05 14

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

### 803. EMAN

**Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara.** Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. 655 71 76 66.

### 804. HARTU

**Bizikleta bat nahi dut.** Errepidean ibiltzeko bizikleta gura dut. Zaharra eta merkea bada berria eta karua baino hobe. 94 648 14 15.

**Bizikletak.** Bizikleta zaharrak botatzeko badauzkazu, nik jasoko dizut. Iñaki. 699 06 23 95

**Etxetik kendu gura dituzuen liburuak batzen ditut.** Zuen etxeetako apal zein ganbaratik kendu nahi dituzuen liburuak batzen ditut. 645 72 00 52.

**Musika tresnak.** Batukada Feministak perkusioko musika tresnak behar ditu, nahiz eta egoera txarrean egon, birziklatu egingo ditugu. Etxean edo entsailu lokaletan musika tresnaren bat kentzeko edo botatzeko edukiz gero, jarri harremanetan: 615 78 10 68

### 806. GALDU

**Belarritakoa Bergaran.** San Pedro kalea eta Correos bitartean erdian zirkonita brillantea duen zilarrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitzea eskertuko nizuke. 637 52 89 83

**Bizikleta lapurreta Arrasaten.** Mendiko bizikleta lapurtu zidaten martxoaren 19an, 13:00ean, Arrasateko Ignazio Zuloaga kalean (epaitegiaren ondoan). Orbea etxekoa, kolore berde eta txuria ditu, freno hidraulikoekin. Bi ur bidoi eramateko lekua du eta kilometro kontagailuaren kableatua. Norbaitek antzeman badu abixatu dezala telefono honetara, mesedez. 649 34 60 51

**Patinetea Oñatin.** Onatiko plazan domekan, martxoaren 17an, patinete beltz bat galdu zen. Azpian izena du jarrita. Inork aurkitu badu, dei dezala zenbaki honetara: 665 71 22 94

**Giltzak.** Zorro beltz baten barruan zeuden giltzak galdu ditu. Norbaitek aurkitu baditu, BAZen utzi dezala.

**Iphone.** iPhone 4S telefono beltza galdu dut. Norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono zenbaki honetara. 943 10 91 79. Eskertuko da.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke.** Elkarte gastronomiko bateko kide bazara eta zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nizuke. Alde zaharrean bada hobe, baina ez ditut beste aukerak baztertzen. 943 10 91 79.

**Euskara-Frantsesa.** Mintzapraktika egiteko jende bila nabil. Interesatuok deitu 685 76 59 73 telefonora.

Etxebila higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAN

**PASAI DONIBANE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoiak. 590 €.
**LEZO:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trastelekua. Terraza. Berria. 750 €.
**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Aparkaleku pribatua. 590 €.
**ERDIGUNEA:** Autonomia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 700 €.
**LOIOLA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena berria. 700 €.
**ERGOBIA:** Duplex berria. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Solariuma 750 €.
**GROS:** Atotxa dorrea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak itsasora. 850 €.

SALMENTAN

**ANTIGUA:** Atikoa. Oso bista politak itsasora. Eguzkitsua. Sartzeko. 99.500 €.
**ANTIGUA:** igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Garage itxia. 248.000 €.
**AMARA:** apartamentua. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 93.000 €.
**AMARA:** Amara hasieran. Altua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 185.000 €.
**AMARA:** bista politak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 215.000 €.
**ERDIGUNEA:** Prim kalea. Azkena. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 245.000 €.
**GROS:** Azkena. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Berritua. 320.000 €.
**EGIA:** Mandasko dukearen pasealekua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 237.900 €.
**EGIA:** Karmengo Andre Mariaren kalea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 185.000 €.
**EGIA:** Tejeria kalea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 160.000 €.
**MARTUTENE:** Berritua. 2 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Izkina. 126.000 €.
**LOIOLA:** Aralar mendiaren kalea. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 150.000 €.
**ASTIGARRAGA:** 60 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. Bistak. 99.900 €
**HERNANI:** 20 m2-ko terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 110.000 €.
**PASAI DONIBANE:** 100 m2. Herriko plazan. Bista oso politak. Terraza. 150.000 €.
**LEZO:** Herri erdian. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 96.000 €.

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

LAN POLTSA

**Goiena Komunikazio Taldeak**

**KAZETARIAK-KAMERALARIAK**

**behar ditu Debagoienerako lan poltsa osatzeko**

Eskatzen da:

· Unibertsitate titulazioa izatea: Kazetaritza, Ikus–entzunezko Komunikazioa...
· Euskaraz ondo idaztea (ezinbestekoa da).
· Informatika programen ezagutza.
· Gidabaimena izatea.

Kontuan hartuko da:

· Kazetari eta kameralari lanetan eskarmentua izatea.
· Sare sozialetan jantzita egotea.
· Debagoienean edo inguruan bizi izatea eta hura ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali apirilaren 26ko 12:00ak baino lehen helbide honetara: *idazkaritza@goiena.com*

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

# Google Glass parea WiFi eta bluetooh-arekin dator

- Google-en betaurreko inteligenteek 16 GBko barne memoria izango dute
- Erresoluzio handikoa izangoda lenteetan erakutsiko dena

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Orain arteko isilpekotasuna hautsita, betaurreko inteligenteen ezaugarri teknikoak eman ditu ezagutzera Google-ek. 16 GBeko memoria, bluetooth eta WiFi konexioak eta erresoluzio handiko lenteak izango ditu. Prezioa: 1.500 dolar.

**Egun baterako bateria**

Errealitate areagotudun betaurreko entzutetsuen zehaztapen teknikoen berri eman du Google-ek. Ezaugarri nagusitan, egun bateko bateria iraupena izango dute, 5 megapixeleko kamera eta barne-memoria 16 GBekoa izango dute. Erabiltzaileei edukiak bistaratuko zaizkien pantailari dagokionez, erresoluzio handikoa izango da eta azaldu dute bi metro eta erdiko distantziatik 25 hazbeteko pantaila duen telebista bati begiratzea bezala izango dela. Salgai, bi eustoin ezberdinekin jarriko dituzte, sudur-zubietara ondo egokitzeko. Audio erreprodukzioa zuzenean egingo da belarrietako hezurretara, sistema berritzaile batekin, interferentziak eragozteko. Konektibitateari dagokionez, ezusteko gutxi egon dira. Bluetooth-a erabiliko dute betaurrekoek beste gailuetara konektatzeko eta WiFi bidezko Internet konexioa. GPSrako eta SMSak bidaltzeko, ordea, *MyGlass* delako aplikazioa izan beharko dute instalatuta (Android 4.0.3arekin soilik). Zehazten ez bada ere, lainoa ere aplikazio horren bitartez kudeatuko litzateke.



Google Glass-en promozio irudietako bat. | GOOGLE




Azterketaren grafikoa. | SYNCAPSE

## Facebooken marken zale egiteak erabiltzaileko 133 euroko balioa du

**J.B.** | ARRASATE

Facebooken marka ala produktu baten zale egiteak balio ekonomiko bat du enpresentzat, marketing asmoez harago. Syncapse marketing-sozial enpresak erabiltzaileko 133 eurotan finkatu du kopuru hori.

**Datuen gurutzaketa**

Erabiltzaileek marka zehatz batekiko duten leialtasuna eta marka horretan egiten duten gastuaren datuak gurutzatuta atera dute kopurua.

**Marketan, aldeak**

Marken artean alde eta ezberdintasun handiak daude eta zaletasun mailak eta gastuak ez dute bat egiten kasu askotan. Zara moda markaren jarraitzaileek dute azterketaren arabera balio altuena. Zara markaren Facebookeko zale bakoitzak 310 euroko balioa du. Mundu mailako marka nagusietan egin da azterketa (Zara, Levi's, H&M, Coca-Cola, Blackberry, Oreo...) eta 20 marka nagusietan bataz besteko erabiltzaileko balioa 133 eurokoa da. Azterketa berdina 2010ean egin zen eta orduz geroztik %28ko hazkundea eman da balio horretan. Marken leialtasun bide nagusietako bat bilakatu dira sareak, hortaz.

## Sony-k 2 gigabit segundoko jaitsierako sarea aurkeztu du

**J.B.** | ARRASATE

Zuntz optiko bidezko konexio super-azkarra aurkeztu berri dute Japonian. Etxeetarako "planetako Internet konexiorik azkarrena" dela diote, 2 gigabiteko deskarga eta gigabit bateko igoerarekin.

**Konexiorik azkarrena**

Sony-ren jabetzakoa den So-net hornitzaile japoniarrak etxeetarako "planetako Internet konexiorik azkarrena" aurkeztu du. 2 gigabiteko deskarga du zuntz optiko bidezko konexioak eta igoera gigabit batekoa. Japonian, konexiorik azkarrenak dauden herrialdean, lehiakideek gehien eskaintzen dutenaren bikoitza da Soo-net-ek eskuragarri ipini duena..

Zuntz optikoaren sareak ere berezitasunak ditu, kablea bera hornitzailearen instalazioetatik etxeko bertako atariraino heltzen baita. Oraingoz Japoniako eskualde baten soilik jar daiteke konexio super-azkar hau eta kablearen instalazioa erabiltzaileak berak egin behar du eta ostean zerbitzua kontratatu. Hain zuzen, 400 bat eurokoa da instalazioaren kostua eta tarifarik merkeena hileko 38 eurokoa da.

## 'Hasiera' botoia itzul liteke Windows-en eguneraketa berriarekin batera

**J.B.** | ARRASATE

Windowsen azken bertsioak erabiltzaileengan sortu duen nahasmenari erantzuna ematekotan da Microsoft. Hain zuzen, Windows 8arekin interfazea goitik behera aldatu eta gero, erabiltzaileak "Hasiera" botoi klasikoaren falta sumatu dute gehien bat. Windows 8.1arekin botoia eta mahaigainerako zuzeneko sarbideak itzuliko lirateke interfazera.

Azken albisteek diote Microsoft-ek pentsatu duela aldaketa hori egitea. Sistema eragilearen eguneraketa udarako etorriko dela diote hedabide espezializatuek eta erabiltzaileek eskatutako aldaketa horietako bi ala biak ekarriko lituzke. Udarako aterako dute proba.




'Twitter #music' aplikazio berriaren pantila-irudia. | GENBETA

## Twiterrek txioetan aipatzen den musika entzuteko zerbitzua atera du

**J.B.** | ARRASATE

Bolo-bolo zebilen Twitterrek *#music* zerbitzua abiatuko zuela. Halaxe egin du pasa den astean. Funtzionamendua erraza da: *following* ala jarraitutako erabiltzaileek '#music' etiketarekin zabaldutako musika aipamenak jotzen ditu zerbitzu berriak. Twitterren bertan egin daiteke entzuketa, beste aplikazioaren beharrik barik. Hori bai, mundu guztian ez dago erabilgarri. Salbuespenetako bat Espainiako estatua da, hain zuzen.

**Web eta iOS**

Web ala iPhonerako aplikazio berezi baten bitartez erabili daiteke zerbitzu berria. Twitterrek ez du audiorik eskainiko, soilik txioetan aipatzen den musika Spotify, Rdio eta iTunes bidez joko du. iTunes-en kasuan, litekeena da segundu gutxi batzuetako aurrerapena soilik entzun ahal izatea. *Twitter #music*-ek hirugarren baten zerbitzuak erabiltzen baditu ere, webgunetik atera barik kudeatu eta erabili daiteke musika erreproduzitzailea bera.

Oraingoz Estatu Batuak, Kanada, Irlanda, Australia eta Zeelanda Berrian dago zabalik eta web eta iOS-erako bertsioetan soilik. Agindu dutenez, aurki zabalduko dute zerbitzua.

## Twitter baino erabiliagoa da WhatsApp jadanik

**J.B.** | ARRASATE

WhatsApp aplikazioaren zabalkundea geldiezina dabil izaten. Orain arte askoz ere erabili eta ezagunagoak ziren zerbitzuen erabiltzaile kopurua gainditzen dabil. Twitter-ena, zehazki.. Jan Koum fundatzaileak zabaldu berri ditu datuak. 2009an atera zuten aplikazioaren lehen bertsioa SMSen alternatiba eskaintzeko asmoarekin. Gaur egun 18.000 milioi mezu bidaltzen dira egunean eta datu horrekin batera, erabiltzaile kopuru zehatza esan barik, Koumek argitu zuen Twitter-ek dituenak baino gehiago direla, hain justu. Twitter-ek 200 milioi erabiltzaile ditu gaur egun zenbaketa ofizialaren arabera. Informazio hau ematearekin batera, Jan Koumek aplikazioaren salmentari buruzko esamesak isildu nahi izan ditu esanez ez dabiltzala WhatsApp saltzeko ezelako negoziazioetan. Azken astean behin baino gehiagotan zabaldu da Facebook eta Google handikiak atzetik dabilzkiela eskaintzak egiten.

## TELE-BEGI



IMANOL GALLEGO

# Nora joan dira?

Telebista oso amorante kapritxosoa da. Urte edo hilabete batzuetan bere begiko aurkezlea bihurtu zaitezke, eta egun batzuk beranduago… ezerezaren hurrengoa.

Telebista izar galduen zerrenda luzea da. Jaime Cantizano oso aurpegi ezaguna izan da eta azken urtean desagertu egin da. Cantizanori Antena 3kin zuen hamar urteko kontratua amaitu eta zurrumurruek diotenez laster liburu bat ateratzekotan dabil. Nuria Rocari ere antzerako zerbait pasa zaio. TVE, Cuatro, LaSexta… bezalako kateetan lan egin ondoren, bere bosgarren eleberria prestatzen dihardu.

Gugandik hurbilago misterio gehiago dago. Urteetan *Lo que faltaba*-ri esker izarra bihurtu eta gero baten batek Txetxu Ugalde ikusi al du? Unibertso katodikoak irentsi al du? Zoritxarrez hau ez da kasu bakarra. Goiena telebistako Miren Arregi ere ezustean desagertu zen. Kontu honi usain txarra hartzen hasia naiz.

Desagertze arraro hauen misterioa argitzeko Paco Lobatoni deitzekotan izan naiz, baina bera ere, *¿Quien sabe dónde?* programaren ostean, bere izar estatusa galdu eta azken urteotan pantaila txikitik desagertu da. Nor izango da hurrengoa?

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

**ASTELEHENA, 22**



**'Harmailatik'**

Xabi Abasolo motokros piloto arrasatearra izango da saioan eta Aloñako igoera ere landuko dugu. | **22:00**

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:35** Onein
**13:56** Ikusmira
**14:11** Ekogune
**14:41** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AZK2012
**16:18** Bizitegia
**16:48** Zorion Agurrak
**16:53** Berriak
**17:18** Eguraldia
**17:21** Onein
**17:47** Bertso saioa
**18:27** Ekogune
**18:57** Altxorraren bila
**19:46** Zorion Agurrak
**19:51** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**22:00** Harmailatik
**22:45** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Harmailatik

**MARTITZENA, 23**



**John Andueza**

John Anduezak bere liburu berria aurkeztuko digu eta horri buruz hitz egingo digu *Magazinea*-n. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:50** Onein
**16:21** AsteON
**16:51** Berriak
**17:11** Eguraldia
**17:14** AZK2012
**17:39** Altxorraren bila
**18:28** Bertso saioa
**19:08** Harmailatik
**19:53** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** AZK2012
**22:00** Berriak
**22:20** Eguraldia
**22:25** Magazinea
**23:10** Bizitegia
**23:38** Berriak
**23:58** Eguraldia
**00:23** Berriak
**00:28** Eguraldia
**00:31** Magazinea

**EGUAZTENA, 24**



**Osasun tartea**

Mendekotasuna duten pertsonekin laguntza teknikoak nola erabili erakutsiko dizuegu osasun tartean. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:13** Harmailatik
**13:58** Bertso saioa
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:45** Onein
**16:15** Harmailatik
**17:00** AZK2012
**17:30** Zorion Agurrak
**17:35** Berriak
**17:55** Eguraldia
**17:57** Ikusmira
**18:10** Erreportajea
**18:43** Bizitegia
**19:13** Beranduegi.tv
**19:43** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:31** AsteON
**22:01** Ekogune
**22:31** Berriak
**22:51** Eguraldia
**22:53** Magazinea
**23:38** Harmailatik
**00:05** Berriak
**00:25** Eguraldia

**EGUENA, 25**



**'Planik bai?'**

Asteburürako planak egin nahi badituzu Arantzazu Ezkibelek emango dizu kultura ekitaldien berri. | **17:17**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Altxorraren bila
**14:04** Ikusmira
**14:17** Onein
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Ikusmira
**15:21** AZK2012
**15:51** Berriak
**16:11** Eguraldia
**16:14** Onein
**16:45** Erreportajea
**17:17** Planik bai?
**17:37** Ur eta lur
**18:04** AZK2012
**18:34** Onein
**19:00** Zorion Agurrak
**19:05** Beranduegi.tv
**19:30** Planik bai?
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Planik bai?
**21:50** Pedalka
**22:20** Berriak
**22:40** Eguraldia
**22:43** Magazinea
**23:28** Klaketa
**00:00** Eguraldia
**00:03** AsteON
**00:33** Planik bai?
**00:53** Berriak
**01:13** Eguraldia

**EGUBAKOITZA, 26**



**'AsteOn'**

Asteko albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu, besteak beste, *AsteOn* saioan. | **22:00**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Onein
**14:10** Pedalka
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** AZK2012
**16:28** Beranduegi.tv
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Planik bai?
**17:23** Berriak
**17:43** Eguraldia
**17:46** Planik bai?
**18:06** Altxorraren bila
**18:55** Zorion Agurrak
**18:58** 28.Klip
**19:30** Beranduegi.tv
**20:00** Zorion Agurrak
**20:03** Berriak
**20:27** Eguraldia
**20:30** Planik bai?
**20:52** Gurean gaur
**21:28** AZK2012
**22:00** AsteON
**22:30** Prozaka.eus
**23:40** Berriak

### ARRASATE IRRATIA

#### Liburuaren Nazioarteko Eguna izango dugu berbagai

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta prestatutako egitarauan Shakti Olaizola bihurrikari edo kontortsionistak bi ikuskizun eskainiko ditu eta berarekin hitz egingo dugu horri buruz bihar, martitzena, *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etatik aurrera, elkarrizketen tartean. Ez galdu.

#### 'Kokein' eta 'Anai arrebak' ikusteko, sarrerak zozketan

Oñatiko gaztelekuan izango dira kontzertua eskaintzen egubakoitzean *Kokein* eta *Anai arreba* taldeak eta bertara joateko sarrerak dauzkagu. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Hartu parte zozketan eta zorte on!

#### Gala lirikoari buruz hitz egingo dugu Arrasate Irratian

Etzi, eguena, gala lirikoa eskainiko da Arrasateko Amaia antzokian. 20:00etan izango da ikuskizuna eta gai horixe hizpide hartuko dugu Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan. Beraz, horri buruzko informazio guztia jaso ahal izango duzue 107.7-ko uhinen bitartez aste honetan bertan.

## TELE-ALBISTEAK

# Frantziako Alpeak alderik alde bizikletaz, Pedalka saio berrian

Julen Iriondok aurreko uztailean egindako bidaia kontatuko digu eguenetan, hainbat kapitulutan




Julen Iriondo, Galibier mendateko tontorrean. | JULEN IRIONDO

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Pedalka izeneko saio berria estreinatuko du Goiena telebistak eguenean, hilak 25, 21:50ean. Saioan ikusi ahal izango da Julen Iriondo Goienako kazetariak Frantziako Alpeetara egindako bidaia. Leman lakuan hasi zuen bere abentura eta Mediterraneo itsasoan amaitu, bizikletarekin 700 kilometro inguru egin eta gero.

Alpe Handien Ibilbidea izenekoa XX. mende hasieran egokitu zuten bidaiarientzat. Ordutik, hamaika bazterretako jendea hartzen du: bizikletaz, oinez edo askotariko ibilgailuetan.

Julen Iriondok bizikleta eta alforjak hartu –barruan bederatzi egunerako behar zuen guztia– eta iazko uztailean egin zuen Iseran, Galibier edo Izoard bezalako mendate ezagun eta ederrak bidean dituen ibilbidea.

Horiek mendate ezagunak; baina hamaika txoko liluragarri bezain ezezagun –edo ezezagunago behintzat– ezagutu ahal izango ditugu Pedalka saioan. Eta ez hori bakarrik, baita bidean topatutako mila eratako jendea ere.

**Paisaia ikusgarriak, mendate ederrak, jendearen bizitzeko erak, aisialdia...**

Izan ere, saio berria ez da izango soilik Alpeetako paisaia ederrekin eta kirolarekin lotutakoa –hori ere bai, noski–; ikusi ahal izango dira, baita ere, bidean topatutako lagunen bizitzeko erak –bizikletarekin dozenaka herrialde ezagutu duen erretiratua (lanetik), urteetan pilatutako fosilak furgonetarekin saltzetik bizi dena,...–, aisialdirako inguru haiek ematen dituzten aukerak –bizikleta eta rafting jaitsierak,...– eta abar luze bat.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
**Zaraitzu Lazkano Gorostiza**
Apirilaren 28an, 4 urte. Zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak Zaraitzu, zorionak beti.



ARRASATE
**Itxaro Artola Lizarralde**
Apirilaren 28an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo potolo-potoloak Luken, Elene eta etxeko danon partetik!



BERGARA
**Alazne Suinaga Ena**
Apirilaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu bat! Maitane, amatxo eta aitatxoren partetik.



ARRASATE
**Izortz Llodio Ramos**
Apirilaren 25ean, 5 urte. Zorionak, *Txirri*! Jada bost urte! Patxo handi-handi bat etxekoen partetik!



ARETXABALETA
**Aner eta Igotz Idigoras Anduaga**
Anerrek apirilaren 24an, 10 urte eta Igotzek 25ean, 8 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu handi bana.



BERGARA
**Ekain Rodriguez de Zerio**
Apirilaren 24an, 3 urte. Zorionak, Ekain! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu bat etxekoen, eta batez be, Ibairen partetik.



BERGARA
**Mikel Igartza Amasorrain**
Apirilaren 24an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze eguna eta patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Eneritz Gereñu Arregi**
Apirilaren 24an, 5 urte. Zorionak, potxola! Ondo ospatu zure eguna eta besarkada handi bat familixa danaren partetik.



ARRASATE
**Unax Merchan Vazquez**
Apirilaren 23an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia guraso eta familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
**Itoitz Louvelli Urrutia**
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, artixta! Eskua bete hatz daukazu. Ondo-ondo ospatu eta badakizu, "kaskua buruan eta ibili munduan". Patxo pototo bat.



ARETXABALETA
**Ekhi Louvelli Urrutia**
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, pirata! Bost urtetzar eta milaka abentura bete dituzu, baina beste asko dituzu oraindik zain. Patxo pototo bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Joakin Sagastume Lasa**
Apirilaren 22an, 47 urte. Zorionak, aita! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi-handi bat etxekoen partetik. Leire, Maria, Ane, Julen eta Ainhoa.



BERGARA
**Antxon eta Oihan**
Apirilaren 22an, 9 urte. Zorionak, bikote! Eguna primeran pasatu eta jaso besarkada handi bat familiakoen partetik.



BERGARA
**Olaitz Agirrezabal Gabilondo**
Apirilaren 22an, 9 urte. Zorionak, Olaitz! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Familia eta Urkoren partetik. Kontuz, horrelako saltuekin, laister zerua ikutu behar duzu-eta.



OÑATI
**Ane Isasisasmendi Egaña**
Apirilaren 22an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo, eta pa handi bat etxeko danen partetik!



ESKORIATZA
**Alaitz Salaberria Beitia**
Apirilaren 22an, 7 urte. Zorionak, neska handi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu bana etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Oier Arana Priego**
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure eguna! Patxo bat etxeko danon partetik! Galtzerdiren partetik be bai! Je, je!



OÑATI
**Unax Altube Ayesta**
Apirilaren 21ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunean, etxeko guztien partetik. Pastel goxo-goxoa egongo da.



ARETXABALETA
**Abene Barrena**
Apirilaren 21ean, 36 urte. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Txokolatezko muxutxuak Ekaitz, Irati eta aitatxoren partetik. Aupa Erreala eta Aupa UDA!



ARETXABALETA
**Martxel Lasagabaster Arrieta**
Apirilaren 20an, 5 urte. Zorionak, Martxel! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danen partetik!



BERGARA
**Alaine Egizabal Zabaleta**
Apirilaren 20an, 9 urte. Zorionak, maittia! Denon partetik.



ARETXABALETA
**Ainara Uralde**
Apirilaren 20an, 35 urte. Zorionak, tia Ainara, *prexioxi*! Parranda edarra bota! Muxu potolo bat bereziki txokolatezko muxuak Elenek, Aimarrek eta Aitorrek!



OÑATI
**Sara Urzelai Eguren**
Apirilaren 20an, 3 urte. Zorionak, Sara! Iritsi da azkenian eguna...ondo pasatu eta patxo handi-handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Liher Izurrategi**
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, Liher! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat etxeko danan partetik, batez be Maddik eta Haizeak.



ARETXABALETA
**Oier Otxoa Diaz de Guereñu**
Apirilaren 19an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat zure familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Beñat Murguzur Lizarralde**
Apirilaren 19an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik, bereziki Aitorrek eta Maddik.



ARRASATE
**Hugo Carmona iglesias**
Apirilaren 19an, urtebete. Zorionak, polittoi! Urte bat jada! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat familia guztien partetik, *guapo*!



ARETXABALETA
**Elene Iztueta Etxenausia**
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, Elene! Txokomarrubizko patxo potolo-potolo bana zure prima Araitz eta Doltzaren partetik. Ondo-ondo ospatu zure lehenengo urtebetetze eguna!



ARRASATE
**Joanes Errasti Altube**
Apirilaren 17an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasatu eta besarkada handi bat Markelen partetik.



ARRASATE
**Ander Etxabe Uribarren**
Apirilaren 17an, 8 urte. Zorionak, Ander! Gure futbolista zortzi urte betetzen ditu! Muxu handi bat etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
**Egoitz Ibabe Santamaria**
Apirilaren 15ean, 3 urte. Kaixo, pitxin! Azkenian heldu da horrenbeste espero zenuen eguna. Ondo pasatu eta tori mila patxo etxeko guztien partetik. Zorionak, txiki!



OÑATI
**Lander Aranburu Gomendio**
Apirilaren 14an, 7 urte. Zorionak, Lander. Ondo pasatu zure egunean eta gogoratu gu beti ondoan izango gaituzula. Muxuak etxeko guztien partetik.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AI, ENE!

### Kafea hartu bitartean, saskibaloian jokatu



Geratuko gara saskibaloian jokatzeko? Edo kaferako? Edo kontukontari aritzeko? Aulkiokin, denak batera egiteko aukera dago.
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Sendatzen duten medikuak nahi ditugu, ez hitz egiten dutenak"

ZARAUZKO PP

Osasungintzan euskara sustatzeko kanpaina baten harira Zarauzko popularren txioak hainbat galdera sortzen ditu. Mediku mutuak nola jakingo du duguna; telepatia bidez? Eta hizkuntzak berdin badu, berdin izango zaie medikuak erru-sieraz egitea, ala?
**www.twitter.com**

## EGURALDIA



**Max.** 13º
**Min.** 8º

Fronte ahul baten eraginpean, eguna moteldu egingo da. Tenperaturak galduko du.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA
goiena"
2013-04-22

## HAMARREKOA

**John Andueza** AEBetan jaioa, oso txikitan heldu zen Arrasatera eta telebistak egin zuen ezagun; hainbat ikus-entzunezko lanen ostean, bigarren liburua, 'Kankaleko misterioa', aurkeztu du | TXOMIN MADINA

# "Irudi txar batek ez du hitz polit batzuek baino gehiago balio"

**1. Mapan begira egon gara... eta Kankalen arrastorik ez.**
Existitzen da; bada Kantauri itsasaldean Kankalen oso antzeko herri bat. Baina autoreok lizentzia batzuk hartzen ditugu eta benetako izenaren partez erabili dut Kankal.

**2. Kankalen gertatutako zein misterio argitzen da liburuan?**
Kostako herria izanik, udan turisten oporlekua da. Uda baten gizon bat agertzen da hondartzan tiroz hilda; hortik abiatzen da dena.

**3. Misterio liburu baten hasiera edo bukaera da garrantzitsuagoa?**
Biak. Saiatzen naiz hasiera oso potenteak idazten jendea engantxatzeko; bukaerak ere garrantzi handia du, lagungarria da istorio eta pertsonaiak nora doazen jakiteko, dena borobiltzeko.

**4. Iaz lehenengo liburua, aurten bigarrena. Trukua hartu diozu?**
Hala dirudi! Urtetan ez dut ezer publikatu, telebista eta zinemarako idatzi dudalako. Egun, horiek ez daude onenean; literatura errazagoa da nork bere kasa egiteko. Gustua hartu diot etxean lasai eseri eta inori baimenik eskatu gabe istorioak aurrera ateratzeari.

**5. Bi liburuak haur eta gazte literaturan kokatzen dituzte.**
Aurrekoa argi nuen gazteendako zela; erronka zen eurei gustagarria izatea, euskararekin erakartzea. Bigarrena ez nuke esango gazteendako bakarrik denik; belaunaldi ezberdinendako du enkantua.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

## "Mundua dantzan jarriko nuke"

"Imanol kantariaren abesti batek zioen: *"Mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza"*. Horrekin gauza asko esaten dira: ea laster mundua berriz dantzan ikusten dugun, duela ez hainbeste bezain alai. Nire ingurukoak animatuago, burua altxatzen ikusi nahiko nituzke, aurrera egiten laguntzea. Sinplea dirudi, baina ez da hain erraza".

**6. Kamera aurrean baino gehiago, atzean ikusten zaitugu aspaldion. Nahita ala horrela suertatu delako?**
Horrela tokatu zen; bere garaian ez zen nire erabakia izan. Bi aldeetan nago gustura; atzean segitzeko aukera banu, gustura egingo nuke.

**7. Lau film laburren ostean, bosgarrenik buruan?**
Ez. Nire gauzak egiteko aukera izan dudanean, *gozada* hutsa izan da. Baina mundu zaila da; gero eta lan gehiago eskatzen du. Niretzat, sormen aldetik, literatura antzekoa da eta ez hain konplikatua. Burua gehiago dut hirugarren liburuan, bosgarren film laburrean baino.

**8. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du. Ados?**
Ez beti. Errealitatearen ikuspuntutik, irudi bat ikusita ia dena ulertu duzu; balio itzela du. Hitzak indar berezia du; hitzekin jolastuz gauza oso politak egin dira. Ez dut uste irudi txar batek hitz polit batzuek baino gehiago balio duenik.

**9. *H*-a gehitu diozu izenari.**
Amerikan jaio nintzen, eta berez *h*-rekin da. Hemen beti bigarren planoan izan dut. Film laburrekin hastean, jolas baten sartu nintzen: proiektu pertsonaletan, aseta uzten nautenetan, *h*-a erabiltzea.

**10. Oregonen jaio, Arrasaten hazi, Elgetan bizi. Identitate arazorik?**
Beti Lesakaz maiteminduta gehituko nuke. Arrasate dut abiapuntu, han dago nere bizitzaren parte luzeena: mondragoetarra naiz.

## BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



## Hanka sartzeak

Martxoaren 25eko zutabean, Bergarako UNED unibertsitateak finantzazio faltagatik irakasleen %50 kaleratu zituela nioen.

Handik gutxira, ordea, UNEDeko irakasle eta ikasleek salatutako murrizketekin aurrera ez zuela egingo iragarri zuen Patronatuak, eta GOIENAk apirilaren 15ean honela jaso zuen: "Sistema bereziko tutoretzak kolokan jarriko zituztela salatu dute irakasle eta ikasleek (...) UNED-Bergara Patronatuak (Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala barikuan eginiko batzarrean erabaki zuen tutoretza sistemari eutsi eta hasierako planifikazioa betetzeko, beharrezko baliabide ekonomikoak bideratzea. Eusko Jaurlaritzako Itziar Alkorta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburu-ordea gonbidatu moduan egon zen batzarrean".

Hanka sartzea zuzendu dut; eta hanka sartzea zen asmoa ere zuzendu du UNEDeko Patronatuak.

Lasai bitez, beraz, irakasle eta ikasleak.

Baina zein da Jaurlaritzako Unibertsitate sailburuordea gonbidatzearen arrazoia?

Nun dago erlojerue?... txoritan!

